

amaitasuna

1979.eko Abendukoa. 393-394. alda - 80 pzta.

URTEARRI ON


*gabonetako
ale berezia
amaitasuna*

...nautienak, Konstituzioa argi eta garoi erretusaten
...ela adierazi behar du eta.
...Eta ondoren ikur...
...ktuak lurralde...
...Lehen leh...
...n, edo ka...
...koa e...
...az...

2. Proiektua oinarrituz gero (geniengo osoz gainera)
kongresuko konstituzio batzordeari igorriko zaio. Bat-
zorde horrek lurralde autonomo biltzararen ordeka-
du.
hin
rau
mi-
de
en
31-
e el
ente
hen
i ez
ena
ren,
ean,
tara
lera
gin-
mo-
orik
era-
etan
ango
o lit-
egin
orma
arti-
gun
hasi
lune-
enez,
bate-
ngan
lizial
e era
horik
iskal
ako-
uena
stra-
stra-
ndus-
tzek)
betaz
mater
adrileko
eko Gober-
aren lana esta-
boterea adminis-
tea izanen da. Bai-
na, erakunde autonomo berek ez ote dira ba, zer guzti
horietarako gauza, Madrileko Gobernuak gainean ukan



CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa 



aurkibidea



4. Artikuluburua
5. Diskoak Hamabostero. K. Arko
6. Basurtu-ren etorkizun beltza. I. Urtaun.
8. Gutun Irekia. J. Agirreazkuenaga.
9. J. Agirreazkuenagari erantzunez. T. Trifol
10. Langilearen Estatutua dela eta.
14. Euskararen arazoa ikastoletan (II). M. Kalzakorta.
16. Andereño ezezagun bati gutun irekia. T. Trifol.
18. Euskaltzaindia zertan?. K. Santisteban.
19. Itxaropen berria. A. Eguzkitza.
20. Karrantza, paradisu hurbila. K. Santisteban.
22. Hamabost egun hankaz gora. Bixer, I. Zabaleta.
27. Anasazi Indioak. I. Zuazo.
28. Gabonetan gartzelan.
30. Marikoia... bai, eskerrik asko. T. Trifol
34. Sozialismo bideak urratzen. Mendizabal.
35. Eta non gizona. K. Santisteban.
36. Partidu Feministaren tesiak. M.A. Landa.
38. Poema liburu berri bat. A. Eguzkitza
39. Amaia Lasarekin Mintzo. M. A. Landa.
40. Borges, elkarrizketa bat.
42. Sukalderako saltsak.
43. Apocalipsis now. J. Sarrionaindia.
44. Donostiako Zinema amateur Jaialdia. X. Portu.
46. M^a Paz Jimenez, Herrian zaitugu. I. Berroa
48. Gudu Antzeak (eta II).
50. James Clerk Maxwell. I. Zuazo.
52. Gramatika. J. R. Etxebarria.
53. Liburuak
54. Gurutzegrama. Astabelarriak

anaitasuna

KOORDINAKETA
J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA
J. Llerandi, T. Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Alvarez,
B. Atxaga, J. R. Etxebarria, Miren
Izagirre, E. Knor, J. Idigoras,
J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol,
I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Alvarez, A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebalzategi, Mariasun Landa, I. Azkoaga, J. L. Alvarez (Txillar-degi), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, M. Haranburu, M. Lasa, R. Ordorika, E. Entziondo, S. Laffite, M. Pagola, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J. J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxeberri, B. Barandiarán, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

Legè Gor. D. L. BI-1753-1967



FIKZIOZKOA GERTA DADIN

Gertatu diren hauteskunde garaiko deklarapenen artean Eusko Kontseilu Nagusiaren barne-kontseilariak euskara telebistan sartzea prometatutako zigun, datak eta egun zehatzak emanaz. Gure buru zultatu edo hobe, sineskor hau, horretaz gogoratzen da oraindik. Haren hitzez hitz, azaroaren hamaikagarrenetik aurrera eta larunbat guztietan haurrentzako ordubeteko programa berezi bat egongo zela seguru jotzen zuen delako kontseilariak. Baina hamaikagarrena joan egin zaigu oso atzera eta beti bezala, promesak usteldu zaizkigu zain egon garelarik. Eta orain zer?. Pazientziaz hartu ala salatu?

Guretariko askorentzat, Herri honek sinesten duen esperantzarik fikziozkoena euskal telebistarena litzateke. Beste politik puntuak baino askoz gehiago, zer esanik ez.

Militantismo eta militantismoan jarri dituzte gelditzen zaizkien itxaropen apurrak. Frustrazio guztietatik burruka mistikoaren oihu garratuari berriro ere ekin behar zaiola jo eta ke sinestarazten digute, gure hizkuntzaren salbaidide guztiak hor jarriz. Baina hizkuntzak ez ditugu taktika iraultzaileak, ez eta inongo iraultza sozio-ekonomikoaren parte "sine qua-non" ik. Erabilbideak ditugu funtsean. Eta erabili behar diren lekuetan erabiltzen ez badira, pobretuz eta hilez doaz. Gauza bera gertatzen zaio gureari.

Ekinkidetasunak, nahiz eta berreskurapenaren motorra izan, fruituak eman behar ditu; bestela baztertuz, atomizatuz eta kasu hoberenean, erlijio antzeko komunitate "progresistak" eginez joango gara, guretariko berreskuragarrienak eta famatu haiek, zenbait erakunde politiko eta sofistikatuetan txontxogiloarena egiten dutelarik.

Euskal Herria, talde masoniko sekreturik ez bada, euskararik gabeko Euskal Herria dugu. Errealitateari so besterik ez diogu egin behar horretarako. Fikzioa gerta dadin, Kintanaren "ukronia" triskatzeko, geuk hartu behar dugu desafioa, geuk sartu behar dugu euskara, telebista eta irrati guztietan. Beste haiek ez digute sendabide funtsezko-rik prestatuko. Eta fikziozkoa, kontrakoa sinestea da".

EUSKAL ROCK N' ROLL NIKO ETXART



NAHASKETA
Niko Etxart
KARDANTXA

Gure musikaren hildoa gero eta egokiago agertzen zaigu, garai berriek eskatzen dituzten profesio eta soinu egituretan; gaur, hildo horri zentzu berriztatzailea eransten dioten disko berri bi ekarri nahi ditut.

Euskal Herrian sortzen den diska-gintzaren formetarik asko konprenitzeko, beharrezko da, diskoaren merkatuko produktu kontsumista eta aldakor ezagutztea.

Zuberotarra dugu Niko Etxart; eta Frantziak Iparraldean aplikaturiko forma musikalen barnean sorturiko musiko gehienen moduan, estilo berezi eta berria da.

Beharbada, baten bati, gogorregi irudituko zaio Frantziaren industria musikal boteretsuek, mugaren beste aldean musika kontzeptu bat sorterazi dutela esatea, hemengoa baino askoz tekniko eta prestatuagoa. Gogoragarria dugu horretaz Errobiren kasua. Orain Niko Etxart agertzen zaigu diskoaren mundura. Honek dakarkigun musika moduan, problematika sozialaren pisuaz, zuberotarra izan arren, bere burua banaturik, apartaturik sentitzen duenaren problematika nabari da. Kantuetan, herriaren maitasunaz eta honen askatasunerako prozesuaz egiten digu berba.

Gaur arte jaietako gau dantzetan ibiltzen zitzaigun Niko Etxart,

herri honetan ditugu rockarietarik argienetarik bat dugu, lortu egin baitu 1950ko rock tradizionalaren eskema euskaraz egokitzea, egiaz eginkizun zaila eta ez bakarrik hizkuntza problemengatik, bai eta bertoko giroik tradiziozaleen etan ager litezkeen kritiken-gatik ere.

Niko-ren lehen lan diskografikoa euskal rock and roll izan zen; eta estraianoa bada ere, kantu hori ez zaigu agertzen LP honetan. Herri melodientarazko beste joera bat agertzen zaigu, standard estiloko melodien moduan, egokituriko konponketak, Kardantxako grabaketetan ohizkoa dena,

Ahotsari dagokionez, N. Etxart gizon interesgarria dugu, bestolaritzaren estilora jota.

Diskoak ona dela uste izanik, Niko Etxarten etorzizuna rock-and-rollen bidetik abiatu behar dela pentsatzen dugu.

Diskoak hamabostero

K. ARKO.



Itziar
Xoxoa

Itziar dakarkizuegun ahots berria da. Hiri giroak gero eta gehiago eragiten duen belaunaldi batetik sortua. Honek Euskal Herrian, baserriaren mundurako joera nostalgiko bat, suposatzen du, diskoan, gaurreguneko modura itxuraturako poema eta melodia zaharren bidea agertzen dena.

Gabriel Aresti eta gaurko beste autore batzuren poemak azaltzen dizkigu. Baina diskoak inportanterik duena ahotsa da.

Hain da bakana emakume kantarien kasua gurean, non itziarr, hogeitaz Phoebe-snow, Roberta Flack, etabarren estiloko formetaz kantatuz, harrigarri gertatzen

baitzaigu.

Egiaz ahots gozoa "Haizearen gogoan" kantuan eta konbitzio diasistiko betetik "Agur Mikel"-en. "Harri eta Harri" kanturik komertzialena da. Itziar-ek, nire ustez, behe-ara botatzen du kontserbategi emakumearen eredu, gure artean sarritan aurkitzen dugun abesbatza polifonikoko emakumea, eta esperantzak sortera ditzkigu rock, jazz edo bosanovaren alorretarako.

Diskoaren instrumentazioak akats nabariak ditu. Arineketan eginik eta helduegiak edo taldean jotzeko ohiturarik ez duten musikoei jota. Hurrengo diskoa elaboratuago izango dela espero genezake; konpontzaile egoki baten laguntza beharrezko du. Ahotsa oso interesgarria da.



Cruces-eko ohe berriak

Bizkaian dauden ospitale jeneral bakarretatik bat Basurtukoa da. Orain arte 1.100 gaixo hartzen zituen eta 1.500 langilek egiten dute lan bertan. Gaur egun, gestio txar baten ondorioz eta presupostu gabetasuna dela eta, alde onean daduzka ateak.

Ospitalea sortu zenean, "behartsuentzat ongiegite" gune bat izango zela esan zuten, medikuntza pribatua ere praktikatzen zelarik.

Egun, % 85 ohe Segurantzaren Sozialean daudenak dira, besteak pribatuak, benefizentziakoak, igualitarioak, mutueta-koak, etab. izanik.

Aurtengo uztaila arte, "Junta de Caridad" batek zuzendu du ospitalea. Entrepresa komiteak salatu duenez, honen gestiopean garrantzi handiko administralgo iruzurrak izan dira. Bestalde, Segurantzaren Sozialeko eriek, besteak baino askoz ere gehiago ordaindu dute eta urtero SSrekin egiten dituzten kontzertuak prezio ttikikoak izan dira; honela ospitalea atzean gelditu da, azpiegiturarik gabe, pertsonal guti lanean eta oso behe-

ko osasun kalitateaz.

Orain, gestioa "Gestora Democrática" baten eskuetan dago; honetan, Udal, Diputazio, CGV eta Aurrezki Kutxen ordezkariak, langileen batek eta medikuen beste batek hartzen dute parte boz eta botuz, gainera, zuzendariak eta gerenteak bozez baina boturik gabe.

Hauak, lehengoan hondamenean sarturik aurkitu dute beren burua, baina ez dute neurri gogorrik hartzeko interes handirik ere. Zulotik ateratzeko berehalako plan bat eskatzen diote Madrili, eta Castañaresen hitzetan, INSALUdek ba dauka hiru urterako egitamu bat. Ez digu esan zein den.

LANGILEEK MOBILIZAPENERA JO DUTE

1.500 lanpostu daude pikutara joateko arriskuan, Basurtu altxatzen ez badute. Langabezia aurrean ikusteak, beste edozein arrazoi baino pisutsuagoa izaten da borroka aurrera eramateko orduan. Horregatik, langileen ordezkari den entrepresa



Medikuntza selektibitatearen kontra. Preinskribatuak burrukan.



Basurtuko ikasleak asanbladan

komitea, saltsa honetan neurri gogorrenak hartzen dituena da; herriari laguntza eskatu dio, beste entepresetako batzordeekin harremanetan jarri da, hitz batez, mobilizapen bidea aukeratu du, egin dituzten manifestaldi, trafiko ebaketa, etab. direlarik lekuko.

Beren eritzik, Gestorak eta CGVren Osasun batzordeak, ez du ezer positiborik ateratzen. Hilak 21ean, Osasun ministraritzak "estudio komisio" bat bidali zuen Basurtura, honek ikusi zuenaren informea egin ondoren, 27 an bilera bat izan zen Madrilen, CGV, Gestora eta INSALUDen ordezkari batzuren artean. Entrepresa Komitea ez zuten gonbidatu baina han agertu zirena partaide batzu, ez baitzuten konfidantza handirik CGV eta Gestorarengan, orain arte nola utzi duten negoziaketak luzatzen ikusiz gero.

Bilera honetan Ministraritzak esan zuenez, Basurtik ez du beste guneek baino diru gehiago jasoko.

Dena dela, Basurtu hixten bada, konpromezu handia hartzen dute jaun hauak; Bizkaian oheak falta direnean, 1:100 ken-

BASURTUREN ETORKIZUN BELTZA



Basurtuko ospitalea



Cruces-en oheak pasabideetan

du, langabezia konpontzeko 1.500 langile kalean utzi, praktikak egiteko jadanik problemak dituzten ikasleei Basurtu ukatu, hots, selektibitate neurri gogorragoak ezarri.

Crucesen, beti egoten da toki problema, baina oraingoa gehiegi da; oheak pasabideetan, laborategian, egongelan... edonon.

Egoera larria da eta larrigoa izan daiteke. Presioek, CGV eta ospitaleko Gestora, irtenbide bat bilatzera behartzen dute, baina...

ZULOA BETETZEA EZ DA ASKI

Hitxi ala ez datza hor gakoa.

Mediku batzuek, hixtearen alde ateratzean beren arrazoiak ematen dituzte: "ez dago materialerik, ez inongo baldintzarik kalitate minimo bat emateko... beraz, hobe de hixtea".

Eta orain konturatu al dira? Urteak daromatza Basurtu kontzertaturik, erdi pribatu eta erdi publiko; mediku hauek irabazi onak atera dituzte egoera honetatik ospi-

talea deskapitalizatzen zen bitartean, eta orain, soluketa, hixtea dela diote, beren lanpostua zihur baitaude Leioan edota arlo pribatua indartuz, eta indartuko da Basurtu hixten bada.

Hixtea ez da soluketa, baina zuloak betetzea (abendua ordaindu, dirua lortu...) ez da nahikoa etorkizunerako. Hainbat interes ba dago tartean, eta hauen kontra zuzenki jotzen ez den bitartean, hots, Basurtu sare publikoen sartzen ez den bitartean, etorkizuna oso ilun agertzen zaigu, Bizkaian, Cruces, Basurtu, Galdakao eta Leioa beharrezkoak dira eta gehiago beharko genuke, beraz bat zabalduko delakoan ezin da besterik hitxi.

IKASLEEK ERE BA DUTE ZER ESANIK

Sistema honen betiko inkongruentziak. Bizkaian, Segurantza Sozialean, orduan batez besteko 53 paziente ikusten du mediku batek, baina medikuntza hasi nahi duten ikasleei selektibitate banaketa ezartzen zaie. Ba daude, hiru, lau edota lanpostu gehiago duten medikuak —kobratzeko, ez lan egiteko noski— eta

bestaldetik beste asko langabezian.

Praktika guti egiten dituzte, eta azken urtean daudenek ideiarik ez dutela esaten dute, baina titulua lortzen dutenean lan egin behar, ahal badute behintzat.

Eta hau dena konpontzeko, zer ari dira egiten gure agintariek? Basurtu baldintza onetan jarri beharrean, hixten uzten dute. Estatuak, bere Plan ekonomikoaz, osasunari dirua kendu nahi dio, medikuntza pribatua lehen baino gehiago bebesten du.

Nork galtzen du? Betikoak, langileak. Bi edo hiru bider ordaindu beharko du bere osasuna gaizki zain dezaten —materiale falta, aldez aurretiko medikuntza ez eta pentsatu ere, dirurik ematen, ez baitu eria botikaz bete, hori baita emankorra...

Lanean dagoena lanik gabe geldituko da. Ikasleak ezin du praktika egin, baina egunen batean, "ikasi duela" esango diote titulu baten bidez, orduan, bost lanpostu duen mediku zaharra hil arte itxaron beharko du, ea bat berari erortzen zaion. Hori mafia!

Itziar Urtasun

GUTUN IREKIA EDO IREKITASUNAREN ALDEKO GUTUWA

Azken aldi hontan, gogoia eta idazteko premia agortuz joan zait, Anaitasunako azken zenbakiak irakurriarekin, batipat estatutuaren ingurukoak, eta badakidanez ez naiz bakarra. Orain aldizkariko zuzendariak bolada elektoreroa igaro ondoren berriz deitzen naute zerbaitetaz idazteko. Baina estatutuari buruzko zenbaki berezia lantzeko, alegia, ahaztu edo astirik ez zuten aurkitu, ikuspegi zabala, jakina muga batzuen barne, eskeintzeko. Nahiago izan zuten beren alderdiko eritzia errepikatzea, besterik gabe, dogmak ez baitute eukitzen kontrapuntuen premiarik.

Editorial xebleak irakurtzeko aukera ere izan dugu. Badirudi garrantzi sakonagoa duela hitzen inperioak, ekintzen bururak baino.

Dena dela, neure protesta azaldu nahi dut, aldizkaria zuzendarien eritzi politikoaren zerbitzuko tresna bihurtu delako, bolada hontan, kontutan hartu gabe harpidedunok mantentzen dugula aldizkaria, eta eritzi guztietakoak gaudela, puntu minimoen mugen baitan.

Baina dakusagunez, printzipio demokratikoak praktikan jartzea ez dugu hain erraza, nolabaiteko boterearen jabe garenean.

Gaur egunean, nire ustez, Anaitasunako historia ikusi ondoren, eta euskarazko prentsaren ahuleziarekin jabeturik, arazo nagusia irautea dugu. Ostera, geurek egin du. Baina irauteko bidea ere muga batzuen barnean burutu beharra dugu, eta aukeratu den bidea azken aldi hontan ez dut uste egokiena delarik, zeren parte baten probetxuan erabiltzeak zuzen zuzen besterik gabe, ez dut uste, etorkizun luzerik zabalduko ote duenik.

Gure herrian batek baino gehiagok uste ohi du, zenbat eta txarrago egon hobe, zenbat eta zapalkuntza gehiago eta euskara baztertuago hainbat hobe. Horrela iraultza kontzientzia bezpiztuko dela uste baitute. Baina pentsakera horretan murgildutakoak, idealista eta mekanizista xumeak ditugu. Iraultza berez ez baita eroriko. Iraultza burutu egin behar izaten dugu, soluziobide demokratikoak eskeiniatz, jasaten ari garen arazoei buruz, Eta hola, langileen botere premia nagusituz dihoala, guztion eginkizuna bihurtuko dugu gizartearen aldakuntzajlea. Iraultza golpe bat baino eginkizun bat baita. Eta urrun joan gabe, honen adierazlerik garbiena euskararekin gertatu zena dugu: frankismoaren garaian, euskara prestatzen zihotan eta demokrazi burgesa, askatasun mota batzu, autonomia eta abar lortu ditugunean, euskara batua hainbat arlotan egokitua dugu. Beste horrenbeste gizarte zibileko hainbat arazoetan; nahiz eta onartu prozesu produktiboan aldakuntza,



askoz konplexuagoa dela. Beraz iraultza eta autodeterminazioa ez dira arazo espontaneoak. Landuz eta irabaziz burutzen ditugu, langileen hegemonia, klasezko gizarte errealean, eta hildo beretik gizarte zibilean lortutako aldakuntzak, maila errealeko klase aldakuntzei laguntzen dizkie.

Beraz bukatu nahi dut; euskal prentsari eutsi behar diogu, eta hortan nago. Baina heltzeko modu asko ditugu. Inork ez du eskubiderik eta gutxiago harpidedunok ordaintzen dugun aldizkaria, prentsaren

boterea beren zerbitzura bereganatzeko, eta minimoen barnean ere kontzientzia demokratikoagoa premiazkoa dugu besterik ez bada ere.

Bestela irakurleak irabazi ezik, galdu egingo ditugulakoan beldur naiz. Hona hemen ba Anaitasunako boterearen jessioa nola ikusi dudana azkenengo hila hauetan. Laguntzeko asmoz idatzi ditut lerro hauek. Besterik gabe.

Joseba Agirreazkuenaga

JOSEBA AGIRREAZKUENAGARI ERANTZUNEZ

Zure karta irakurrita susmatuko duzunez, ni ez nago pertsonalki bat ere ados zure argudioekin, aipatzen dituzuen puntu batzuri ene erantzuna gertatzen dizut, argia egiteko asmoz, eta zure salakuntza grabe horiek triskatu nahiaz.

Aspaldidanik etxe honetatik zu ikusteko zoria izan ez dudanez gero, dudarik gabe lanpeturik ibiliiko zara, eragin politiko gutti duen errebista erdi underground honetako beharrei lagundu baino beste asuntu askoz garrantzitsuago erabiliko duzu agian eskuartearen, baina berori den arren, zuk nik bezain ongi ba dakizu Anaitasunak ez duela inolako zentsura ideologikorik, nahiz eta maizetan ikusten ez bazaitugu idazkuntzaren bileretatik eta azken ohar hori ahaztu ez bazaizu ere.

Zoritxarrez, zuretzat, argitaratzen diren artikuluak kexatu egiten zarete (ez baitzara bakarra) eta zure ustez edo eta eritiz, zuzendaritzak edo zuzendariak partidu zehatz baten zerbitzuñean daudelarik ikuspuntu politikoa alderdikoi batzu soilik bultzatuko lituzkete. Baina errealitatea berriro ere zuk nik bezain ongi ezagutzen duzuna, zein handi izaten baita idazle konkretu batzuegandik alferkeria eta idazteko gogoeza non gurekin lan egiteko eguneroko ala asteroko deiak eta telefono hotsak eta abar eta abar fruitubakoak geratu dira maizegi. Ondo beraz, Joseba, Anaitasunako "zuzendariok" aurten eta ihaz zehar, medio guztien bidez zuen artikuluaren atzean ibiliak izan gara eta azkenez, derrigorrean, akitu ere bai. Zuek jaikingo duzue zergatik ez duzuen idatzi nahi izan eta eginez gero zergatik tantaka egin duzuen bada. Herri honetan zabalduz doan minbiziarengatik dateke izan agian, hots, argitalpen bat goitik behera kontrolatzen ez bada, baztertu eta bertan behera utzi egiten da, honela pixkanaka bere dinamika propioaren bidez, "hanka sartzeak" gero eta ugariago daitezela esperoan, nolabait gerxeago esan dezaten... "Ikus, esana genizuen bada, errebista hori halako partiduren barneko aldizkaria duzue"...

Joseba burkidea, hamabostero idatzi behar da, idazkuntzaren bileretara etorri behar da. Hitz guttitan, kexatzeko abagadune morala edukitzeko lan egin behar

da. Lurra nekazariena da, ez jauntxoena.

Errebista hau partidu baten barneko denaren eritzi horri buruz ba dakizu, berriro ere ahaztu ez bazaizu, ez duela idazkuntzaren kontseiluak inolako artikulurik baztertu edo eta apaindu. Bestalde gure idazle zerranda aztertzen baduzu, gehien goa independentiek osaturik dagoela oharuko zara erraz.

Zure "tendentziakoak" ez dira horregatik gutti eta ez da gu idazlearen bekatua beraiek idazten ez badute, zuona baizik.

Zer nahi duzu bada, artikuluen falta dela eta, inongo artikulurik ez argitaratzea edo eta ohorezko neutraltasun baten izenean norberak bere buruari dzaka egin eta beste horien teoriak txarto hala hobe imitatzea?. Ez etor mesedez oraingo honetan prentsaren neutralitatearen bikaintasunak goraiatzera. Ezagutzen al duzu prentsa neutralik?. Telexak neutralak balira erel. EGIN, PH, ERE, DEIA, A. ARGIA, MUGA, PAIS, neutrotzat hartzen al dituzu?.

Guk ez dugu partiduen ordenu hitzik errepikatzen, gure jarrera guztiz autonomoa dela ba dakizu eta hala ere parada zehatzetan geurea eta besteona batera badatoz, hainbat hobe, guttienez ez gaituzu bakarrik.

Zenbait euskal ezkeraren aldizkari edo alderdi UCD-ekin nahastatzea eta berdintzea, horiek guztiok Gernikako Estatutuari baietz esan zutelako arrazoiaren aitzakiaz, burutik ondo dabilen inori ez zaio burutzen. Are eta guttiago, Gernikako estatutuaren aldeko jarrerak artikulurik buruan defendatu barik, horrialde guztietan sibilinoki baina ez horregatik "ohorerik gabe" zenbait argitalpen kasuan. Ametituko duzu behintzat Anaitasuna ez dela inoiz sibilinokoa izan. Trapu zahar guztiak aurpegiara botatzen ditugu.

Gure jarrera autonomoa, autonomoa delako, ez doa beti batera zuk aipatzen dituzun jaun andre batzuegana, eta elkar badator, hor konpon, gu ez gaude inoren menpean eta inongo koalizio politikoren esklabutzan.

Estatutu horri buruz ba dago besterik.

Niri eta beste askori oso lotsagabekoa eta

Estatutu horri buruz ba dago besterik.

Niri eta beste askori oso lotsagabekoa eta

mutur luzetakoa zera irudituko zitzaigun: Alde batean milioi eta propaganda guztiak eta bestean bapo. Nik neure aldetik aspaldian dut ohorea galduta.

Zure diskurtso politikoa ez zait pertsonalki batere interesatzen baina dakizukenez jarrera politiko guztiak errespetagarriak dira eta aldizkari honetan horretarako eta edo ezertarako ateak beti zabalik egon dira. Baina niri benetan min egin didan gehiena euskarari buruzko pundua izan da, nahastu egiten baituzu estatutaren onartzen eta praktikara eramatea. Praktika horrek herriari eta euskarari probetxurik-nahiz eta ttikiena izanik ere-ekarriko balio, Anaitasunak, bere traiektozia historikoa ikusita, indar guztiez lagundu eta goraiatzeko luke. Zuk ba dakizu laguna, ez garelako izanen behar gabe honetatik atera gaitzakeen neurri berezien trabatzaile, atakatzaila edo eragozle, zuk guri jaurtikitzen diguzun dilema hori inola ere kunpli ez dadin:

"Zenbat eta zapalkuntza gehiago eta euskara baztertuago hainbat hobe" (sic). Delako hori bota iezaiozu Herri Batasunari nahi baldin baduzu eta pentsa dezakenez koalizio horretatik erantzunen bat lortuko duzu seguraski gure aldizkaria plataforma bidez erabiliz; asuntu horietaz interesaturik daudenen argitasunerako.

Nire aldetik, ez naiz aspaldian asko fidatu Euzko Kontseilu Nagusiaren erremedio miragarriez (Ez eta beste batzueganez) baina euskarari buruz dela eta nola susmatuko duzu Anaitasuna, beti edozein pertsona, alderdi, edo erakunde zehatzen gorai-pamena egin duelarik guttienezko laguntzak ere nabarmenduz?.

Zurekin ados nagoen puntu bakarra ondokoa da: Anaitasunak jarraitu behar duela eta delakoa gure arazo nagusia dela.

Amaitzeko zera, erantzun hau guztiz nirena da, denona izateko Anaitasunako idazle guztion ordezkarien (idazkuntza kontseilua) onartzea eduki beharko litza-teke eta dakizueenez hamabostero larunbatetan biltzen gara.

Besterik gabe, **denon** lankidetasunaren zai.

Tomas Trifof/Abenduak 4.

LANGILEAREN ESTATUTUA DELA ETA SINDIKATUEKIN MAHAI INGURUA



Langilearen Estatutua izendatu den arren, nolabait langileen ordezkariak diren sindikatu gehienek hobe deritzote UCD-ren Langilearen kontrato Estatutua izendatzeari. Ugazaberiaren helburua bistan dago, krisisaldi ekonomiko zital honen gaiztozko posibilitateko dion tresna egokia osatzea. Eta berdinean zaie horretarako, langabezia gutxitu beharrez, handiago egiten bada ere.

Sindikatu guztiak, UGT-ren salbuespenaz, bat datoz Estatutu hau gaitzesteko. Baina gero, ekintzarako orduan, greben orduan banaturik ikusi ditugu, agian, gaitzespen horrek neurri diferentek dituelako batzu eta besteengan.

Euskal Herrian ari diren sindikatuen jarrera hau ezagutzeko asmoz mahai inguru baterako deia egin zitzaion zentral guztiei. Gaiaz zer esanik franko duen UGT-k nahiago izan du, hala ere, ez etorri.



Ezkerretatik hasita, USO, ELA, CCOO, LAB, SU eta CSUT-en ordezkariak. UGT falta zen.

Berdin esan daiteke Estatutua osotuagotzeko akordio marko edo itun sozial horietaz. Beraz, gu kontra gaude.

CSUT: Gure eritzian, Azaroaren 27 eta Abenduaren 7ko greba orokorretaz, Euskadiko Langileriak erantzun berezia eman dio UCD-ren Langilearen Estatutuari. Euskadiko Langileriak argi ikusi baitu Estatutu horretaz erabat loturik gelditzen dela.

Guretzat, frankismoaren legeak berritzeko saio bat da. Ezin onar dezakegu, beraz, ez Estatutu hau, ez beronen konponketarik ere. Ezkerreko indarren jokabide bereziaz behartu egin behar dugu Gobernu, Estatutua Parlamentutik erretiratzeko, eta beste bat egin dezan Gobernu eta sindikatu guztien partaidetasunaz. Estatutu berri horrek, Euskadiko baitutariaren mailan langileria eta sindikatuen eskubide guztiak jaso behar ditu.

Desbedinak dira, guretzat ere, Lan Harremanetarako barrutia eta Negoziaketa kolektiborakoa. Bigarren hori, ona izanik ere, ez da nahikoa, eta Euskadin zein mailatako Estatutua nahi dugun erabakitze eskubidea dugu. Diferentzia horri oso inportatea deritzogu, eta zentzu honetan, gure pentsakera ados dator LAB-enarekin.

USO: Azken urteotako aldaketa politikoa lortzeko burruka politikoan, langileria izan da protagonista nagusia, eta ezin orar dezakegu orain, entrepresetako demokrazia eta langileen eskubide eta libertateak galerazten dituen estatutu bat.

Gure aldetik, LSB-USO-k, Bartzelonan 1979.ko azaroan egindako sekzio sindikalen batzarrean, Konstituzioaren mailako Langile Estatutua eskatu du.

Errefusatu egiten dugu Komisioak onarturiko testua, langilearen eskubideak galerazten dituelako eta frankismoko legeak baino atzerakoagoa delako.

CC.OO: Gure balorapena negatibonegatiboa da. Guk Langilearen Zigor Legea deitu dugu. Besterik esan beharrik ez dagoela uste dut.

A: Lan Harremanetarako barruti autonomikoa eta Negoziaketa Kolektiborakoaz arituzarete, eta oso desberdinak direla esan. Azal diezagukezue, sindikalgintzan sarturik ez gaudenontzat, diferentzia hori zertan datzan?

beherako estruktura bat, eta Euskadi mailan sindikatuen edukia zeharo hustu nahi duena. Hauxe litzateke gure balorazio globala.

LAB: Ados nator gehien bat ELAko lagunak egin duen azalpenaz. *Langilearen Estatutuz* Konstituzioaren hezurdura guztia finkatzeko barruti legislatibo, jurikiko eta instituzionala jartzen dute betiko. Gure ustez, erformaren finkatzeko burjeseriaren tresna bat da, eta bestetik, irtenbide burjesa eskaintzen zaio Krisis Ekonomikoari, langileen eskubide pertsonal eta kolektiboak moztuz. Plantilen flexibilitatzea, produktibitatearen gehitzea, etab, oso Estatututu murrizgarria beraz.

Arazo grabea da eta erantzuna eman beharko dugu. Ondoren gobernuaren austeritate planak datoz estatutu honi lotu lotuta, honela krisiaren pisua langilean lepoetara bota nahi izango dute.

Bestetik, Euskal Herriko langileriarentzako barruti autonomikorik ez da inondik ere agertzen. Eta autonomiaren bidean gaudela, hau izugarri grabea da, ez baitago, gure eritzian, inolako autonomiarik, Seguritate Soziala. Lan Harremanetarako barrutia, etab, langileentzat inportantzia itzela duten arazoak, kontutan hartzen ez baldin badira, eta hori, noski, Estatuko beste nazioetako langileekin elkartasuna apurtu barik. Beste arazo grabe bat Estatutuan, entrepresa barneko ekintza sindikala betiko apurtzea da, 81. artikuluz negoziaketa burutik egitea inposatzen da, eta hau dela eta, fabriketako negoziaketak pikutara doaz.

Honetaz zehatzago izateko, LAB-ek ez du gaitzesten Euskal Herriko negoziaketa kolektiborako barrutirik, baina gure helburua nagusia, Lan Harremanetarako barrutia da, eta biok desberdinak dira.

Beldur gara horretaz, zenbait sindikatu ez ote den tranpa horretan jausiko ote den eta behin negoziaketa kolektiborako barrutia lortuta, bestea bistatik galdu.

SU: Estatutu hau Gobernu eta CEOE-ren eraso bat da maila guztietan. Honetaz gure orain arteko egoera ez da ezertan ere hobetzen, txartoagotzen baizik, eta hauxe nabarmena da kapitulu eta titulu guztietan. Gobernu eta CEOE-ren helburua langileria desarmatzea izan da, gero beren plan ekonomikoak lasaiki eraman hala izateko aurrera. Estatutua, beraz, horretarako behar duten legea da.

ANAITASUNA: Hasteko, sindikatuok Langilearen Estatutuari zer deritzozen ezagutu nahi genuke.


ELA: Horretarako, lehengo ugazaberiak estatutu honetaz markatu dituen helburuak ezagutu behar ditugu. Estatutua egin baino lehenagotik ere, argi ziren ugazaberiaren hiru helburu nagusiak: Lehena, langileriaren eskubide indibidualak ahal denik eta gehien mozte. Horretaz, ba dago erreferentzia bat, Martxoaren 4eko Lan Harremanetarako Legeaz hortik baitzihoan. Egoera demokratiko honetan, egin duten lehen pausoa beraz, eskubide indibidual horik gutxitzeko izan da.


Beste helburu bat, sindikatuen kompetentziak hustea izan da, horren bitartez langileriarri indarra kentzen zaiolarik. Eta guk ikusten dugun hirugarren helburua, Euskal Herriko sindikalgintza deuseztatzea. Honetaz, argi dago, azken tituluak Madrilen negoziatzeko posibilitatea uzten duela bakarrik, agian, pentsatzen dute hango jendea bertokoa baino zibilizatuagoa ote den.

Estatutuaren lehenengo tituluan, garbi agertzen da kaleratzea liberrik gertatzen dela. Lehengo moduan dagoela esan liteke, baina are merkeago entrepresariarentzat, indemnitzapenak gutxitu egin baitituzte. Bestalde plantilen flexibilitatzea ere lortu dute. Orain arte, sei hilabetetako kontratua, lan ebentualentzat bakarrik egiten bazen, aurrerantzean, edozelako lanentzat sei hilabetetako kontratua egingo da; guk horri, plantilen flexibilitatzea liberrik uztea dela deritzogu.

Bestalde, pertsonalaren mobilizatzea fabrika barnean. Langileentzako zigorrak askoz gogorragoak bihurtzen diren bitartean, nagusientzakoak eta hauek ordaindu behar dituzten indemnitzapenak, aldiz, askoz merkeago egin dira. Bai, Ministruen Kontseiluak hamabost miloitarainoko zigorrak ezar diezazkieke ugazabei, baina horretaraino ailegatzeko, ez dakit nik zer egin beharko duten, norbait hil edo...

Lehen titulua, beraz, langileen eskubide indibidualak mozteko. Bigarrenean, entrepresetako komiteak orain artean izan dituzten posibilitate batzu ere kentzen dira, orduan arazoaz batez ere. Eta azken tituluak, negoziatzeko estruktura bat markatzen du, goitik





ELA: Sindikalgintza makal dago Espainia mailan eta Ugazaberia konturatu egin da, bere arazoa aurrera ateratzeko, sindikatu bakar batekin askoz errazago izango zaiola, eta hori, UGT izan daitekeela ikusi du. Modu honetan, batetik UGT-k aurpegi zuhurra erakusten du, PSOE-ren "Botere Alternatiba" bultzatzeko, eta bestetik, beste sindikatu guztiak jarrera egosgaitzetan eta negoziaketaren kontraotan uzte ditu.

UGT-ren sindikalismoa behera zetorren, eta honetaz Espainiako sindikatu bakarra bihurtu nahi dute. Ba daukate horretaz esperientzia bat Primo de Rivera-ren diktadura garaitik. Orduan, diktadura izan arren Largo Caballero zegoen lan ministrati, eta komite paritarien bitartez, UGT izan zen Espainia mailan gelditu zen sindikatu bakarra. Esperientzia hura ondo atera zitzaizen eta berriz egin nahi dute.

Gure ertziz, ugazaberiak erosi du UGT, honen ordez sindikatu bakarra bilaka dadin.

LAB: Argi dago UGT burjeseriaren jokan jausi dela eta, CEOE-UGT ituna bide horretan joan dela. Bestetik hori, PSOEk UGT-ri egindako inposaketa bat dugu, bere politika aurrera ateratzeko.

Gobernuak eta CEOE-k bitarteko bat behar zuten eta hori UGT izan da momentu honetan.

Horrela, sindikatuen elkartasuna apurru, ezberdindu eta banatu nahi dute. Baina aurrerantzean beste problema bat izango dugu, joko horretan jausten dena ez delako UGT bakarrik izango. Hemendik aurrera problema nagusia ez da izango zer negoziata, nork negoziata baizik. Eta beldur gara PCE eta bere sindikatua, CC.OO, ez ote diren bide horretara joango. PCE-ren presioa, azaroaren 14ean jendea Madrilerara eramateko, Gobernuari beraiek ere indarra ba daukatela erakusteko zen, eta negoziatzeko mahaietan derrigorrez jarrita egon behar zutela.

SU: UGT sindikalgintza burokratikoaren agintan ari da. Eta nahiz eta Langilearen Estatutua txarra dela jakin, ba dauka bestalde zenbait ordain. Akordio marko direlakoetan argi ikusten denez, jabego sindikalari buruz, CEOE

CSUT: Euskadi mailan Negozia Kolektiborako eskubidea izan dezakegu, Langilearen Estatutuaren edukia bat ere aldatu gabe, hori, garbi azaltzeko, Madrilen negoziata daitekeena Euskadin negoziatzeko litzateke.

Lan Harremanetarako Barrutia deitzen dena, Euskadik berak Langilearen Estatutua eta legeak egiteko eskubidea da eta, guretzat, lehen mailako inportantzia du honek, geure moduan, Euskadi naziotzat hartzen baldin badugu.

LAB: Konforme gatoz, CSUTekoak esan duenaz. Negozia Kolektiborako barrutiaz, negoziaketak Madrilen eta goitik behera bakarrik egiten badira, hori Madriletik Euskal Herria, Galiziarra edo Kataluniarra eramate hutsa litzateke. Guk nahi duguna, Lan Harremanetarako barrutia da, bertoko langileria-erentzako lege bereziak egiteko eskubidea, hulegia. Autonomia hortik hasten da eta beste guztia ez da gezurra baizik.

ELA: Nik gauza bat bakarrik esango dut. Nik gaur entzun dut lehenengoz "Negozia Kolektiborako barrutia" delako hori. Ba dakit zer esan gura duen, baina guk ez dugu hori sekulan erabili.

Garbi dago 81. artikulua zer esan nahi duen, eta ezin esan daiteke, gu hori bakarrik lortzera goazenik. Estatutu hau sortu baino Lehenagotik guk planteiatua dugu guztiz premiazkoa zaigula Lan Harremanetarako barrutia, Euskal Herrian Espainian gertatzen ez diren baldintza berezi batzuek agertzen direlako.

CSUT: Xeheago esanda, honek guretzat zera esan nahi du, Euskadiko langileria berdindu zaiola Madrileko edo Euskadiko kapitalak esplotatzeko, eta hemengo langileria Euskadiko kapitalismoaren aurkako lege bereziak, berak egin behar dituela.

A: Hona etorri zaretan sindikatu ordezkarien eritzi guztiak, ezkorrak dira Langilearen Etutuari buruz, atzerapena delako eta langileen eskuak lotu eta nagusienak libre uzten dituelako. Beste sindikatu inportante bat, UGT, deitua izan arren etorri ez dena, Langilearen Estatutuaren alde dago hala ere. Zer deituzue zuok sindikalgintza moeta horri?

prest dago beraiei ondo lezozkiekeen neurriak hartzeko, hauteskunde sindikaletaz berdin eta sekzio sindikalak UGT-ri uzten zaizkio, etab.

CC.OO: Lehen Estatutuaz esan dudana errepikatuko dut, UGT-ren jokabidea negatiboa izan da guztiz. UGT-CEOE-ren artean izan dituzten akordio markoetarako gu ere deitu gintuzten, baina tranpa bat zela ikusi genuen; lehenengo Estatutua sindikatuen artean negoziatu behar zelako eta gero horrekin, CEOE, ugazaberia, alderdi eta edonorengana joan.

Gero jazo denak arrazoia eman digu, UGT-k esaten zuen negoziatu behar zela eta ez aurrez aurreko aerasoak prestatu. Guk ugazaberiarekin inoiz ere ezin negoziata daitekeela esaten genien, baldin eta aurretik gure indarrak batu barik, eta akordio batera ailegatu barik badauzkagu.

UGT-ek agitazio sindikal hutsa egiten genuela salatu digu, grebak eta mobilizaketak bakarrik egiten genituela, eta gaur daukaguna orduko egoeraren ondorio hutsa da. Lehendabizi beharrezkoa da sindikatu guztien artean negoziatzeko.

CSUT: Akordio marko horik itun sozialaren bidean doaz. Hitzek ez dute balio, azkenean firmatzen dena baizik. Bestetik sindikatu guztiak elkarrekin egon behar dugula esaten denean, guk CC.OO-ek zentral minoritarioak beti alde batera uzten gaitela ikusten dugu. Honetaz, bada, hitzek eta jokaerak ez dute elkarren arteko zerikusirik.

LAB: Erantzun labur bat CC.OO-k esan duenari. Nik ere ikusten dut sindikatu guztiak elkartu beharra negoziaketak egiteko. Lehenengo esango nioke CC.OO-eko lagunari ea zein filosofia duen sindikatu bakoitzak negoziaketak erabiltzeko, ez baita kasualitate hutsa, LAB Bizkaiko siderometalurgikako mahaitik kanpora bota dutela, ELAK eta CC.OO-ek hori firmatu dutelarik.

Ba dira CC.OO-en deklarapenak egin behar dugun sindikatu handiari buruz, ugazaberiaren aurrean indar handiagoa izateko; ni ez nator horretaz ados, sindikatu minoritario edo iraultzaileak sindikalgintzari aberastasun handia erantzen diotela uste dudalako, eta denontzako lekua egon behar da mahaietan.

USO: Gauza batean konforme nago CC.OO-ekin, alternatiba guk egindako testu unitarioa litzateke. Hori bat litzateke. Baina hori ez bada, gure burruka, gure alternatiba konbenioetan izango dugu. Orduan, aldatu egingo dugu nahi duguna edo ahal duguna.

CC.OO: LAB-i erantzuteko, pasatu egin baikara gai konkretu batetik beste batera, filosofia sindikalarenera, eta ez konbenioetan bakarrik ekingiza sindikal guztietan baizik.

Guk argi daukagu, batasun sindikal Espainian hiru sindikatu nagusien elkartasunetik pasatzen dela. Konforme nago, sindikatu minoritarioek aberastasun bat eskaintzen dutela esaten denean, baina batasuna ez da pasatzen sindikatu tiki hauen indartzetik, alderantziz, berak dira beren ekingiza sindikala nagusienarengana eron behar dituztenak.

Langilearen Estatutua oinarritzako lege bat da, eta horretantxe behar zen sindikatu guztien partaidetasuna, ez da konbenio bat, ez greba bat, ez ekingiza bat. Estatutuak ekingiza eskatzen zuen. Gero, hau nola artikulatuko zen, zer jazoiko zen..., aurretik behintzat ez zegoen gure aldetik inor baztertzeko ideiatik. Gero, ezin izan da hau guztia aurrera erorari, baina horixe zen gure intenzioa.

A: Azaroaren 27an, honetaz egin zen greban, sindikatuak bloke bitan banaturik agertu ziren. Azal dezaizkigukezue laburki, deitu zenutenok eta ez zenutenok jarrera bat edo beste hartzeko izan zenituzten motiboak.

CSUT: Estatutuaren negoziaketak nola zihozten ikusita, behar beharrezkoa zen Euskadi eta Estatuko langileriaren burruka, hori atzera botatzeko.

Hile bi lehenagotik, sindikatu minoritariook, edo iraultzaileak, guretzat, majoritarietara deika ibili gintzaizkien, eta hauek ez zuten inondik ere nahi izan denok elkarrekin burruka batera joatea. Horregatik batasunezko burruka aipatzen dutenean, hor zerbait izkutatzen dela uste dut.

Gure eritzian, 27ko greba orokorraz, Euskadin argi eta garbi azaldu dena zera da, ba dela hemen langileriaren zati bat iraultzailea dena, belauna makurtu nahi ez duena, eta Abenduaren 7ko geldiketa orokorra, posible izan bazen, 27koari eskerrak izan zen.

Argi gelditu da langileriaren aurrean, zentral erreformisten asmoak oso bestelakoak zirela. Argi agertu da euskal langileria iraultzaile horrek jarraipena behar duela, eta kapitalaren kontra burrukatzeko tresna baten eske ari dela garraizika. Tresna hau, langileak antolatzeko klase sindikatu nazionala da, eta horretan erresponzabilitaterik handiena LAB-eko lagunei doakie. Gu prest gaude bide horretan joateko, hori baita euskal langileria iraultzailearen itxaropen bakarra.

SU: 27ko greba ez zen izan astebeteko lanaren helburua, ekainetik zetorren lanaren ondorioa baizik. Greba hartarako konpromisua, Gasteizko ordezkariei batzarretik irten zen, eta beste zentral batzuk grebarako deirik egin ez bazuten, hori deitu ez genielako ez zen izan, eta gero 27an lan handia egin zuten greba atera ez zedin.

27koa oso inportantea izan zen eta 7koa haren jarraipena bezala ikusten dugu. Greba harekin kolpe gogorra eman zitzaion Langilearen Estatutuari, eta aurrera jarraitu beharra dago, Estatutua hilda sor dadin.

LAB: Problema aintzinatik dator, gogoratzen baduzue, azaroaren 14an kontzentrapen bat zegoen Madrilin; eta hori baino lehenago zenbait bilera egin genuen, CC.OO, ELA, CSUT, SU eta guztiok. Azken batean, protagonismo problema zegoen, zeren CC.OO-k argi eta garbi esan baitzigen, kontzentrapen hura, Madrildo gobernuaren aurrean, bere indarra erakusteko zela.

27koaz oso baloraketa positiboa egiten dugu. Estatutuaren arazoa apur batean bazterturik zegoen protagonismo problema horik zirela eta, greba hartaz lehen mailara pasatzea lortu zen. Dударik barik, 27koak posible egin zuen 7koa aurrera ateratzea.

Orduan UGT-k esan zigun, grebara denok joatekotan etorriko zirela, baina 27koa sindikatu minoritarioren zerbait baizik ez zela. Hori gezurra zen, zeren esan den moduan, guk sindikatu majoritario guztiei egin baikeenien deia, eta inor ez zen agertu.

7ko grebaz, UGT guztiz apartaturik gelditu zen. 27koa, filosofia sindikal gogor bat duten sindikatuek eroin zuten, filosofia gogorra, bai negoziaketarako eta bai Estatutuaren ikuspegiarekin. 27koan ziren indar guztiak 7an ere agertzen dira ere, baina arloan desberdindurik gelditu ziren.

CC.OO: Besteek egin duten moduan. Azaroaren 14ean Estatu mailan, CC.OO-ek deitu edo protagonizatu kontzentrapenez hasiko naiz. Ordurako, ikusten zen Langilearen Arazoaz gauzak ez zihozazela ondo. UGT-ren planteiamendu ezkutuekin ez gentozen bat, gero uda pasaturik, UGT-CEOE-ren akordio markoena gertatu zen eta, batera topatu genituen Langilearen Estatutua eta Gobernuaren Plan Ekonomikoa. Arazo biak bat egin genituen eta hortik dator gure protagonismoaren arazo hori. Eztabaidagarria izan arren, gure ustez protagonismo hori gure eskubide bat dela pentsatzen dugu, problema besteak errespetatzea litzateke.

Estatutua eta Gobernuaren plan ekonomikoa, Espainia osoko langile klaseari afektatzen dioten arazoak izanik, Madrileratu batu behar ginen denok, bertan baitago botere ekonomikoa.

Gero, guk ere ez genuen pentsatzen gauzak hain gaizki joango zirenik, kanpaina bat eratu beharra ikusi genuen, eta horretarako azaroaren 29a aukeratu genuen. Egun inportantea izan zen hori, Madrilin, Kataluñan eta Andaluziako zenbait tokitan. Euskadin in genuen esperientziak, ez genituen gauzak argi. Udazkenean, UGT eta batez ere, ELAren hitzegin genuen, gehien bat ELAk 81. Artikuluaz zituen problemak ezagututa. Asmoa, gure kontzepzio sindikalaren arauera, majoritariak batzea zen.

Errealitate bat da 27aren bezperan batzar bat egiten dela eta handik iritelen da grebarako deia; orduan guk 29rako deia kendu egin genuen. Batzar hura egin ez bazen, guk 29koa erango genukeen aurrera. Gero, ELAk eta UGT-k planteiamendu hori egin zutenean, onartu egin genuen hilaren 7koa.

Guretzat, hilaren 27ko greba irakaspen bat izan zen, sindikalgingintza eta grebak nola ez diren egin behar jakiteko.

Gezurra da guretzat, 27koaz 7koa prestatu dela esatea, eta azken mementuan ELA eta CC.OO-ekiko batasunik eman ez balitz, 27ko eragina guztiz negatiboa izango zatekeen 7rako. Politikaz gehiegirik ulertzen ez duen langile arruntarentzat, nahaste hori kaltegarria zen kontzientzia indartzeko.

LAB: CC.OO-ek ez du ikusten Lan Harremanetarako Barrutiaren arazoa, eta ofizialki ez dute horretaz ezer esan. Nik eritzi argiago bat eskatuko nieke.

CC.OO: Bai, behin Gemikako Estatutua firmaturik, gure Kontseilu Federal edo Exekutiboak dokumentu bat egin du, Autonomi Estatututik sortzen den Lan Harremanetarako barrutiaz. Hori nola ulertzen den beste problema bat da. Guretzat, Estatua merkatu komun bat da, eta guk harremanak izango ditugu Estatu mailan. Kondizio horrekin elaboretatu dugu Lan Harremanetarako barrutia, baina beti Espainiako merkatu komun hori kontutan hartuta.

LAB: Niretzat behintzat, argi dago honetaz CC.OO-ek ez duela praktikan erabiliko Lan Harremanetarako barrutia. Akordio markoei buruz, CC.OO-ek ba du jarrera argia puntu batzuri buruz, beste batzuri buruz hain argi ez badago ere.

ELA-STV-ek Estatutuaren 81. artikulua aldatuz gero, onartu egingo luke, eta antzera esan liteke CC.OO-ek.

Guretzat, Estatutu honek ez du balio, eta ezin liteke horretaz konponketarik egin. Horregatik CC.OO-ek behin eta betiko esan behar liguke, zenbait puntu aldatuz gero, ontzat hartuko luketela.

SU: Garbi dago kontzepzio desberdinak daudela, baina burruka aurrera eraman behar dugu eta beraz, akordioetara iristerik ba dago eta ahalegina egingo dugu, CC.OO eta ELAren hori lortzeko, dena den praktikak erakutsiko du hitzen ondorioa.

CSUT: Guk esperientziak ez ditugu ateratzen Parlamentutiko berriketaldietatik, langileriaren aurrean hartzen diren jokabideetatik baizik. Alderdi horretatik, garbi ikusi ahal izan dugu, 27an langileriaren zati bat gogor atera zela grebara. Zati horrek izan behar du trena aurrera bultzatzen duen motore bezala, hori izango baita erreformismoaren azpian dauden langileei tira egingo diena.

Behar beharrezkoa ikusten dugu Gasteizko batzarrea bultzatu genuen sindikatuek euskal langileriaren klasu sindikatu bat osatzea.

J. LL.



EUSKARAREN ARAZOA IKASTOLETAN (II)

Beste ikastoletako euskararen egoera.

Aurreko artikuluan nionez, Ondarroako Zubi Zahar ikastolako haurrek iraganezko formak egiteko orain aldikoez baliatzen ziren 7 edo 8 urte arte behintzat, baita N-NK eta N-NI-NK aditzak ere nahastu egiten zituzten, N-NI-NIK-koak erabiltzen zituztelarik bai beronen eremuan eta bai N-NK-en eremuan ere ia bete-betean, berau, eguneroko hizketa bizian gehien entzuten baita. Bestalde, ikastolako beste haur nagusiak ere bi aditz forma hauek erabat nahasten zituztela (eta gaur ere nahasten dituzte, zoritxarrez) nioen. Eta guzti honen zergatiak, informazio masa egoki eta intentsibo bat eta ematean ikusten nuen, ez baitzeuden ezelako euskarazko programa eta metodologiari ikastolan.

Kezkati nengoen egoeraz, eta Ondarroako haurren euskararen egoera jakinik, beste euskal giroko ikastoletako egoera ezagutu nahi nuen, ea beste horrenbeste gertatzen ote zen. Horretarako, haurren mailaren berri jakin dezadan, Gipuzkoako euskal giroko lau ikastolarik inportanteenetarikoetan (Azpeitia, Elgoibar, Zarautz eta Ordizia) aukera eman zidaten bertarako zuzendari eta irakasleek. Ikastola bakoitzeko 3.4 eta 5. mailetako haurrik argienak hartuz, era bitako azterketa egin nien. Batetik idatzia, SAIOKA 2-tik ateratako berba arruntez osaturiko zerrenda bat jarri nien, esaldi bat egin dezatela eskatuz, baita berauen sinonimo edo eta erdarazko ordaina ere. Bestetik, eta ez haur guztiei, ahozko hizketaren azterketa egin nien batez ere aditzaren funtsezko egiturak, hala nola, indikatiboa, potentziala eta abar nola zerabiltzaten jakin nezan.

Bestalde, beste zenbait euskal giroko ikastoletako haurren euskara mintzatua- ren ezagupide zuzena egiteko aukera

Bestalde, beste zenbait euskal giroko ikastoletako haurren euskara mintzatua- ren ezagupide zuzena egiteko aukera eduki dut. Gainera, eman ditudan euskararen metodologiaren ikastaro batzu direla eta, irakasleen bidez ikastoletako egoeraren nondik norakoaren berri zehatzago ere jaso dut. Nik uste, esan dudanez, batez ere euskal giroko ikastoletako berri badaukadala luze eta zabal hitz egin dezadan hortaz.

Erdal giroko edo eta euskal giro kaskarreko ikastoletako euskararen egoera askotaz okerrago da, noski. Ez ditut euskaldun-euskaldun herrisketako egoeraren datu zehatzik baina hauetariko batzutan behintzat, eskola-kontzentzazioa dela eta, erabat nahastatu da euskara



gazteengan. Beronek, haur euskaldun-euskaldunak, haur erdaldunekin eta euskara kaskarreko haur euskaldunekin nahastubaitute dakizkugun ondorio kaltegarriak dakarzkien, hizkuntza mailan behintzat, euskara jarorrezko haurrei.

Herriska hauetako euskaldun kopurua, gainera, txikia da herri handiekiko. Eta ez dute eragin handiegirik kaletarron ahozko hizketan, euskararen etorkizuna kaletarron gain dagoela denok dakigularik. Horrexegatik hain zuzen, ez naiz gehiegi kezkatu herri txikietako euskararen maila ezagutzen.

ERRESULTATUAK

1) Ahozkotikoak

Haurrei egin nien ahozko azterketan, batez ere ikusi nuena zera izan zen, izugarriko beherakada egin dutela nagusiekiko.

Batetik, telebista dela eta, normala izan litekeen arren, bestetik dagoen tartea handiegia da, nik uste.

Haurrek ez dira gauza N-NK eta N-NI-NK bereizteko orain aldian bertan, eta zer esanik ere ez iraganean, normalean

inork ere ez baitarabiltza N-NK edo forma gehienak, hala nola, zintudan, ninduzun, etabar edo eta berauen ordainak euskalkietan. Eta okerrago dena, toki askotan lehen aldiko formarik ez dira erabiltzen, berauen orde orain aldikoez baliatzen direlarik. Diodana, ez da haur mailan bakarrik, ez, gazte mailan ere bai, 10 urtetik 20 urtera bitartekoetan.

Gutxi ez balitz ere, askok, transitibointransitiboen arteko diferentzia ere ez dute bereizten (nik etorri naiz, etabar).

Potentzialetan ere kristoren triskantzak egiten dira, LEIKET, LEIKEZU edo LEZAKET eta abar esanez, edo eta AHAL bidez eginez.

Ez dira, NAITEKE, NINTEKE, ZAITEZKE, DEZAKET, ZENEZAKE, DIEZAIOKET, ZENIEZAIOSKE edo hauen ordainak euskalkietan eta abar, entzuten. Baldintzetan ere beste horrenbeste gertatzen da, eta are gehiago perpauso konposatuetan, askotan, adibide gisan, kausaletako "lako", "-eta", erlatibozko -n etabar ez baitira entzun ere egiten toki askotan. Eta berriro gogoratu nahi dut jaiotzatiko haur euskaldunengan ikusitakoaz ari naizela.

2) Idatzizkotikoak

Hasieran nionez, SAIOKA-tiko oinarriko hitzen azterketa bat egin nien 3, 4 eta 5. mailetako, haur argierei. Eta nik uste, ez dira ondo atera, askok, "gainerrako", "soilik", "batipat", "premia", "arazo", "nonbait", "bare", "behintzat" eta honelako hainbat berba ez baitzuten ezagutzen.

Bestalde, aipaturiko egiturazko akatsez eta beste sinpleago batzuek gain, oro har zera ikusi nuen, haurrek, mintzatzen ziren bezala idazten zutela, hala nola, "gutxio" (gutxiago), "leno" (lehenago), "geldik" (geldirik) eta abar. Baita "hotsa-hotsa", "soro-zoro" eta abar ere arazotsu gertatzen zitzaizkien. Beste berba batzuren esanahia ere, hala nola, hautsi, eraitsi, garesti, moeta, eritzi eta abarrena nahasgarria gertatzen zitzaizkien, batetik, beste era batez zerabiltzatelako ahoz, "galesti", "hausi", "iritzi" eta abar bezala, eta bestetik, hitz batzu, "eretzi-intzi", "mo(e)ta" eta abar, era bitara edo agertzen direlako liburuetan, sekulako nahasmendua sortuz haurrengan. Eta horretaz badu egitekotik Euskaltzaindiak.

Haurren ahozkamena etxetikoaren isladura da. Hezigabea. Eta hau zuzentzekotan eskolaurrean, beste gauza gehienak bezala, egin beharko litzateke, aurreirakurketan errebortxatuz, ahotsen eta berauen zeinuen arteko erlazioa adierazten zaielarik haurrei. Bigarren puntu



honetan esandakoak garrantzia daukan arren, nik uste, ez dagoela lehen puntutakoaz konparatzerik.

Arrazoiak'

Arrazoiak bilatzean, nik uste, nagusia zera dela, erdarazko irakaskuntza-modu bera aplikatu dugula eta aplikatzen ari garela oraindik, zoritxarrez. Baina kontutan hartu barik hizkuntza dela irakaskuntzaren kanalizatzailea, eta berau, gizarteko arlo guztietatik (telebista, irratia, administrazio eta abar) jasotzen duten bitartean haur erdaldunek, euskaldunek ostera, ez dute ezer onik komunikabideetatik jasotzen euskararekiko kaltea baizik.

Horrela, aurreko artikuluan nionez, haurren euskararen jasoketaren zatirik baiziena irakasle bidez egin behar litzateke. Eta kontutan eduki behar da haurren hizkuntz-etxea 7 edo 8 urterarteko bitartean egiten dela, eta ez adin horretararte, ezta 1. aro osoan ere ez dut inongo ikastolan euskara lantzeko ezelako ezelako programaketa eta metodologiarik ikusi. Haurrek, beraz, informazio masa urri bat jaso dute belarriz, zeren eta denok dakigu gaien bidez, irakurketa eta idazketa direla, ez dela, egiturei dagokienez behintzat, aho-hizketaren maila gehiegi jasotzen. Bestalde irakasleon euskarazko aho-hizketa urria ikusirik, informazio masa bera ere, askotan, desa-


goki eman zaie haurrei, eredu kaskarrak baikara, eta gure euskal gizarte honetan inor izan behar bada eredu irakasleok izan behar genuke, hortaz profesionalak garenez gero. Gure artean, gainera, perinor izan behar bada eredu irakasleok izan behar genuke, hortaz profesionalak garenez gero. Gure artean, gainera, permisibismoa dago modan, batez ere eskolaurrean, eta askok zera uste dute, haurrek, berekiko ikasi eta landuko dutela, kanpotiko hizkuntzazko informazio masa egokia -irakasleok eman behar genukeena- jaso barik. Bai, honela edo uste da, zoritxarrez, eta gaur egun, ezin daitekeela haurrik gauza bat ikastera derrigortu edo behartu, izorratuko delako ustea zabal baita gure artean. Eta, nik uste, inoiz eta inon behartu behar bada haurra, bere izakera errespetatuaz, noski, eskolaurrean dela, eta ez hizkuntza arloan soilik. Beste ahalmenak lantzeko ere garai hoberena da edo eta ia bakarra, beharbada. Muskuluak bezalakoak dira ahalmenak. Batetik, desarroilatu egin behar dira, eta bestetik, hortarako dagoen garairik hoberena probetxatu behar da. Garai honetan haurren ahalmen guztiak ez lantzean datza, nik uste, eskola-porrotaren arrazoetariko bat, nagusia ez bada. Eta, euskaldunon kasuan, hizkuntz-ahalmena lantzean dago Euskal Herriaren etorkizuna, eta hondamendira eraman nahi ez badugu hasi gaitezen haurren sarreratik bertatik hiz-

kuntza lantzen, ia-ia 2 hizkuntza bat baltz bezala, etxetiko alde onak errebor-txatuz eta txarrak zuzenduz. Ez gaude txantxetan ibiltzeko, eta ikastoletan eta gizartean bertan dagoen egoera ez da baikor izateko. Salbaiden nagusia euskal telebista bat edukitzea izango litzateke, baina erdaraz bezalakoak izango dela pentsatzea ameskeria dateke oraingoz behintzat. Gainera, telebista ala ez, ikastola gauza izan behar luke berez, orain arte ez bezala, "egiturak" ikasertzeko haurrei, nahiz eta gero, gizartearen mar-txa dela eta erderara jo lezaketen haurrek. Irakasleok, orain arte behintzat, ez gara gauza izan "egiturak" ikasertzeko haurrei, guk ere ez baititugu, zoritxar-rez, gehiegi menperatzen. Gure euskal irakaskuntzaren porrot nagusia, nik uste, hain zuzen, irakasleon prestaketa egoki ezean datza. Bizitzako edozein ar-lotan bezala helburu batzu behar dira, eta guk irakaskuntzan eta batez ere es-kolaurrean, preminazko delarik, ez daki-gu zer lortu behar dugun urtez urte eus-kara mailan, ezta nola lortu ere, ez bai-tago esan dudan bezala ezelako progra-maketarik eta metodologiarik. Horrek, edozein pertsona desanimatzen du luza-rora, eta gehiago haurren euskara maila igo beharrean, haurra desarroilatu ahala jaisten eta trakesten ikusten dugunean.

Eta honela gaude, oraingoz. (Jarrat-zeko).

Mitxel Kalzakorta

ANDEREÑO EZEZAGUN BATI GUTUN IREKIA



(Euskal Fonetikatik Eusko Kontseiluraino)

Andrea,

Zurekin hitz egiteko asmoa neukan aspaldian baina zoritxarrez, astirik ezean, nahiko lanpeturik ibiltzen gara denok, beti gerorako uzten dugu. Honetan librerik nagoenez, nire haurraren notak ikusteak gogorarazi dit zurekin karta bidez harremanetan jartzea.

Egia esateko, ni ez naiz, Euskarari buruz, neure haurraren atzerapenetaz ezertan ere harritzen. Azken hau absolutuki kontsideratzen bada behintzat. Konparaketak eginez gero, orduan bai, orduan guztiz harritzen naiz, harritzen bainau etxekoekin euskaraz eta ez besterik egiten duen haur baten atzerapenak. Zeren seguraski zera esan nahi du azken horrek: Beste horiek, euskara ikastolan ikasi dutenok, ezaguera hobia eduki dezaketela erlatiboki eta benetan honek kezkatzen nau.

Ez da nire asmoa karta honen bidez zure balioztapenak dudatan ipintzea edo eta eztabaidatan sartzea. Ez, ni ez noa horretara.

Galdera bat edo batzu jarriko nizkizuke ea nondik letorkiokeen haurrari atzerapen hori jakiteko asmoa. Ez al da harriztekoa bere ama-hizkuntza ez den horiekin baino atzeratuago izan eta ezagupen guttiago eduzkatea? Orain dela urte-

bete eskas, Ikastola bereko notetan haurrak euskaraz —oso ongi— ekartzen zuen. Orduan bost urte zituen. Eta galdeztzen diogu geure buruari nondik ote dator kion, bada atzerapena.

Nolabait Argitzeko pasadizo batzu kondatu nahi nizkizuke.

Askotan, lagunartean biltzen garela, ikastola ezberdinetako adin bereko haurrak batzeko ahalbidea izan dugu. Egoera horretan, ipuinak eta kondaketak eragiten dizkiegu. Bost urte eta sei urtetako haur erdaldudunek (ama-hizkuntza euskara ez dutenak) 25% baino guttiago ulertzen dute; aspertzen direnez, bilera abandonatu egiten dute beren jolasketa bereziei jarraituz. Euskaldunak aldiz, su eta gar segitzen diote kondaketa guztiari. Azkenez, gustatu egin bazaie, galderak eta guzti prestatzen dituzte. Ordurako zer esanik ez, euskal-erdaldunak alde eginda daude aspaldidanik.

Hegoaldeko Euskal Herrietan, ikastolako haur euskaldunak bertako hizkera ulertzeko gai dira, fonetikaren aldetik nahiko berdintsuak izaten dira eta. Ikastoletako haur euskal —erdaldunak ez dute batere ulertzen. Haien fonetika guztiz erdalduna da. Hau guztiau ez da Bizkaian bakarrik gertatzen. Iruñako ikastolako irunseme erdal-euskaldunak ez dute baserriarren hizkuntzatik laurdena ere ulertzen. Ikas-

toletako bizkaitar euskaldunak aldiz, den-dena ulertzen ez badute hariari darraizkio erraztasunez.

Zoritxarrez ikastola askotan euskal fonetika zer den ez da ezagutzen. Barka nazazu ene ausardia honengatik baina esan beharrean nengoen Bizkaitar, Gipuzkoar zein Nafar fonetika ezberdin horiek elkar-puntu asko eta soinu berezia dute. Horregatik ere, hizkuntza bat eta bakarra osatzen dute.

Èta orain, andere agurgarria, lehen galdera doakizu: Ez al du honek, fonetika eta soinu lege berezi hauek, euskaldunen atzerapena handitu eta zabaldu?

ERRUDUNEN BILA

Andereñoak errudunak direla ez dut uste inork pentsatu duenik.

Erruduna erraz topatzen da sudurra leihotikan kanpoan ateratzean. Hor dago gure erruduna. Giroa. Hiri handi eta ez hain ttiki guztietako giro erdalduna. Horrek murgiltzen gaitu alde guztietatik. Cure haur guztiak beraz, giro horretako fruituak dira. Ama-hizkuntza erdara izanez gero ez dago ezer traumatikorik, ez dago hauskera gogorrik. Hizkuntza berri bat ikasten ari dira, frantsesa edo ingelesa ikasten den modura. Bilboko Alemandar, frantses edo eta ingeles ikastetxetako haurren fonetika entzun al duzu inoiz? Oso erraza da. Sinplea. Ia-ia espainol bezalakoa. Frantsesez bada, ez dute —e— ahozkatzean, diferentzia nabarmenik egingo. Hala ere, ikastetxe horietako fonetika gurearekin konparatuz gero, askoz hobia izaten da hizkuntza garatu bat, fixoa, berdindua ikasten. Konparaketa nahiko kaskarra geratzen zaigu. Hala ere, fonetikaren horietan gertatzen bada, zer ez da, bada, gertatuko ikastoletan?



Lehenago egunean aldizkari honen bidez Ondarroako haurren problematika irakurri ahal izan nuen. Oso artikulua ona, esperientziak osatua. Han, 4tik sei urterainoko haurren hizkuntzaren bilakuntza aztertu egiten zen, haurrak hiru multzo ezberdinetan sailkatuz; hots, haur amazuloak, haur bakartiak eta haur lagunkoiak, azkenean. Dena den, lehenago edo geroago, zailtasunez edo erraztasunez, denak azkenez, eskura ditzakete nolabait aditz formak, Ondarroa bitartean, erdalduntzen ez bada behintzat. Horrela pentsatzen dut nik, nahiz eta horretarako frogak esperimental askorik ez eduki.

Zer gertatzen da bitartean hiri handietako haur euskaldunekin?.

Erraza baina lasgarria. Telebistarik gabe, ikastoletan zinema berezi eta egokirik gabe, hizkuntza erreferentziarik gabe, euskara galdu eta pobretu egiten da etengabeki. Hiri handietan gertatzen dena guztiz aldrebeskoa da, bai aditzetan, bai hiztegiaren eta bai sintaxian.

Begira eredu hauek:
LAU URTEKIN

(Hiztegiaren)

Sakatu atea.
Moztuko "nazu" besoa.
Zapatilak jantzi
Zapaldu
Arin joan
Tentela
(eta abar)

(Sei urterekin)
Enpuja atea
Kortako "nazu" brazoa
Zapatilak ipini
Pisatu
Korridu
Estupido
(eta abar)



ADITZETAN
(Lau urterekin)

Gustatzen yatzu
Ez yake gustatzen
Gustatzen yatzuz
Gauzak ekarri dituz
Gauzak ekarri dabez
Atzo joan nintzen

Poxpoloak eroango dodaz
eta abar

SINTAXIAN

(Lau urterekin)
Futboleak egingo dugu
Etorri den gizona zera esan "nau"
Harrapatuko zaitut baietz!

Pailazoena egingo al dugu?
Ama, bihar motxila ikastolara
eraman behar dot... Andereñok esan
"nau"
Ba al dago gizonik hemen?

(Sei urterekin)

Gustaten dautzu
Ez dira gustatzen
Gustaten yatzu
Gauzak ekarri dituz

Gauzak ekarri dabe
Atzo joan naiz

Poxpoloak eroango dot
eta abar
(Sei urterekin)

Jolastuko dugu futbolera
(J- Gipuzkoan bezala)
Gizona etorri dela esan "nau"
zera.

A que arrapatzen dautzut
Pailazora jolasten dugu?
Ama, behar dot eraman ikastolara
motxila... andereño esan nau.

Dago gizonak hemen?
(eta abar)

Eredu guzti hauekin garbi ikusten dena ondokoa da: Sei urtetako haur euskaldunen hizkuntza ez dela jadanik euskara. Erdarak hartu die lehenasuna, bai fonetikaz bai sintaxiaz. Txarrena, ikastolak ez die honetan ezertaz lagundu ez baita egiten diferentziarik euskal edo eta erdal harrarekin.

Bilbo handiko ikastola guztietan erdal fonetika dela oinarri eta bide, erdal haurrek pixkanaka euskara edo halako zerbait ikasten ari diren bitartean, euskal haurrek beren ama-hizkuntza galtzen dute, beren fonetika eta joskerak galduz doazen bitartean. Salbuespenik? Egongo da. Nik ezin diezazuket esan non eta nola.

Baina hau guztiau hizkuntzari doakion arazoa dugu. Pentsatu al da zer nolako kalte egiten zaion haur hauen garapen mentalari eta psikologikoari? Gurasoek astirik izanez gero, lagun diezaiekete gizarajo hauei. Baina astirik ezean zer gertatzen zaie? Objektiboki, zeren izenean ez da bereizketarik ikastoletan-egiten batzu eta besteen artean? Medio falta, diru falta? Agian horrelako zerbait izanen da.

ETA ZER ÉGIN DEZAKEGU

Alde batetik bi bide posible ditugu. Euskararen asuntua guzti hau bertan behera utzi betirako, edo ahalbide batzu prestatu. Bai anderea, kontsekuenteak izan gaitezen beraz, ala bide hori hartu edo ahalbidetan saiatu.

Ahalbideak saiatu nahi baditugu, zera inposatzen da. Lehenengo eta behin ipuinak, kondaketak eta istoriak denbora askoz gehiago eduki behar dute gure zentruetan. Eskenifikapen eta agerketak ugaritu behar dira. Gutariko askok lagun diezazuekegu erretolika askoz positiboagoak izango ginatete hor bertan. Politiko eta frustrantean baino.

Baina hau guztiau borondatea eta behin behineko soluziobidetzat jo behar dugu, horrela estruktura sakonik egiten ez baita. Dudarik gabe, niretzat behintzat, Eusko kontseilu Nagusiaren babesean ikastolen finantziaketa ipintzea dateke soluziobide logiko bat. Nahi duzuen salbuespen klausula eta kontu guztiekin. BAINA EGIN BEHAR DA betiko egoera eskizofreniko honetan sagitu nahi ez badugu. Ikastolek finantzar laguntza behar dute eta begira andereño, nik neure aldetik euskaradunen egoera edo desegoera hau ikusita, deabru berari eskatuko nioke laguntza. Zertarako sozialismoa, independentzia, hizkuntza nazionala, eguneroko praktikan, gero eta hiltzerago kondenturik bargaude?

Euskaradunen buruketarik garrantzi tsuenak ondokoak baitira.

IKASTOLA DOHAINA gure poltsikoetatik atera nahi ditugun diruak euskararen alde jartzeko, hots, zinemak, teatroa etab. Eta bigarrenez, EUSKAL TELEBISTA katea lortzea. Horiek gabe, hortaz burukatzen ez bada zehatz eta konkretuki, izan gaitzen mesedez kontsekuenteak eta utz diezagun euskararen asuntua. Guk nagusiok gure etorkizunarekin jokatu dugu baina era berean indarrak falta egiten zaizkit ene haurren etorkizunarekin berdind jokatzeko. Barka nazazu nire ausardia dela eta.

Tomas Trifol

Oharra: Karta hau ez zaio zuzentzen inongo andereñori konkretuki. Beraz, egilearen semeen andereñoek ez dute zerikusirik hau guzti honetan. Artikulua idazteko egokia zela "karta baten bidez" egitea iruditu zaio egileari.

EUSKALTZAINDIA ZERTAN?

Aurtengo ikasturtea hasita dago jadanik Euskal Herriko leku guztietan: bai ikastoletan, bai eskola estataletan, eta institutuetan eta profesional hezkuntzako zentruetan ere bai.

Egia esan, iskanbila haundiak izan dira hasi aurretik, eta arazo asko zirela medio, ia ia estatu osoan; eta hemen, bereziki, Gipuzkoan eta Bizkaian. Azkenean hezkuntz eta zientzi ministeritzak amore eman behar izan du eta behinik behin ihaz beste (hau eskoletan) maisu-andereñok izan du posturik. Baina ni ez naiz hortaz mintzatuko, euskararen arazoari buruz baizik.

Denok dakigu euskara nola dagoen gaur egun: euskal irakasleak urri-urriak, plangintza on eta zehatz baten falta, euskal metodo egokiak ez ditugu (honekin ez dut esan gura ikasbide egokirik ez dugunik, ezen oso onak baitauzkagu, baina ez ditugu maila eta behar guztietarako), irakasleen pedagogi hezkuntza arras eskasa...

Nahiz eta autonomi estatutuak eskaintzen dizkigun ahalbideak zer edo zertarako baliagarri izan, eta horri buruz euskara birpizten arduratzen den anitz jende esana duen arren, nire ustez begi bistan dago estatutu horrek ez dizkigula ematen euskarak beharrezkotzat dauzkan irtete-giltzak. Praxian dena ikusten da garbiago.

Aurtengo ikasturtean ezin genezakeen gehiegitxo itxaron, oster, gehiagoxe baietz deritzot. Zeren eta eskoletan dauden euskal irakasleek (ez denok baina bai gehienek) negar egiteko nahia sorterazten baitidate.

1978.eko Irailaren 5ean Euskaltzaindiaren VIII. biltzarra ospatu zen Bergaran, eta, Andoni Sagarnaren hitzaldi bat izan zela karia, elkarrizketa sutsu bat sortu zen.

Andoni Sagarnak alfabetatze-euskalduntze irakasleei buruzko inkesta bat egin zuen, baina Euskaltzaindiko —D— titulua zeukatenak hartzen zituen kontutan bakarrik. Eztabaida sortua: Euskaltzaindia ez zela nor bera bakarrik titulua emateko, hori faxismoa zela eta ez zela, Hizkuntz Eskolarenak, Deriokoak eta abarrenak baliokoak direla ere...

Horri buruz Villasanteren hitz batzu transkribatuko ditut oso interesgarri baiteritzet: "Gure akademia ez da frantsesa edo espainola bezalakoa, egoera ere ez da berdina; guk ez dugu "Ministerio de Educación" eta horrelako gauzarik. Ezer ez daukagu. Zerbait egin behar zen. Eta Euskal Herriak, lau Diputazioen izenean, Euskaltzaindiari eman zion kargu hori. Beraz, berak dauka, eta beste inork ez dauka. Eta beste inor, egoera normal bat datorrenean, maila hortan badago edo, Euskaltzaindiak utziko ditu gauza



hoiek. Baina bitartean, berari dagozkio. Hau garbi dago, eta nahi duenarentzat, arautegian daude, eta ez oraingoan, baizik 1918.ekoan. Beraz, gu arautegiaren barruan ari gara gauza hoiek egiten ditugunean. Eta gero, hasten bada bakoitza emanten titulua berari gogoak ematen diolako eta Euskaltzaindiari kasu egin gabe, Babelko Dorrea sortuko dugu eta besterik ez. Hori bistan dago. Batasun batean egin behar dira gauzak. Euskaltzaindiaren normatiba onartzen badute bai, bestela nola hasiko gara bakoitzari gogoak emanten dionean titulua emateko bakarrik? Nahaspila sortzeko? Hortik ez goaz inora". (Villasante, Luis: Euskera-XXIV) Oso argi dago, Euskaltzaindiak du —eta ez beste inork— euskal irakasle titulua emateko eskubidea. Eta zer gertatu da aurten orduan? Zer dira Eusko Kontseilu Nagusiko titulua? Egoera "normal" hori etorri al zaigu eta Eusko Kontseilu Nagusiak hartu ditu Euskaltzaindiaren betebeharrak? Ene irudiko ez, Bergarako biltzarrean bezalaxe gaude egun, euskararen irakasleak ez dira egun batetik bestera sortu.

Baina aurten, eskoletan euskal irakasle izateko lehen-lehenik magistergo titulua eskatu da eta gero Eusko Kontseilu Nagusiko "TITULUTXOA" (horixe baita, eta hori konprobatu ahal izan dut) "edo eta" Euskaltzaindikoa. Nahiz eta magistergo titulua ez ukan, lizentziatuek nahiz

magistergoa edo beste karrera bat egiten ari direnek izan dute euskara irakasleko posibilitatea ere. Noski, Eusko Kontseilu Nagusiko edo Euskaltzaindiko titulua (nahiz Derioko edo Hizkuntz eskolarena edo...) ukanez gero.

Jende gutxi izan delarik, azterketa bat ezarri da, gero beste bat; ez dakit zenbat izan dira euskal irakasle karguak betetzeko; ez dut hemen aipatuko. Euskaltzaindia, uste dut, jakitun egongo da Eusko Kontseilu Nagusiko titulua eskuratzeko zer eskatu izan den. Nik, bederen, ba dakit. Ba dut horrelako tituludun lagun asko eta haiek beraiek kontatzen didate hori zer den... Eta horri buruz, protesta bat edo beste entzun dut, baina oso-oso gutxi. Euskaltzaindikorik tutik ez. Mutu geratu da.

Nik zera jakin nahi nuke: euskarazko klaseak (hobe esateko, "euskal kultura") emateko: fisikari, ekonomilari, filosofo, maisu izan behar da ala euskararen eta euskal kulturaren (historia, literatura...) irakasle? Nortzuk eman digute eta ematen dute frantsesa, ingelesa eta abar? HIZKUNTZA HORIEN BERORIEN IRAKASLEEK.

Orduan zer gertatzen da? Euskaltzaindiko tituluek ez duten baliorik horien jabea denak euskara irakats dezan? Ez badute, zergatik denbora galdu horiek prestatzen? Gauza inportante asko dago egitear.

Xabier Mendiguren arduratu izan da hizkuntza modernoek finkaturik dituzten irakaskuntz mailen edukiak aztertzeko; eta Euskaltzaindiko "Irakaslego Batzordea"-k eginiko lanak ez dira nolana hikoak. (Ikus Mendiguren, Xabier: Irakaslego Batzordea: orain arteko urratsak. Euskera-XXIII (2.aldia).

Baina hori guztiori hutsaren hurrena besterik ez da izanen, aplikatzen ez bada.

Ni eskola "nazional"-etaz ari izan naiz batez ere, baina institutuetan eta Progesional Hezkuntzako zentruetan antzekoa da problema.

Honelatan euskarak ez du zer egiterik irakaskuntzan. Ez da bakarrik kargu batzu betetzea. EUSKARAK IRAKASLE ONGI PRESTATUAK BEHAR DITU.


Honela autonomi estatutuak ematen dizkigun ahalbideak eta ahuntzaren gauerdiko ez tula gauza bera dira. Ala estatutu berorrek da egoera horren arruduna, gure hegaldia galeratzen diguna?

Nik ez dakit, baina Euskaltzaindiak zer edo zertxo esan beharko lukeela uste dut. Ezin ostrukarena egin.

Datorren urtean egoera bereberean aurkituko geure burua ala ikusi ahal izango dugu, benetan, egiaz, euskara irakaskuntzan indarrez euskalduntze-mailu?

Karlos Santisteban

ITXAROPEN BERRIAK



Durangotik heldu zaigu oraingoan berri ona. EHEak sortu dira. Eta ezin poztu baino hain urri izaten diren hori lakoxe albiste bat entzutean, nahiz eta erdaldunek gehiengoa osatzen duten Euskal Herriko eskualdeetan jaio egin eta bizi garenok, beti, halako beldur bat ukan, gure arteko euskaltzale sutsuren batek, erdaldunen eskubideak ez errespetatzeagatik, herrak eta gorrotoak sortuko ote dituzkeen. Horik, ordea, demokraziaz eta zentzu komunaz gaindi daitezke eta EHE horiek, agian, Miangolarraren "Gero"n proposatzen zen jokamodu-legeria bezalako bat osa lezakete eta beraren arauera beren ekintzak aurrera atera.

Eta itxaropen berriak esan ditut, ez naizelako pertsonaz baizik fidatzen, ez naiz fidatzen Herri Batasunaz, ez naiz fidatzen Euskadiko Ezkerraz, ez naiz fidatzen P. N. V. ez, ez eta abertzale ez diren alderdiez. Eta ez naiz fidatzen, Jaundone Tomas bezala, ikusi arte, esate baterako, hain interesgarri den Mugaren bigarren zenbakia irakurrita, aipatzen duten ateratzear bide daukaten euskal aldizkariak, eta kasu konkretu honetan ez

naiz fidatzen, horko batzuk euskararik ez dakitelako, eta dakitenen artean batek bakarrik, Koldo Mitxelena alegia, idatzi duelako euskaraz bere obra literariarik gehiena. Beraz, inortaz fidatzen ez naizelako, ez naiz fidatzen ere Eugenio Ibarzabalez, hain erdara apain eta periodistikoz beraren liburu guztiak erdaraz atera dituen, eta Aurtiz zenetik euskaraz ezer irakurri ez diodanaz. Eta aldizkari hori ateratzekotan seguru gaude, tartean dabilen jendearengatik, ez dela makala izanen.

Baina natorren harira. Fidakaiztasun hori dela bide, proposamendu bat egin gura diet EHE berriei, kanpotik ibilita ezin bainaiz haien kide bilakatu, eta proposamendu hau egin gura dut azken erreferendumean baiezkota eman nuelako, nik ere uste baitut gaitz eta elbarri, ez bada hil, aterako litzatekeela gure hizkuntza beste diktadura baten hatzaparretatik. Guzti horregatik, beraz, baiezkota horregatik eta alderdietan inongo itxaropenik ez dudalako, "Euskararen defentsa" izeneko hiru pertsonatako kandidatura bat osatzea proposatzen dut, hautagai bat herrialde

bakoitzeko, hau da, bata Arabako, bestea Bizkaiko eta Gipuzkoako azkena. Hautagaiak euskaltzale ezagunak izan beharko lukete, eta ahal bada, bakoitza alderdi batekoa edo eta alderdi baten ingurukoa. Partido Nacionalistakoa, Euskadiko Ezkerrekoa eta Herri Batasunekoak, modu horetaz inolako arazorik sortuko ez bultzateke. Kandidatura hori hiriburuetan aurkez liteke, modu horretan ere alderdiei ahal den kalterik gutien egiteko. Eta zertako, lehen Euskal Biltzarrea izanen den horretan lege berri asko eztabaidatuko direlako, eta guk gutiengo bat osatzen dugun euskaldunok geure burua zaindu behar dugulako. Hona hemen, bada, zenbait legeprojektoren zerrenda, hiru euskaltzale ezagun Biltzarrean euskaraz bakarrik egiten egoteaz gain, halako ondorio on batzu ekarriko litzuketenak:

1. Euskara Euskal Biltzarrearen lehen hizkuntza ofiziala izateko legeproiektua, eta beraz, lege horren atal bezala, edozein euskal hiritarrek Gobernuko lehendakaria eta beraren ministroak euskaraz entzun eta erantzuna izateko eskubidearen defentsa.

2. Euskararen lehenitasunerako legeproiektua edozein bulego gobernutiarretan, h. d., lege-arazoak sortzekotan euskal testuaren interpretazioak, Euskaltzaindia izanez azken erabakitzaile linguistikoa, aduki behar duen lehenitasuna. Proiektu honen barruan, legeriarekin zerikusia duen guztiak sartu beharko luke, esate baterako, edozein euskaldunek euskaraz epaitua izateko duen eskubidea, eta era berean sententzia euskaraz entzuteko duen eskubidearen defentsa.

3. Unibertsitatelegea, bertan euskal ikasleen eskubideak argi eta garbi markatzen direlarik, h. d.; euskaraz ikasteko, nahiz eta ikasketen arauera epe batzu mugatu beharko diren, duen eskubidea.

4. Eskolalegea, bertan euskal eskuldeen eskola eta ikastolen euskalduntasuna finkatzen dela, eta orobat urratsez urrats eskualde elebidun eta erdaldunetakoak.

5. Euskal argitarazioen defentsarako legea, bertan euskal aldizkariak zerbait laguntza proposatzen dela, eta horren arauera zeredozer euskaraz argitaratzen duten beste aldizkariak, eman dezagun, Anaitasuna eta Zeruko Argiari 100 % badagokie, eta 75 % Goiz Argiri, 15 % Ere-ri eta 3-4'5 %. Punto y Hora-ri. Gauza bera egunkariekin eta argitaletxeekin egin beharko litzateke.

Eta hamaika horrela, astiro eta legegizonekin ondo pentsa eta zehaz daitezkeenak. Ea, bada, inor ausartzen den.

Andolin Eguzkitza

KARRANTZA: "PA



Karrantzako Pozalagua-ko haitzulo ederrak.

Abenduan, eta Gabonak direlarik kausa, oporralditxo bat izaten du jendeak eta gehienek beren egunoroko "lotegi"tik ihes egin nahi dute, aire garbiak batetan behinik behin arnasartzeko edo.

Asko eta asko Euskal Herritik kanpora joaten da skiatzera eta elurrak zurituriko gailurrak ikustera, eta sosik ez dutenek etxean egon behar...

Ni ez nago PNV-ren "veranea en Euzkadi" erdal sloganaren alde, baina halarik ere, egun horietan lasaitasuna eta edertasuna gura dutenentzat "paradisu" batez mintzatuko naiz.

"Muebles..., carretera a Carranza...", ez duzue entzun inoiz zinemageletan eta irratiaz esaldi propagandistiko hori? Bizkaitarrok zihur baietz.

Askori entzuna diot Karrantzaz hitz egitean: "Karrantzarrak..., horiek maketoak

dituk". Eta ni holakoetan haserreak arras hartuta nago, mindurik baina... hori ez jakintasunaren fruitua da; eta nor da gure jakintasun ezaren erruduna?.

Nork ez ditu ikasi Espainia sakratuaren probintziak, hibaiak, mendiak...?

Nahiz eta medeak izan Enkarterrietan euskara galdu genuela, frankismoak iltzerik luzeena eta urragarriena giltzatu digu (eta hori euskaldun nahiz "euskaragabedun" guztioi). Batez ere irakaskuntzaz eta "mass mediez" isladaturik.

Karrantza, Lanestosa, Turtzioz..., non daude horiek?

- Burgosen ala Santanderraldean?

Ba ez, Bizkaian daude. Hori ondo daki

Ba ez, Bizkaian daude. Hori ondo daki historiari. Ongixe daki Koltixa mendiak. Eta oso ongi dakigu karrantzarrok. Eta ez

naiz hasiko "Karrantza Euskadi da"-ka, Nafarroako kasuan bezala, zeren eta ezegokia baiteritzot.

Karrantza Bizkaiko lurralderik zabalena da eta baita aberatsenatariko bat ere, —azken hitz hori inoiz ez egokiagoa, printzipalki ganadutzatik bizi baita— 46 bat hauzotegik (zail da hauzotegi bat zer den erabakitzea) osatzen dute harana —harana dugu eta— eta guztiz sakabanatuta egonez gero, horixe daukagu geure arazorik handiena (ene iduriko), barreiapena.

Horrek arlo guztietan laburtzen dizkigu bideak, batetan ezik, edertasun-bidean. Suposa ditzakezue Karrantzako arazoak umetxoak eskolatzeko...

Duela urte batzu ar e batzilergoa egin ahal izateko instituto bat genuen, eta karrantzarrak ezik kanpotarrak etortzen zirenen ere (gehienak Santander-koak);

"RADISU HURBILA"



Duela urte batzu arte batxilergoa egin ahal izateko instituto bat genuen, eta karrantzarrak ezik kanpotarrak etortzen ziren ere (gehienak Santander-koak); zenbait hauzotegitan "eskola nazional" delakoak zeudelarik. Aldiz, eta karrantzarrok ondo ezagun alkate baten esku onaren bidez, institutoaren edifizioak "eskol kontzentrapena" egiteko erabiliak izan ziren eta horrekin batera batxilergoa desagertu.

Jendea hemen gera dadin neurriak hartu beharrean, kanporarazi... Honelatan segituz gero baserriak oro hutsik geratuko dira.

Euskara ikasteko nahia handia izan arren, sakabanakuntza horrek berorrek oztopo eskergak sorterazten ditu, komunikapena galerazten du.

Ostera, eta lapsus hortik aparte, ez bainago orain horretaz solastatzeko, lasaitasuna nahi duenarentzat, guztiz aproposa de sakabanakuntza horrek eskaintzen duen karantza, itxurakera.

Denak landa berde-hezeak, oraindik pa-goak eta haritzak nagusi, behiak edonon bazkatzen, mendiak ibarra hertsiz, karaitzeko sustraia barnean... Eta milaka arazo ahaztu beharko ditut (zaila) ikuspegi horri neure burua lotzeko. Hortik hasi naiz eta.

Egun lasai-patxadatsu batzu pasatu nahi dituen, betor hona! Etorriak beti itzultzen dira eta... euskaldunok (edo bas-kook) elkarrekin komunikatu beharra dugu.

Bilbotik 54 kilometrotara, ez hain urrun (Laredo, Reinosa eta abarrak baino hurbilago) eta, aldiz, mundu ilun-beltz-kutsatu eta desgizatutik urruti-urrutian. Zer dago ikustekorik? Hainbat gauza zein baino ederrago! Ostera, esan dezadan labur-labur ikusi beharrezko zer edo zer: Pozalagua-ko haitzuloak, estalaktita eta estalagmitakoak, arras ederrak (gela batetan estalaktitak, grabitate-indarraren kontra, makurtu egiten dira eta gorantz itzuli); Venta Laperra-ko haitzuloak (Barandiaranek eta Aranzadik aztertuak), Santimamiñekoak baino zaharragoak; munduko lurpeko zulorik haundiena, hemen "Torca del Carlista" izenaz ezagutua; aintzina burjeskumeek erabiltzen zituzten "Los Baños"-eko urberoak...

Baina hori osotasun baten zati bat baizik ez da, karrantzako lurrinak dastatzeko osotasun hori ikusi behar da, karrantzan egon eta haren mendi ugarien tontorretatik begira...

A!, batzuren batzu euskaraz mintzatuko zaizkizue...

Karlos Santisteban

Euskaldun gehienek ez dute Enkarterrien eskualde hau ezagutzen, ez eta bizkaitar askok ere.



46 hauzategik osatzen dute harana

SANTURTZIRAKO TRENA

Rinnngggg! RENFE? Santurtzirako trenean bonba bat ipini dugula esateko deitzen zaituztet.

Harritzekoa litzateke, hau, egun batetan, ez gertatzea. Honelako abisu bat iragaten dutenean RENFEkoek zerbitzua gera erazten dute eta kito! Hori egiteaz dirua irabazten dutela dirudi. Eta, azken batez, nork jasan behar? Langileok!


Egunero tren hartu beharrean aurkitzen direnak. Kasu askotan, tren hortan ibiltzen direnek aste guztirako pasea hartzen dute eta, pasearekin baina trenik gabe geldi

tu behar. Pase horiek ez erabili arren ez diete beste aste batetarako baliorik ematen eta gutiago (nola daiteke?) dirurik itzultzen.

Eta gauzak honela direla, zera ikusten dugu: RENFE-rentzat egundainoko negozioa dela bonben arazoa; zeren, azkenean, lanik egin gabe eta zerbitzurik eman gabe, dirua jasotzen baitute.

Bestalde, ez da zaila, autobusaren zain daudela, katarro edo pulmonia bat harrapatzea. Autobusak hartzeko egiten diren iladekin...

Ez dago honetarako eskubiderik!!! RENFEk ere ba ditu bere autobusak. Zergatik ez ditu behar diren guztiak bidaltzen, nolabait trenaren arazoa zuzentzeko?



SHA ETA MEXIKO

Azken informazioek diotenez, Mexikoko gobernuak ez du Sha bere lurraldeetan nahi izan. Aurreko egunetan, Mexikoko bandera bere gain zuelarik, hegazkin bat Sharen zain zegoela esan arren. Mexikok ez du pertsonaia hau nahi.

Egiptok, alderantziz, hara joateko aukera eskaintzen omen dio; baina, Estatu Batuetako agintariek ez dute nahi Egipto eta beste Estatu musulmanen arteko harremanak izorra daitezen eta, ba dirudi, Californiako lekuren batetan lekua utzi diotela.

Hala ere, Sha eta bere emaztea ospitale militar batetan erdi preso dituztela diote.


Carterri asilo politikoa emanen zaien galdetu diotenean, horretaz ezin duela erantzunik eman esanez izkutatu da.

Denok ezagutzen ditugu Shak egindako heriotza eta lapurretak. Munduko gizonik aberatsena omen da. (Nire ustez, lapurrik handiena).

Baina, nola ez!, dirudunak (ez du ardura herriari kendutakoa bada ere) oso ondo konpontzen dira beraien artean. Ezetz aurkitu hau baino adibide argiagorik!!!

Kennedy jaunak ere honetaz zerbait esan du eta, itxuraz, Sharen aurka dago.

BIXER



"NAFARROAREN ORDU NAGUSIAK" NAVARRISTEK EGINA

"Nafarroaren ordu nagusiak" disko berri bat da. Bertan, Nafarroaren historia narratzen da. Erreina sortu zenetik hasiz, 1512 garren urtean bukatzen da, hau da, Nafarroak independentzia galdu zuen urtea.

Disko hau (eta kasettea ere bai) Nafarroako Aurrezki Kutxak finantziazten du eta OPUS-en Unibertsitateko bi irakaslek prestatu dute testu historikoa. Materiale honekin, Enrique Llovet teatrogileak eta garrantzi handia izan du Adolfo Marsillach-ek.

Diskoaren aurkezpenean Jaime Ignacio del Burgo egon zen, eta uste dudanez, navarrista honen dedikatoria bat darama diskoak.

Berriz ere, dirua beraiek baitute, navarristak aurreratu dira Nafarroaren aurpegi partziala jendeari erakusteko.

Eta gu hemen, izorratuta gu hemen! Alde guztietatik izaorratuak Nafarroako euskaldunak: bai Vascongadasetatik, bai navarristengandik.



LERDO DE TEJADA FATXAREN ANAIA OVNI-rekin

Prentsak esan duenez, Valenciako zeruan zebilen hegazkin bati OVNI bat agertu zitzaion. Hegazkineko bidaianteak turistak ziren, eta komandantea Lerdo de Tejada zen.


Lerdo de Tejada komandanteak OVNI hori ikusi zueanean, lurreratzeko baimena eskatu zuen aireportura, eta horrela egin zuen.

Baina asuntu honetan gauza ilun asko dago. Batzuk diotenez, fantasmada besterik ez da izan komandante honen egintza.

Interesgarri da jakitea, Lerdo de Tejada, hegazkineko komandantea, "Atochako hilketa"n parte hartu zuen beste Lerdo de Tejada-ren anaia dela.

Badaezpada ere, prentsak Valenciako gertakizuna kontatzean ez zuen jartzen deitura osoa, hau da, "Lerdo de Tejada", "Komandante Tejada" baizik.

Espainiako prentsa beti erdi-gezurak esaten... edo gauzak ezkututzen.



"EHUN BAKARRIK HIL ZITUEN BOKASSAK"

"Larehun pertsona inozente hil zituela nire senarrak, Bokassak? Hori gezurra da. Gehienez, ehun pertsona hil izan zituen".

Hori adierazi du Catherine Bokassak, anperadore ohiaren emazteak.

Gutxi ziren. Gainera, Frantziako presidenteak, Giscard jaunak, erregalu ederrak hartu zituen honengandik. Batez ere diamanteak.

O-la-la! Frantziako presidentearen demokrazi lagunak!
Iñaki Zabaleta




LEGE ANTITERRORISTA LUZATUA.

Abenduaren 8an bukatzen da lege antiterroristaren iraupena. Lege hau ihaz, abenduaren 4an onartu zuten urte batetarako. Baina, ba dirudi, ministruen kontseiluak, lege hau beste urte batez luzatzeko lege bat onartuko duela, onartzen, ez bada epe horretan, hiritarren segurtasunari buruzko lege organikoa.

Hori bakarrik gelditzen zitzaigun. Orain, aurkakoa frogatu arte, terroristak bagara, pentsa ezazue zer kontsideratuko gaituzten hori onartu ondoren.

Ene ustez, beste lege hori ere (hiritarren segurtasunari buruzkoa) bestea bezain "ona" izan daitekeela guretzat. Ez dugu, orain artekoak defendatzen dituen interesak kontutan hartu besterik. Ez dakit, bigarren mailako hiritarrek ez ote garen (batez ere euskaldunak pentsatu ala ez. Egoerak behintzat, horretara bultzatzen nau.

Zer deritzozue?



TELEBISTA: KOKOA GARBITZEKO TRESNARIK EGOKIENA

Bai, jaun-andreok. Telebista, diodan bezala, kokoa (burua) garbitzeko tresnarik egoki eta hoberena da. Eta, izugarriko diru multzoa gastatzen du gobernuak horretarako programa egokien prestakuntzan.

- Haurrentzat egiten diren programak beren nortasuna mugatu eta konformismorantz bultzatzeko besterik ez dira.

- Nagusientzat egindakoak, konformismo hori mantentzeko.

- Eta iragarkiak, gizarte kontsumista honen gurgpilean sartuz, moda eta eskaintzen diren gauzen arabera bizi gaitezen prestatzen dituzte.

Honela jokatzuz hauxe lortzen dute:

Hau dela eta, langileria, planteiamendu eta bizitza burjesean sartu eta honen morroi bihurtu.


Eta frogatzen bezala, hor doazkizue adibide batzu:

Bi gaztek, ezkontzen direnean, bizitokia erostearen beharra sentitzen dute Honelako zapatak saltzen direla... Telebistan ikusi dituztenez, erosi beharra dago. Nola ez, modan baitaude!

Haurren jostailuak aurkeztean beraiei komeni zaizkienak bakarrik ikusten ditugu (fusilak, tankeak..., eta abar). Inoiz ere ez dituzte heziketarako baliotsuak direnak aurkezten. Eta horrela gauza guztietan. Telebista, jendearen nortasuna lantzeko erabili beharren, bortxatuz, nahi dituzten edo interesatzen zaizkien pausoak eman ditzagun erabiltzen dute.

Noiz erabiliko ote dute herriaren interesen alde eta honen berezitasunak lantzeko? Gure egoera konkretuan adibidez, euskara finkatu eta eguneroko bizitzan sartzeko?

Seguraski, herriak, iraultza egin arte ez dugu honelako rik ikusiko.




DIPUTAZIOKOAK EUSKARA IKASTEN

Jakin dudanez, Bizkaiko Diputazioan ere euskara ikasiko dute. Eta, irakasleak bilatzerakoan, Euskaltzaindiari eskatu beharrean, Euskerazaintza edo Labairukoei eskatu dizkiete. Hemen, argi eta garbi ikusten da Euskaltzaindia ez dela, euskara mailan, erabakiak hartzeko gai den erakunde bakarra eta ofiziala. Bestela, irakasle horiek, Euskalduntze Alfabetatze Koordinakundetik irtendakoak izango lirateke. Bizkaiera ikasiko dute, noski. Ni ez nago bizkaieraren aurka (bizkaitarra naiz) ez eta gutiago ere!; baina, lehen pauso bezala batua eta ondoren bakoitza aurkitzen deneko lekuan erabiltzen den euskalkia ikasi beharko litzatekeela uste dut.

Estatutuari eskerrak, euskara batuaren aurkakoek, baitaia bat irabazi dute. Galdetu al diete ikasleei (diputazioako langileei) ea hori den ikasi nahi dutena? Seguraski, ez!

Ezin dezaket onar honelako jarrera bat, euskararen aurkako delarik iruditzen baitzait. Lehen zatiturik bagaude, arazo hau handitzeko ahaleginak egiten ari direla dirudi:

Noiz arte!



GONBARATZEN

Gonbarazioak gorrotagarriak direla diote; baina, zenbait arazo aztertzeko, beharrezko bezala jotzen ditut, batez ere bizi dugun egoera honetan. Oraingo honetan, FOPEkoen egintza miresgarriak ikusi eta gonbaratzeko adibide batzu ipiniko ditugu:

Denbora luze pasatu da Gladys hil zuten egunetik; baina, honelako gertaerak ia egunero ematen direnez, ez da zaila honetaz gogoratzea.

Abenduaren 2an, tortura, atxilotze eta errepresioaren aurkako manifestazio bat antolatu zuten. Ba... ordua heldu baino nahiko lehen, Bilbo poliziak harturik zegoen. Ondorio bezala, barrikadak, gomazko pilotak, lasterketak eta abar... Berdintsu esan daiteke Donostian gertaturikoaz. Eta agerbide bezala aski dela uste dut.

Beste era batetako egintzak ere aipatuko ditugu:

Blas Piñarren mitinera zihoazen batzuk, bost pertsona zauritu zuten Tafallan. Horretarako denetariko gauzak edo tresnak erabili zituzten: labainak, kateak..., Gero kristalak hautsiz herritik paseiatu ziren. Alkateak Goardia Zibilak deitu zituen baina, ordu bat geroago agertu ziren. Ordurako, jaialdia amaitutako zerbait zen.

Jarritako adibideak aski adierazgarriak direla uste dut eta ez dut gehiagorik aipatuko.

Ondorioak, bakoitzak atera bitza.



ANASAZI




"Hain axolagabe dauden harlauzek eguzki-egutegi zehatzena ezkutatzen dute".



"Chaco Canyon-New Mexico-n dagoen Fajada Butte. Egun ez da inor bizi bertan. Lehen Anasazien Kulturaren zentru bat zen".

NAZIOARTEKO



"Egutegiaren funtzionamendua erraza da: eguzkiak urtaroretan eta egunean zehar dituen posizio desberdinak probetxatzen dira".



INDIOEN KULTURA


Historiaren harian Kultura desberdin asko egon da. Batzuren, oso gutxiren, berri, Irakaskuntzaren bidez dakigu. Besteren berri—eta batzutan gure Kultura propioaren berri—oso gutxi dakigu, mespreziatuak edo baztertuak izan direlako.. Horrelako zerbait gertatzen da Anasazi indioen Kulturarekin—indio hauk Navajo edo Navaho izenez ezagutuak izan dira—. Indio hauen kultura basatitzat eduki da, konkistadore espainolen edo amerikanoen arauera. Orain jakin dakigurarekin, galdera hau da: nortzu dira basatiak?

ANASAZIEN LURRA

Gaur egunean Amerikako Estatu Batuetako Estatu diren Arizona, New Mexico, Utah eta Colorado direlakoetan, Pueblo izeneko indioak basamortu-erreserbetan bizi dira. Pueblo indio hauk familiatan eta klanetan banatzen dira, leinua emakumeen bidez pasatzen delarik. Hauk dira Anasazien ondorengoak, Chaco Canyon inguruan Kultura desagertu baten giza-aztarna bakararra. Hala ere, beste aztarna gehiago—eta ugari—geratu dira, eta soilik azken urteetan hasi dira arkeologoak beraien garrantziaz jabetzen.

Kristo ondorengo 800-1200. urteetan, herriak, bideak, ubideak, kiva direlakoak—zeremoni tokiak—ugaldu ziren basamortu den lurralde honetan. Baina orain dela 1000 urte ere lurralde hau basamortua zen. Nola konpontzen ziren basamortukultura bat egiteko? Indioak nekazari trebeak ziren, artoa, indabak, eta beste gauza asko landatzen zituztelarik, urak eta lurrak permititzen zuten—eta duten—tokietan. Ehiztariak ere ba ziren, eta urrun zeuden basoetatik ere janaria, zura eta egurra ateratzen zuten. Horren sakabanatutako taldeek elkarrekin komunikatzeko bideak egin zituzten, batzu hamar metro zabalerakoak—kontutan hartu behar da bideak oinez egiten zituztela—, eta bideen puntu estrategikoetan edo bide-gurutzeetan, herriak egin zituzten, komertzioa errazteko eta kontrolatzeko—hemendik datorkie Pueblo—herri—izen onartua. Batzutan “mesa” izeneko mendien gainean zeuden herri horik: lautada baten erdian zutik daude arroka hutsezko mendiak, western-filmeetan hain ikusiak.

Bide-sareak 30-40 populazio batzen zituen, eta komertzioa ugari izan behar zen, herri batzu mila bizitzatik gora zituztelarik; etxeak, arkitekturaren aldetik, konplikatuak dira. Ura kanalizatua zegoen, eurietako ur exkasa ondoen probetxatzeko eta gero lurra ureztatzeko. Orain, gaur egun, dena basamortua da, kilometroak eta kilometroak egin daitezke giza lanik nabaritu gabe. Baina hautsaren azpian, harrien azpian iragan baten aztarnak zain daude, aurkitu nahi dituenarentzat.



ANASAZIEN EGUTEGIA

Lurra arerio denean ez da erraza komunitate bat mantentzea. Are gehiago, Anasazien Kulturak zeukan oreka hain ezegonkorra izanik, nola manten zitekeen, misterio bat da. Baina horrek ez du esan nahi, Kultura horrek aurrerakuntza handirik egin ez zuenik. Adibide konkretu bat, denbora-neurketaren arazoa da. Komertzioa, merkataritza, eta ura puntu nagusiak direnean, beharrezko da urtaroak ondo neurtzea eta zehaztea. Anasaziek Babiloniarren eta Maien zehaztasuna lortu zuten, nahiz eta nola lortu zuten ez dakigun. Hala ere Stonehenge-ko (Ingalaterran) harriak baino informazio gehiago ematen dute, eta Mexikoko eta Peruko zibilizazioen astronomia pareko zutela ematen du.

Mende honen hasieratik, Chaco Canyon delako tokian dagoen Fajada Butte median, bi erliebe espiral ezagutzen ziren, toki oso berezi batetan, kriskitin-sugeez beteta dagoen toki batetan, hain zuzen. Orain dela bi urtetako Ekainaren eguerdi batetan Anna Sofaer izeneko artista bat, indioen erliebeetaz kezkatua, handik agertu zen, eta erlie-

been aurrean daude hiru harlauzak eguzki-izpi bat sartzen uzten zutela nabaritu zuen, erliebearen gainean joz. Izpia, minutu batzu pasatuta, eguzkiaren higiduraz desagertu zen. Anna Sofaer-ek eguzki-egutegi baten aurrean zegoela suposatu zuen. Harlauzak eta erliebeak neurtuz, eredu bat egin zuen, eta eguzkiaren higidura foko batez errepresentatuz, egutegiak nola markatzen diren ikusi zuten. Zehaztasuna harrigarria da, solstizioak espirale nagusiak ematen ditu, ekinozioak, txikiak, eta izpiak eguzkia altuen dagoenean—eguerdian—agertzen dira.

Kasualitatea? Ez dirudi. Harlauzak, geologo batek frogatu duen bezala, inguruko arroka batetatik daude aterata, eta apropos daude jarriak. Eta ez da edonolako lana, harlauzek 2-3 toneladatarako pisua dutela kontutan hartzen badugu. Zorionez, azken 1000 urteetan egutegiak funtzionatu du, inork aldatu gabe, inork mugitu gabe. Baina posible da edozein momentutan turista axolagabe batek Anasazien zehaztasun astronomiko guztia pikutara bildaltzea. Haatik, sugeek eta klimak turistak uxatu egiten dituzte.

I. Zuazo

Juan Migel Abellanal Salas
 Iñaki Agirre Errazkin
 Maximo Aierbe Mujika
 Bernardo Alzpitarte Arruti
 Juan Carlos Alberdi Martiarena
 Jose Ignacio Albistur Bermudez
 Vicente Aldalur Larrañaga
 Lontxo Alkain Zubiondo
 Eva M^a Alonso
 M^a Asun Alonso

Jose Cruz Eizaguirre Mariscal
 Edurne Elezgarai Andonegi
 Patxi Elkarte
 Iñaki Elorriaga Axpe
 Aitor Elorza
 Emeraldi Mitxelena
 Jose Luis Erdozia Mauleon
 Angel Erdozia Larraz
 Koldo Errasti Urrutia
 Jon Esturo Lotiola

Jose Luis Gomez de San Pedro
 Polentze Gonzalez Bilbao
 Fernando Gonzalez Herrezuelo
 Jose Ramon Gonzalez Martin
 Bittor Guerra Mujika
 Fernando Hierro Chomon
 F. Xabier Huitzi Mendiola
 Jon Emilio Ibarra Ugalde
 Jon Irazusta Gurrutxaga
 Jon Migel Iriondo Gainza

AMNISTIA

Txomin Aituna Imaz
 Iñigo Aranguren Egaña
 Antonio Araujo
 Migel Argiles
 Xabier Arozena Salaberría
 Izaskun Arrazola Mallona
 Julia Arregi Gorrotxategi
 Luis Felipe Arriaga Ibarra
 Iñaki Arrieta Egia
 J. Luis Artola Mendoza
 Mikel Azurmendi Albisu
 Jon Baroja Zenarruzabeitia
 Carmelo Bazo
 Jose M^a Basurto Hoyuelos
 Jose M^a Begiristain Jauregi
 Valentin Beneito
 Pablo Bereziartua Gonzalez
 Xabier Bidarte
 Iñaki Bilbao Gana
 Pedro M^a Bilbao
 Alberto Blurri
 Jose Luis Blanco Corval
 Jose Antonio Blanco Perez
 Xabier Burgoa Bilbao
 Migel Cabodevilla
Toniás Carreras Juarros
 Jose Luis Carrera Fralfe
 Bittor Carreras
 Carlos Catalan
 Felipe Cereceda
 Jose Antonio Cid

Jose Etxaide Iburguren
 Jose Etxeandia Salzedo
 Francisco Xabier Etxebarria
 Jose Manuel Etxebarria Olliden
 Luis Exposito Arza
 Jose Martin Deusto Iturri
 Juanjo Diaz Fernandez
 Elvira Dieguez
 Victorino Dieguez
 Juan Manuel Fernandez Lopategui
 Pablo Fernandez Billabetta
 Jose Flores Arregi
 Julian Galarza Otxoa
 Francisco Galatea
 Juan Jose Gaminde
 Bittor Garai
 Pedro Antonio Garces
 Jesus Roberto Garcia Bajo
 Salustiano Garcia Rivera
 Amancio Garcia Iarritu
 Juan M^a Garmendia Mendiola
 Jose Luis Goenaga
 Emilio Avelino Gomez Gomez


Domingo Irisarri Garcia
 Juan Xabier Irisarri Garcia
 Fernando Isasti Arruti
 Jose M^a Isasti Arruti
 Jon Iturriza
 Xabier Izagirre Agirre
 Cesar Izar de la Fuente
 J. Manuel Jauregi Iturrioz
 Luzio Jauregi Iturrioz
 Jose M^a Lantzeta Zinkunegi
 Xabin Larrea Lekue
 Juan Jose Larrinaga Latrinaga
 Txomin Lasa Astiazaran
 Pedro Lasarte Iparragirre
 Domeka Lasarte Iparragirre

Roberto Ruiz de Arbuló
 Ramon Sagarazu Mendibere
 Jesus M^a Sagasti Zorroza
 Anselmo Salazar Molinuevo
 Luis Ramon Salazar Martinez
 Enrique San Juan Agiriano
 Ignacio Santa Maria
 Ricardo Santa Maria Perez
 Juan Sanchez Moreno
 Mikel Sarasketa Zubiarreartertia
 Eugenio Sein Etxebarria
 Jose M^a Sorazu Seguroloa
 Jesus M^a Sueskun
 Jose Antonio Torre
 Juan Trecet Sastre

Txomin Muiños Formoso
 Patxi Mujika Ezkurra
 Alejandro Muñoz Fernandez
 Marcos Oiarbide Arratibel
 J. Manuel Olaizola Izagirre
 Alberto Olalde
 Juan M^a Olano Olano
 Rafael Olasagasti Sanchez
 F. Xabier Orofino
 Joseba Palmou
 Eugenio Perez Bermejo
 J. Ignacio Pikabea Buruntza
 Maximo Portilla
 Jesus M^a Reparaz
 Fernando Rodriguez
 Juan Ramon Ruiz de Gauna

Jose Manuel Legorreta Etxebarria
 Mikel Lopategi
 Ricardo Loredo Bocanegra
 Antonio Luzena Garcia
 Ramon Mariño Casais
 Anton Markaida Larrañeiti
 Matias Martin Urretxu
 Kiko Martinez Apestegia
 Rosalina Martinez Gorkoetxea
 Juan I. Mentxaka Musutagi
 Luis Mentxaka Longarte
 Juantxu Muiños Formoso

Jose M^a Ugartemendia Agirrezabala
 Eugenio Uliar Huitzi
 Jose M^a Uriarte
 Juan Ramon Urziberea Irastortza
 Santiago Veuga Tobio
 Alejandro Vidal
 J. Antonio Zabala Garmendia
 Mikel Zabala Legarreta
 Martin Zaldúa Oruezabal
 Jose Ignazio Zarraga
 Manuel Ziarra
 Migel Angel Zinkunegi Ordapilleta
 Jokin Zuasti
 Gabriel Zubiaga Ugarte
 F. Xabier Zubigan
 Kike Zurutuza Odrizola
 Ana Zuzuarregi Redondo



MARIKOIA!...

Bai, eskerrik asko.



Euskal Herriko Gay Askapen Mogimenduak bere bigarren biltzarre nazionala ospatu zuen Durangon. Motibo horrekin prentsaurreko bat egin zuten orain ez asko Bilboko liburudenda batean. Anaitasunaren aldetik hara joan ginen gu, asko eztabaidatzen baina ez horregatik konprenitzen den problema hauetaz aritzera. Aipatzekoa da bestaldez delako prentsaurrean Eukal Herriro komunikabide ia guztiek huts egin zutela. Zenbait ezker alderdi bakarririk egon ziren. Hala nola, EMK Rosa Olivares bidali zuen. Horretatik aparte prentsaurreko honek E. E., HASI, PCE, SLMM, auzo elkarteak eta abar bildu zituen. Gero, haiekin biltzeko eta luzaz mintzatzeko abadagunea izan zuen Anaitasunak. Hona hemen elkarrizketa hauen fruitua.

Anaitasuna.- Noiz eta nola jaio zen EHGAM?

EHGAM—1.- Bilboko kafetegia batean jaio zuan. Behin, lagun batzu bildu eta gay kolektibo bat eratzea erabaki ziaten. Ba dakik, Espainian barrenean eratu berri ziren horietako bat. Frankismoren garaian saiatu gintuan halakoren bat eratzea baina orduan errepresioa zela eta ezinezkoa izan zuan. Franco hilda, irekitasun politiko berri hori probetxatu genian. Beno,... irekitasuna... irekitasuna barik, gobernuaren desfaseaz probetxatu gintuan. Gobernu gutaz arduratzea baino, beste gauzetaz interesatuagorik zie-

goan. Sozial eta politik arloa hain zuzen. Hala sortu zituan nolabait gay askapenerako mogimenduak. Orduko denborak latzak, benetan. Biltzeko lekurik ez, eta abar. Hala ere, kordinakunde batzuk aurrera jo ziaten. Bilbon, Barakaldon. Gipuzkoan ere EHGAM taldeek handik sei hilabetera argia ikusi ziaten. Denon funtzionamendua osoa eskasa zuan.

A.- Gipuzkoakoa geroago jaio al zen?

E. 1.- Bai. Donostian gogor ibili esateko, Francis-en erahilketaz geroztik hasia zela funtzionatzen esan diaitekek. Errenteriako erahilketa horrek gogortu zian mogimendua.

A.- Francis-ena aurten izan zen, ez da?

E. 1.- Bai, bazko egunak pasata. Ordurako Bilboko taldeak toki batzu alokatu zitian Iparragirre kalean. Tokia genuenez, abida handian hasi gintuan lanean. Baina proiektu guztiak ez zituan bete. Tokiek ez ziaten egokitasun handirik. Bestaldez, krisialdia etorri zitzaioan mogimenduari. Jendea nolabait nekaturik aurkitzen zuan. Ez genian lan handirik egiten. Diru eza eta estruktura gutti, ba dakik.

A.- Eta zergatik nekatu zen jendea?

E. 1.- Gure bileretan jeneralean, erroilu gehiegi sartzen zuan. Funtzionamendu guz-

tietaz, batzu bakarrik arduraturik zieudean. Gu besteok entzun eta ez besterik. Bestalde, eztabaida edo egiteko guztiak tramite hutsa bihurtu zituan. Jakina, legeztapena, jai programaketa eta abarreko guzti horrek ez zian gay arazoan burrukarekin lotura handirik. Eztabaida ideologikorik ez zuan normalean egoten. Horri buruz, eztabaida luze eta gogor bat atera zuan behin. Handik hona gauzak aldatzen ari dituk. Euskal Herriko mailan estruktura eta bat lortu diagu behinik behin. Ardurak zabaldu egin dizkiagu, denon eskuetan jarritz. Beno, hala ere, zenbait problema aurrean, gay duintasunaren egun' aurrean esaterako, gure erantzuna nahiko ona izan zuan. Esan diadan guzti horrek ez dik esan nahi lan egiten ez genuenik, edo eta arduradun zaharrak errudunak zirenik. Faktore askok sortu zian egoera hau... diru eta medio eza.

A.- Gay duintasunaren aldeko manifestazioarekin pozik al zineten?

E. 2.- Pozik esatea gehiegi da. Losak edo espaloiak bete ziran. Horretatik bada, exito handia. EHGAM-eko pankartaren ondoan ez eban inork ipini nahi. Han danak, sorginkeriaz edo, "laguntzaileak" bihurtu ziran, partidu politikoen pankartetan azpian sartuz. Betiko partiduak... LKI; EMK, EE... Bizkaiako emakumeen asanblada. Hurrengo eguneko jaiak, eraketa-mailaz frakaso itzela izan zan baina jendearen parte hartzea, ona. Kantariak eta bertsolariak egon ziran. Heuren artean Amuriza.

A.- Eta Bilboko jaietan zer moduz?

E. 2.- Han, jende askok gu ezagutzeko interesa eukan. Interesa eta morboa nahasturik. Txosnan egozan militanteak ikusteko, jendea hanka puntetan ibiltzen zan guri begira. Gero, gustu guztietarako txio entzun zeinkez. Batzuk, ez ginela homosexualak; diru gehiago ataratzeko halako izenik ipintzea guri burutu jakun eta antzekoak. Habilenak, EHGAM-eko laguntzaileak ginela eta abar. Ondino jende askok ideia arraroak ditu.

A.- Eta zergatik diozue gay eta homosexualak ez?

E. 2.- Homosexual guztiak gay ez dirala uste dogulako. Ba dago homosexualik bere sexu bizipenagaz konforme ez dagozenak. Ez dagoz konforme gay burrunkagaz; gaixorik dagozela, desbideratuak, inbertituak dirala uste dabe. Beste batzuk baina, kontzientzia mailan beren sexu tendentziari ukatu egiten deutsoe.

E. 1.- Ez. Gauza gehiago izan diaitekeek. Beren sexualitatea onartzen diate baina hala ere ez diate burrukarik egiten eta gizarteak eskeintzen dizkian ghettoz eta baztertasunaz konformatzen dituk. Moeta haue-tariakoek ez diate nahi sexu harreman askatuen alde lan egiterik. Nik zera uste diat, harremanek sexualitatea bideratzen dutela. Gainera, ingurugiroarekin orain arte emandako harremana beste modu batekoa izan behar dela uste duena sartzen duk ere definitio horretan. Tipo batek igual, lau edo bost



lige eduki zezakek astero baina horrek ez dik esan nahi askaturik dagoenik.

A.- Ez al zaitzue iruditzen homosexualen artean EHGAM elite bat osatzen duenik? Zera esan nahi dut: Bai, homosexualak baina EHGAM-ekoa denez eta homosexualak pizti arraroak kontsideraturik daudenez, tartean ere klaseak eta mailak direla...

E. 1.- Ez zekiat ba, maila batzutan ba litekek. Praktikan, klubetara edo ta gay giroa dagoen tokietara jotzen dugunean ez duk hik diostaana gertatzen.

A.- Baina eta arazoz kanpoko jendeak?

E. 1.- Progre batek, ezkertiar batek, EHGAM-ekoak abangoardiazat hartzen gaituk baina zera, kanpoko jendeak gu ezagutzen gaituk gehien batean, beste haiek ez.

A.- Ezkertiarren artean jendeak galdera asko egiten dio bere buruari. Alde batetik, zuen egoera konprenitu nahi dute baina beste aldetik gizartearen problema guztiak sexuren bidez ikusten dituzuela pentsatu egiten dute. Hori egia al da? Zuen ardura guztia sexua eta ea besterik dea?

E. 1.- Ez. Hori ez duk egia. Gertatzen dena zera duk: Gu gaituk gay askapenerako mogimendu bat. Burruka orduan, hor zehar joan behar duk. Baina horregatik gainerako problemak eta gaiak ez dituk baztertzen. EHGAM-eko jende asko partidueta-ko militanteak ditut. Beste asko, sindikatuetan zenbiltzak eta ez duk gutti ere auzo elkarte barruan lan egiten duenak.

Halako erakundetan beste helburu ezberdinekin jokatzeko diate baina noski, EHGAM-en barne direlarik gure arazoetaz arduratzen dituk bakarrik bertan. Gay burruka berez, oso progresista duk, askapena ez baitu emango gizarte kapitalistak edo eta deituriko beste gizarte sozialistak, pertsonaren afektibitatea erreprimitu eta zapaltzen baitute. Hor duk adibidez

Soviet Batasuna. Horrek homosexualak, zapaltzen segitzen dik. Gu, giza afektibitatea askatuko duen gizartearen alde gaudetik eta ba zekiagu azken hori ezinezkoa dela gizarte kontsumatzaile eta zapaltzaile baten barruan.

A.- Hau da, problema zehatz bati buruz batu egiten zarela baina hortik aparte edozein herriar modura jokatzeko duzue. Zeintzu alderditako militanterik duzue?

E. 2.- Hemen gauza bi berezitu behar dira. Alderdikideak lehengoak. Bigarrena, prestatzen deuskuen laguntza gehiena nondik jatorrun. Lehengoari buruz bada, danetari-koa daukazu, EMK; LKI, EE, HB, PC, PTE, PSOE eta PNVko norbaitzu. Bigarrenez gehien laguntzen gaituen partiduak EMK eta LKI dozuz.

A.- Beste burruketatik jende arduradunik al duzue?

E. 2.- Bai, ba dago. Araban eta Gipuzkoan kontzejal batzu. Diputadu foral bat uste dot be bai, auzo elkarteetako presidente, sindikatuen ordezkari, euskal kulturatan jendea, idazleak eta abar. Baina ez pentsa ugari dagoenik. Gehiengoak ala zapaldirik bizi ala beren problemak zelan edo halan konpontzen dabez, ahalegin guztiak egiten horretarako. Ondiño teoriatik praktikara pasatzeko bildur handia dago eta. Hala eta guztiz be, EHGAM-eko gehiengoak, langileok, beharginok, osotzen dogu.

Katalunian ostera, hango mogimenduaren eraketa begiratu, hemen baino elitistagoak intelektualak, lanbide liberalak, irakasleak.

A.- Eta arazo haur buruz, nola aztertzen duzue zuek gaurko euskal gizarte? Beste- ren antzekoa dea?

E. 2.- Bai. Problema hori aztertua izan da biltzarrean. Zergatik lan egiten dogun Euskal Herri mailan eta zergatik esaterako, ez den sartzen gurekin Burgos edo eta Santander.



Duda barik, Estatu bako nazio bat osatzen dogu euskaldunok. Gure herriak berezitasun soziologiko nabariak dauka. Hemen aita-goitar familiak pisu handiago dauka. Euskal herri guztietako egoera soziologiko ez bardi-nek antzeko problemak urten eragiten dauz Euskal Herri osoan. Herrietan... Zornotzan, Durangon, Beasainen ba doguz militanteak baina gatxa jakee diren modura agertzea. Normalean, Bilbora edo Donostiara jotzen dabe. Hiriotan ez da hain gatx alkar topatze-rik. Gaur egunean gay lez agertzea Marki-nan esaterako, trauma bat egiten dau.

E. 2.- Bai. Ba dagoz. Baina dagozenez ez dozuz ja herri txikiak, erdi hiriak dozuz. Barakaldo, Durango, Gernika baina pertsonal mailan horreik guzti Bilbora datoz.

A.- Elkar topatzea ezina dela herri horietan esan nahi duzu?

E. 2.- Ez bakarrik topatzea. Harreman normalak eroatea be, nahiko gatxa izaten da.

A.- Arazotik kanpoko jendeak antzera jokatzan al du zuekin hemen eta Catalunya-n? Honi buruz, ezberdintasunik al dago bi Herriotan?

E. 2.- Bai, ba dagoz. Han ageriago dago. Arazoa kaleratu egin da. Baina horrek ez dau esan nahi herriak asumitu dauenik. Cataluyan ghetto gehiago dago, kontsumo gehiago. Gehiago ikusten da horregaitik. Hemen oster normalago. Gu hemengoagaz geratzen gara.

A.- Zelan duintasunaren eguna eta jaia?

E. 2.- Lehen esan dautzugun lez tekniko aldetik desastrea. Beste gauzetan nahiko ondo. Halan be, jai girotan onartu egiten gaituzte. Ez dozu bardin jaietara pegatina bate-gaz joatea edo eta beharrera.

A.- Egia al da Espainia barneko zenbait nazionalitateko gay mogimenduk marikoia

izena onartua izan duenik?

E. 2.- Bai, Castillan adibidez, ez dabe onartzen gay berba. Anglizismoa dela edo ez dakit nik zer dinoen. Delako berba horren zentzu zehatzaz baliatu nahi izan dabe.

E. 1.- Nik ez diat erdararen berri askorik baina ene ustez hitz hori ez duk oso zuzena, marikoi delakoari esannahi ustela gehitzen baitio. Herriko euskaraz ere marikoa ba zerabilagu eta ez duk bakarrik horretarako, ...kabroia, puta semea eta halakoen esannahia zeukak.

E. 2.- Guk gure artean be, horrelakoak ba dinoguz... "Ixi marikoi hori"... Duda barik herriak beste zentzu bat emoten dautso.

A.- Atera duzuen agerian, amnistia osoa-rena desagertu dela ohartu naiz. Zer dela eta?

E. 1.- Batasunaz oinarritzen den mogimendua gaituk. Batzuk amnistia lortu dela sinistu egiten diate. Errepikatzen dik —sinistu—, ez baitiat esan nahi, ustea. Orduan, zergatik desagertu da? Lortu al da? Batzurenzat bai. Besteontzat ez, duda gabe. Oinarritzko hastapenetan delako hori ateratzeak gure batasuna hautsiko likek, batzu beste batzuren kontra jarriz. Hala ere, zenbait kasutan, atxiloturik daudenekin elkartasuna adierazteko, prentsa ageriak edo beste ekintza moeta antolatzeke libre gaituk. Horrela jokatu diagu aspaldi honetan.

E. 2.- Lengo amnistia edo dena den harekin, oso elkartasun gitxi eduki genduan guk. Partidu politikoa gehieni arriskutasun sozialaren legea eta amnistia politikoa nahasteko gauzarik ez zela iruditu jakeen. Zelan edo halan, arazo biak bereiztu ebezan. Askorentzat elkartasunak onorea kentzen eutsan amnistiari.

E. 1.- Adi... zak... kontuz fotoekin!

A.- Esan nizuen bada, nahi izanez gero, begiak estalita aterako zaituztegu.

E. 2.- Niri ez jat inportik. Anaitasuna irakurten dauen jendeaz fidatzen naiz. "Ola" balitz ez neuskizu bardin esango.

E. 1.- ... Gay mogimendu batek amnistia- ren alde jokatu behar dik baina bere alo- rrean. Amakumeei berdin gertatzen ziaiek. Partiduak askotan ahaztu dituk gauza haue- taz. Ez ezak pentsa guk ere atxiloturik ez daukagunik.

A.- Zer gehiago aldatu da zuen mogimen- duan?

E. 1.- Ez gaituk jadanik homosexualak askatzeko mogimendu bat. Definizio hori kontrazentzua eta peilokeria bat besterik ez zuan. Homosexualitatea askatzeko mogi- mendua gaituk orain. Ikusten duanez nahi- ko ezberdina. Pertsona bat homosexualizat hartzea edo hola izendatzea kartel bat ipin- tzea duk, kartel sexual bat kasu honetan. Sexu ezberdintasunik eta sexu kategoriarik ez dagoela uste diagu.

E. 2.- Beno, bai dagoz. Baina ez litzateke egon behar. Ar edo eme homosexualitateaz jarduteak ez dau suposatzen hetero- sexualitateaz ez aritzea. Homosexualitateaz aritzen denak bardin egin leike heterosexuali- tateaz eta aldrebez be bai. Pertsonok sexudu- nak gara, norberak nahi dauenera eroan lei- ke bere burua.

E. 1.- Beste puntu bar aldatu duk errebin- dikapen programan. Mogimenduari buruz- koa. Fuerza Nueva-ko norbaitek sartu nahi zian EHGAM-en. Biltzarrean jende askok zera esan zian: Edonor sar diaitekek faxis- tak ezik. Baina ez duk oso argi nor den eta nor ez den faxista. Hala ere, ez zian sartu noski, Fuerza Nuevakoek ezin diate gure puntuokin ados egon, puntuotan garbi ikus- ten duk zeinek zapaltzen gaitun, gizarte zapaltzaileak, aitagoitar gizarte matxistak eraturiko egoera politiko eta soziologiko horien kontra burukatzen baitugu: EHGAM-en sartzen dena gainera ez duk sartzen astia emateko edo hobe ligatzeko. Hala ere, guk ez ditiagu pertsonak bazter- tzen. Norbera PNVko edo UCDkoa izan diaitekek, gure puntuok onartzen badizkik behintzat. Halakoek noski, kontra jarrera- tan eroriko dituk baina denborarekin gandi- tuko diate.

E. 2.- Gure eritiziz klaserik bako gizartea lortzen ez den artean ez da egongo inongo askapenik, ez sozial mailan ez sexu mailan ez eta beste mailatan bez.

A.- Hau da, ongi ulertu badut, ez duzue pertsonarik baztertzen, ideologiak batzik, ezta?

E. 2.- Horixe bera. Zapaltzen gaituzten ideologiak baztertu egiten doguz. Ezkerre- koak eta eskumakoak.

A.- Erljio eta etika guztien kontra al zau- dete?

E. 2.- Ez gizona! Norberak nahi dauena pentsa leike... besteok zapaltzen ez baditu. Hemen gertatzen dena zera da, erlijioa ardu- ratu beharko ez dauenetaz sartzen da. Sudu-

rra sartzen dautzu leku guztietatik eta bere hitza dela, Estatu mailan eta politik mailan entzuteko beharra daukazu. Eta oso txarto dago. Heziketan esaterako. Guraso katolikoek erlijioa emon nahi badeutsoe heuren seme alabei, emotea besterik ez dauke baina eleiza barruan, parrokiaren... eskoletan ez.

E. 1.- Estatuaren etika edo moral natural horri buruz, beste kupeleko sagardoa duk. Etika naturalarekin batera datorren botere-tsuen morala duk hori, zeinek askotan etika natural hutsarekin baitator baina beste askotan, sexua izan edo bestea izan, klase zapaltzaileen interesak defendatzen dizkik horrek. EHGAM barne katolikoak ba ditia-gu. Asma dezakeanez ez zettorrek bat eliza-ren dotrinarekin.

E. 2.- Orduan ez dozuz katolikoak...

E. 1.- Hori beraien problema duk... Eus-kal Herrian gizarte edo komunitate katoliko asko daukak. Hor dauzkak Herria 2.000-renak. Horiek, zihur, ez dituk konforme egongo elizaren zenbait manamendurekin.

E. 2.- Halan be, aurrerakuntza egon da eleizan.

A.- Bai?

E. 2.- Bai. Lehentxoago, homosexualitatea ez ei egoan. Orain oster, Osatu behar gaituzten gizonok gara. Gaixorik ei gagoz. Eta hau guztiau aurrerakuntza dozu. Halan be, existitzen bada be, homosexualitatea guztiz txarra da heuren ustez. "Perversa".

E. 1.- Ba ni ez natxeok ados horrekin. Nire ustez hori ez duk pauso ematerik. Hori lelokeria duk; Batasuneko Estatuetera dijoala eta han beharrezkoa denez, homosexualitateari buruz hitzegiten dik Papak.

A.- Zergatik beharrezkoa?

E. 1.- San Francisco-ko ehun bizilagune-tik hogeii homosexualizat hartzen baitu bere burua. Jakina, tamaina horren aurrean ezin diezakek esan ez dagoenik.

E. 2.- Un individuo que se dice el represen-tante de Dios en la tierra deberia tener mas cuidado y andar con más cautela por que para otras cosas ya la tiene y... Barka, baina azken hau erdaraz urten jat.

E. 1.- Hala ere, agerian hitzegiteko esku-bidea dik, denok bezala. Ba zekiagu norma-lean elizako arauak ez direla betetzen. Ea zein apaiz gazteren ustez bekatua den ezko-naurreko sexuen harremana! Elizak bi mutur dizkik. Batarekin laztantzen hau bes-tearekin jotzen hau. Irakurri duzue monjen jatzkeri buruz egindako deklarapenik? Ez dik esaten bada, lehengo modura jantzi behar dutela! Hau guztiau gainera, elizaren problemak dituk. Gertatzen dena zera duk: prentsak bere senetik ateratzen dizkik:

A.- Jazkerak direla eta, EHGAM-en tra-bestirik al dago?

E. 1.- Beno trabestismoa zer den ikusi beharko likek.

- EHGAM-en ez dozu.

- ... Nor da travesti, arropaz aldatzen dena?... jazkeraz esan nahi diat... edo horre-kin batera bere burua, usteltzen duena, pros-tituitu egiten duena? Lendabizikoa bada,



bai, ba dituk batzu. Baina ez dituk bizi tra-beesti gisa. Noizbehinka eta horrela. Opera-zio baten bidez sexua aldatu direnak ez zeuzkagu.

A.- Eta zer pentsatzen duzue?

Inolako merkatapenik egoten ez bada konforme gagoz. Eta etxeakoandreaez janztea nor edo nori gustatzen bajako, ...edo moño-ñaz, hor konpon. Ez dautso inori kalterik ekarriko.

- Inauterietan eta abarretan ez al haiz konturatu nola gero eta jende gehiagori gus-tatzen zaion emakumez janztea?

A.- Trabestismo abertzalea ez dago orain-dik modan ala bai?

- Ez. Etxekoandreaena ez zuan seriosa. Noizbait bai agian. Fundazioa dela eta nork jakin?

A.- Zein fundazio?

- Sabinorena... Ez jar holakorik. Txan-txetan zuan.

A.- Eta travestiak zertzu dira? Arrak ala emeak?

- Galda ezaiek. Guretzat travestismoa norberak nahi duen erara janzteko eskubide-ren bat duk.

A.- Eta norberak nahi duen modura pai-lardatzeko eskubideaz?

- Pailardatu hori prostituitu izanen duk ez da?... Beno, eskubide ba zegok baina ez liake egon beharrik. Ez zekiat gainera hori eskubidea denentz; modu batez, gure lan indarra saltzen dugunez pailardatu edo hori, egiten gaituk nolabait.

A.- Ez al duzue uste emakume homose-xualen arazoa, zuena baino askoz gogorra denik?

- Guk bai. Hala ere galdera horien berriak jakiteko gu baino hobe, emakume berek erantzungo liateke.

- Lesbianismoa onartuago dago. Gizarte matxistan saltzen den produktua dozu. Aldizkariak, zinea, ikuskak eta abar. Baina hori azal bat dozu. Beste azalean emakumea dozu, hau da, zapalkuntza eta bigarren kla-seko herritarra. Lesbianoak emakumeak direlako gu baino zapalduago dagoz. Heu-ren harremanetarako gaxtasun guztiak dau-keez. Beren afektibitatea adierazteko oso leku gitxi dauke eta abar. Hiri handietan bakarrik, Bartzelonan edo Madrilen.

- Emakumearen arazoa duk oro har. Hik ez duk hor zehar etxetik ligatzera dijoazen emakumerik ikusten. Ba zegok jakina. Bai-na zenbait girotan ez al zaie oraindik puta-tzat hartzen? Gizarte honek gizeonezkoa bai-no emakumearen sexualitatea gogorrago zapaltzen dizkik.

A.- Homosexualitateaz aritzen ez den jen-derik onartzen al duzue EHGAM-en barne?

- Jakina. Horregatik hain zuzen gay hi-tzaren definizioa zentzu horretan bazioak. Homosexualitatea askatzeko burrukatzen duen edozein pertsona, gay duk. Ez diagu interesik norekin edo nola aritzen den. Zoo-filoa diaitekek izan. Azken honetan delako tendentzia hori eksklusiboa balitz zer nolako traumak eduki litzakeen ikusi beharko likek baina zoofiliaren kasuak ez dituk sekula eksklusiboak, behin behinekoak izaten dituk, normaltzat hartu behar dituk orduan.

A.- Hosexualitateaz aritu baina EHGAM-en parte hartzen ez duten jende kontzientzia-dunik al dago?

- Asko eta asko. Gehienak. Politik alder-dietan halakoak gertatzen dira. Militantea izatea askoz neketsuagoa da, denbora ken-tzen dautzu, problemak, sortu egiten daut-zuz eta abar...

SOZIALISMOBIDEAK URRATZEN

Aurretik esan dezadan ondoren datozenak inpresio pertsonalaren fruitu direla, eta ez dudala azterketa sakonik egin berau frogatzeko. Euskal Herriaren klase azterketa bat eta klase frakzio desberdinen jarrera bizi garen prozesuaren aurrean tresna beharrezkoak ditugu baina oraindik ezker abertzalean ez dugu izan hori egiteko betarik, nonbait.

Historiaren aztertzeak eta bereziki mugimendu iraultzaileen aztertzeak gauza bat erakutsi du: Langileriak aurrera darman bere askapenaren aldeko burrukan, bere klasekideak ez diren lagunak topatu dituela; ez beti, bai ordea batzuetan.

Burgesiaren, hau da, produzitzeko tresnen jabeen artean, mailak izan ohi dira. Batzu handiagoak, beste batzu txikiagoak. Batzuk eta besteek interes orokor batzu komunak dituzte (kapitalaren akumulatzea, etab), baina beren eguneroko ekintzan interes orokor horik lortzeko bide desberdinak erabiltzen dituzte. Eta batzuetan, batzuen eta besteen artean konponezinak sortu izan dira. Hau batez ere krisi garaietan gertatzen da. Krisi garaietan, produktuen demanda gutxitu egiten da, eta ondorioz saltzeko kompetentzia itzela egoten da. Kontutan harturik,



lehendik entpresak bere produkzio maila ahal dutena baino txikiagoa izaten dutela, eta ondorioz kostuak handiagoak eta irabaziak txikiagoak, gainera, konpetentzia handian egon beharrak kostu gehiago sortzen dizkie, eta horrela galerak etengabe izatera heltzen dira. Hau gertatzen denean entpresa horik hixteko bidean, desagertzeko bidean gelditzen dira. Estatuak laguntasun handia ematen ez badie. Baina Estatuak maneiatzen dutenak, burjes handiak izaten dira eta Estatutik egiten duten politika beren interesen defentsan egiten dute. Hor, bada, batzuen eta besteen artean konponezina. Hau gertatu izan denean batzuetan burgesia tipo hau langileriaren alde jarri omen da burges handien aurkako burrukan. Hau da, aliantzak gertatu izan dira.

Nola dago guzti hau Euskal Herrian?

Betidanik entzun eta irakurri izan dugu Euskal Herrian burgesia tipo honek ordezkari politiko bat zuela: PNV. Gaur egun, nik uste, PNV gero eta gehiago burgesia erdi (ez handia, ez txikia) baten ordezkari dela, eta baita ere, goi burgesiarekin zerikusia duen jendea ere gero eta gehiago PNV-en kokatzen ari direla.

Burgesia handien eta txikien arteko konponezinak aspaldi atera ziren Estatu-en mugetatik lurralde gero eta handiagotara hedatzeko. Hor ditugu multinazionalak lekuko.

Burgesia handia gero eta handiagotuz doa, eta bere interesak lurralde guztietatik hedatuz. Horra, inperialismoa. Burgesiak, ez jadanik herri bat bakarrik, herri asko kontrolatu behar ditu bere interesak aurrera ateratzeko.

Gure herrian ere, interes inperialistak daude, baita ere espainol estatuko burgesia handiarenak; hemengo burgesiarenak azkenik.



Lehen bezala hauen artea konponezinak gertatzen dira eta batzuetan burruka bizian hasi ohi dira. Euskal Herrian hau gertatzen ari ote?

Nik ezetz uste dut. Hemen burgesia tipo horren ordezkari politikoak indar politikoa du (bere base herritarra), beste leku batzuetan gertatzen ez dena. Eta indar politikoa hori erabiltzen ari da bere interesen alde eta ez inolaz ere langileriaren alde. Adibide garbienetarikoa bat, "Langileen Estatutu" honen erabilera izango da. Bestetik eta lehen esan bezala, burgesia tipo hauen artean burrukak egon arren, garbi ikusten dugu Euskal Herrian ez duela burgesia tipo honek inoiz ere jarrera kontsekoente bat hartu burgesia handiaren aurrean. Bai ordea langileen defentsan ateratzen diren indar politikoen kontra, atakeak gero eta handiagoak. Burgesia handiarekin kontzertua (jakirik gainera, kontzertuan beti galtzen ateratzen dela ahulena, kasu honetan burgesia txikia) eta langileriarekin burruka-etengabea.

Horregatik eta une honetan, nik uste dut, hemengo langileriak ezin duela era horretako burgesia tipoarengandik inolako laguntzarik espero, eta bai ordea zapalkuntza.

Mendizabal

Mila bederatzehun eta zibilizazioaren urtean alimaleko hondar-pilak barreiatzen dira hirien ingurumarietatik, eta, hirian bertan, gizon-hil-herrian bertan, HELAS!, ondikoak asetu dira gizonaren gogorapen haiekin.


Hau itsutasunaren handia!, ez dugu gura ontasuna baino, eta ontasun-nahiak itorik gauzka. Edo itotzen gaitu. Eta gibelerantz begiradaxo bat egiten dugun egun horietan, geure apailu bipitsuak dastatzeko ahalegin guztiak dagitzagunean, horra hor ezintasunaren egia, betirako dugun zigorradaren samina.

Egun nahiz bihar, bihar zein etzi, derigorrez eta berriro. Berriro erortzen gara madarikatu egin ditugun ekintzetan. Eta zenbaitetan isladatzen zaizkigun murtze-saialdiek, haizearekin lagun den bisuts hutsa, bisuts fin eta huts hura, agerteraziko digute; alderatze-projezioa gure ekinaldi orotan, aurrean izateko.

Non dira ezinezko ametsak! Nora hegaz egiten gure gogoak!

Pittinka-pittinka ari gara lurperatzen tenorerik bikainenak, itzulezinezko joanak; baina, hala ere, ba dugu hausnartzeko kapilua, egiten ez ditugun -egin genitzakeen- gauzetaz hipotesixoren bat haizetzeko; maite ditugun eta beteta nahi eta behar genitzakeen igurikapenen ezak nondik datozkigunez solastatzeko. Baina lortzen ditugun, edo hobe lortu behar ditugun, iheste-zirtoak gorabehera, ezin dezakegu itsatsirik daramagun patua-rengandik lasterkaldi luzeegirik egin. Gizona ez baita haragia eta berezko gizontasuna bakarrik, gizona giza-errealitatearen zatitxo bat baizik ez delako, eta gizonarengan benetako muina behar dugu aurkitu, ez haragiarena. Haragia ondo bizi daiteke gizontasunik, gabe, baina gizona ez; gizonak ezinbestekoa du jite hori eta bestela ez daukagu gizonik. Eta geure, gizontasunarekin -egun bztez- topogingo bagenu, oso gauza gutti aterako genuke garbi. Zeren eta ez bakarrik eta soilki gizonaren haragia eta gizontasuna, batasun bezala, baitaude hutsaren hurrenera kondenaturik, baizik eta gizontasuna bera ere. Zibilizazioan, etengabeko gizon-ekoizlean, bideak oro elkar-gurutzatzen dira funtsezko zereginetan; DESGIZONTZE-lanetan. Eta geureari ongi tinkatuta egon arren, beti izango gara bipilduak eta astinduak; eta biluzik eta kolpatuta jarraiki behar.

Senperrenak egin beharko genituzke gizontasun-hondarrak elkartzeko eta ikusmolde berri berri batekin, giza-katearen



ETA NON GIZONA?

bidez posibletasunaren mailarik gorenera ailegatu ahal izateko.

Eta ez gara durduzatu behar, ezintasunaren lurrin nardagarriez; ezintasuna, existitzen den zerbait den neurrian, baliagarri baitzaigu gure ahalmenak zeintzu diren frogatzerakoan. Halabaina, zer edo zer positiboago egin nahi badugu, askatasuna dugu irtenbide bakarra; dena eta ororen kontra aurkatasuna.

Uztarri baten eleak: aurkatasuna eta askatasuna. Baina bitasun berorren ki-deak bidezka ezberdinetik zuzentzen direnean, hasi egiten da hondamendia eta, beraz, zentzugabeko burruka. Eta uztarriak krak egiten du.

Hau kantuaren tristea!
ez baitut neuk gurea ikusten
ez baita geugan gurea bizi
eta min hutsez amiltzen naiz hutsera
adarrak gabeko zuhaitz eiharraren erpene-
tik

MARRAUZaren haragia
—milatan zatituta—
dago giza-bizia munduan,
eta haragi-poxi gureak
ez dira elkar-topatzen.

Aurki baneza!
ondikoen hobenduna
betirako izango nuke hazkurri
faltatasun-mahaian.

Karlos Santisteban

PARTIDU FEMINI

Oraingo honetan, libruska bat dut mintzatzailer. "Partidu Feminista" izena duena, hain zuzen. Egun, estatu mailan, dagoen tendentzia feminist baten ezaugarri garrantzitsuenetako bat, alegia.

Ez dakit, liburu baten azalpena edo laburpena egitea elkarrizketa baten bidez, oso era ortodoxoa den ala ez, baina holaxe liburuaren mamia errazago eta arinago azalduko nukeela iruditu zait.

Erantzunak, liburutik hautatutako aipamenez osaturik daude eta ahal den zuzenen bere ideia nagusienak transkribatzea, izan da neure helburu bakarra. Partidu Feminista honen tesisak eztabaidagarriak izango direlakoan nago, baina lan kritiko hori irakurleari uzten diot...

A.: Zergatik sortu duzue emakumeen askatasuna lortzeko partidu bat?

P.F.: Klase sozial baten indar organizatuek partidua egiten dutelako. Emakumeak klase zapaldu bat garelako eta zapalkuntza horren aurka borrokatzeko geure organizazioa, geure erakundea, behar dugulako: geuk teorizatua eta zuzendua. Organizazio indartsua, koordinatua: emakumeen borroka benetako iraultza feministara eramanez lukeena.

A.: Partiduko egitura iruditzen zaizue helburuak lortzeko era bakarra?

P.F.: Partidu estrukturaz aparte, beste esperientziak egin dira: asanbladak, taldekak sakabanatuak, kasik koordinatu gabeak, agirian utzi dute organizazio horien ezintasuna eta efikaziarik eza praktikan. Efikaziarik ez hau, gure etsaien mesedetan bakar bakarrik da. Zeren, nahiz eta, borroka giroan urte asko ari izan, iraultza-mugimenduek inoiz ez dute lortu partidu estrukturak lortu duen arrakasta.

A.: Eta arrakasta hori zertan datza zuen zat?

P.F.: Boterea lortzean. Bakar bakarrik, boterean parte hartzean eta bertan beste klaseekin parean irautean, honela gizartea aldatu ahal izanen dugu geure mesedetan.

A.: Boterea lortzeko iraultza feminista egin behar da eta iraultza lortzeko partidu bat behar da, ezta?

P.F.: Bai... partidu indartsu bat, organizatua, demokrata eta diziplinaduna, honek bakarrik eramanez du iraultza egin duenaren mesede edo faboretan. Zeren geurea egin eta geure onerako den guztitan probetxatzen dugun esperientziak zera demostratzen digu: Koordenada hauen barnean mugitzen diren partiduak, eta hauek bakarrik, izan direla iraultza zuzentzeko gai.

A.: Zuen partiduaren tesisa honetan datza: Emakumeak gizonak zapaldu eta esplotatu egiten duten klase sozial bat dela, ezta?... Zertan oinarritzen zarete afirmazio hau egiteko?

P.F.: Honen erantzun zehatza, gure liburuan aurki dezakezu. Lehenbiziko partean, oinarri teorikoak azaltzen ditugunean. Hitz guttitan zera esan dezakegu:

natzen delarik beraiekin eta lanaren giza antolaketan lanaren indarra birproduzitzen eta eustera behartua.

A.: Orduan, emakume burjesa eta langilearen artean askotan egiten den bereizketa?

F.P.: Emakumeak, zenbait klase soziale-tan zatierazten direnean eta klase antagonikoetan zatitu ere (emakume burjesa-emakume proletaria) beti senarraren klase sozialearen arabera egin ohi da, zientzi ezagueraren kontsiderazio izpirik gabe. Honela bereizi ohi da emakume burjesa, ez produkzio medioen jabetasunagatik, kasik inoiz ez baita emakumea produkzio medioen jabe kontsumuzko etekinen jabetzagatik baizik: etxea, autoa, pitxiak etab... Baina klase bat, inoiz ez da definitzen bere kontsumu-etekinen arabera.

Emakume klase bezala harturik, beste zenbait klasetan zatikatzen da. Emakumeen arteko diferentziak, bereiztasunak, batez ere, gizonen alokairu, aberastasun eta propietate edo jabetzari buruz egiten da batipat. Bere emazteak, bere amak edo bere alabak, gozatu edo sofrituko dute etxeko gizonaren etekinek sortzen dutena: Ekonomi "statusa" delaeta, bizi-modu diferenteak sortzen dira emakumei buruz. Nahiz eta bizikera honelakoa edo halakoa izan, guztiek, emakume guztiek, gizon bat, jaun bat izanen dute, esplotatuko dituen. Adibidez, behar sexualak direla, gizarteko prestigioa edo fama dela, ondorengoen beharragatik edo etxeko zerbitzari paperagatik.

Emakumeak zapaltzaileari meneratuak egonen dira eta honek mantenua emanen die, hau irabaziaren arabera kalitate eta kantitatean. Burjes baten emaztea, produkzio-medioen jabearen emaztea, ez da burjesa, bera ez baita produkzio-medio horien jabe, ez baitu inolako indar ekonomiko-politikorik bere esku.

A.: Baina, adibidez, emakume ezkongabeak ez dira aipatutakoaren arauera bizi: Gehiengoak bizi duten sexu zapalkuntzarik ez dute. Honek ez al du zapuzten eta balio gabe uzten, lehen baiezta duzuna?

P.F.: Emakume ezkongabeak emakume klasearen barnean sail bat dira eta bere barnean, oraindik gehiago sailkatzen dira: Ekonomi aldetik familiari lotuak dauden ezkongabeak, hau da, etxeko lanak bakarrik egiten dituztenak. Etxeko lanaz gain, kanpoan alokairu bat ateratzen dutenak eta azkenik, profesio aldetik gertuketa bat lortu eta etxeko lanetatik guztiz liberatu direnak: ekonomi aldetik independenteak. Halaz ere, esan beharra dago, emakumerik gehienek produkzio domestikoak duen legepean jarraitzen dute. Beren iniziatibaz, beren erabakiz



Lidia Falcon, Partidu Feministaren buruzagia

Emakume taldea, klase soziale artean talderik haundienetakoa da eta lanaren sexu banaketa dela kausa, historian zehar, bi produkzio-modutan izan du leku berezi bat: Gizakien birsorkuntzan eta etxeko lanetan, etxeko produkzio-modua. Sozial talde handi hau, gizarte sistema guztietan, beste klase sozial guztietako gizonak zapaltzen dute, morrontza modura erlazio-

STAREN TESISAK

ezkontza utzi eta profesio bidetik bere gertuketara murgildu diren emakumeak, oso gutxi dira. Estatistiketan, inolako indizerik ez da ematen. Hau, industriaren eta ekonomiaren desarroilo edo hazitzean eman ohi da. Gainera ezkongabeak ez dira gelditzen beste emakume guztiekin ematen den zapalkuntzatik kanpoan...

Berdin ukitzen ditu. Denak gizonen eskaintzen zaizkien pribilegioen legeen menpe baitira, gizarteko aurreritziak e.a...

A.: Zuen ustez, Historian zehar emakumea, beti egon al da zapaldua eta Aurrehistorian ere bai, ala izan da noizpait emakumearen aurrezko aro-rik, hau da: Noizpait emakumeak izan al du giza ekonomi-politik b-terean parterik?

P.F.: Egun, matriarkagoa izan dela sinesten duten askotxo dira. Engels-en obraren premisetan oinarritzen diren ideolo-koak, antropologoaren aportazioak ezagutu gabe dirudi, eta beste aldetik, emakumea- ren urrezko aro batean finkatu gabe ez dela posible emakumearen liberazio-hel-

har material eta afektiboen faboretan ba- karrik denez.

Produkzio domestiko era hori, desa- gertu behar da, estatuaren zerbitzuak zulo hori betez. Afektibitate-erlazioak, giza- kiaren barren-bizitza intimoari dagokio- nez, libreki bakoitzak hautatu behar du eta ez indarrez erakunde baten bidez ezarri.

A.: Lesbianismoa, emakumearen zapal- kuntzarako sexu-hautabidea ez ezik, alternatiba politikotzat jotzen al du- zue?

P.F.: Lesbianismoak, heterosexualitatea, familia eta ezkontza, zalantzan jartzen di- tu, baita emakumearen gizonarekiko de- pendentzia eta gizon-emakume paperak ere. Lesbianek, emakume hauek, sexua plazer, atsegin bide bezala planteiatzen dute eta hortan datza beren burruka. Ho- rregatik, lesbianismoa feminismoaren ba- rrengo errebindikazio bat gehiago da, ideologia politiko zabal batetan eta sexu aukeraketa honek feminismo batetara ba- darama. Honela, argi eta garbi, konteni-

zenbait alorretan atzerakada bat nabar- men da. Horrek, tesis feminista konfir- matzen du: sistema kapitalista apurtzea behar beharrezkoa izan arren, horrek ez du zihurtatzen emakumeen askatasuna.

A.: Baina, feministen borrokan, aliantzak ezinbestekoak dira, ezta?

P.F.: Emakumeak, bere borrokaren bi- tartetz, beste klase zapalduen sostengua bi- lartu behar du. Proletalgoarena eta neka- zarina. Horiekin egin beharko lituzke tratuak, beti oso kontutan izanik paktu eta tratu hau autentikoak izan daitezen. Berdintasun mailan eta ez emakume mugimendua proletalgoaren eta nekazarien menpean izanaz. Bere nortasuna beti gorde beharko luke emakumeen mugimendua eta honela etsaien aurkako borrokan, beste klase zapalduen partizi- patu. Mugimendu feministak gizartean, politikan, beti presente egon behar du. Klase zapaldu eta talde marginatuen bo- rroka sostengatu. Bestalde, klase eta tal- de zapaldu guztiak behartu beharko ditu feministen borroka sostenga dezaten, emakumeekin elkar daitezen. Hau da, ar- loak bereizi behar ditugu: bata zapaldue- na, eta bestea zapaltzaileena. Matxismoa, kapitalismoarekin, arrazismoarekin eta kolonialismoarekin identifikatzea lortu behar da eta gonbaraketa hau betidanik errealitate bat izan dela ez dugu ahaztu behar.

A.: "Emakumearen diktaduraz" mintza- tzen zaretenean, egungo kontraesana- ren, hots, GIZONEZKO/EMAKUMEZ- KO terminoak alderantzitu egiten ditu- zuela esan nahi al du?

P.F.: Emakumearen diktadurak zera esan nahi du: emakumeak boterea hartzen duenean, indarren koerlazioa mesedegarri izanen zaiola. Mementu guztietan, ema- kumezkoarekin berdintzen diren balio mailak, nagusi daitezela, nahiz eta "giza interes orokorren" kaltetan izan, hots, emakumearen bizitzaren kondizionamen- duei afektatzen ez dieten interes orokor horien kaltetan.

Emakumearen botereari gagozkiolarik, emakumearen diktadurak benetako ema- kumezko demokrazia eramar behar du. Emakumezko demokrazia eta emakumea- dira diktadura, txanponaren bi aurpegi besterik ez dira, emakumeen boterearena, alegia.

Emakumearen botereak / emakumez- ko demokraziak, ez du esan nahi o/o 100 ko boterea emakumeen eskutan egongo denik, baina bai, guttienez, botereko apa- ratuak o/o 51 emakumeen interesak de- fendatzen dituzten emakumeen eskutan egongo direla. Honela ez balitz, emaku- mee i zuzen eta soilik dagozkien arazoak ez dira inoiz konponduko.

Mariasun Landa



buruak markatzerik, pentsatzen du zen- bait feministak. Esan dezakegu, ez dugula probarik matriarkago bat izan dela zihurtatzeko. Lenin-en definizioak dioe- nez, emakumeak klase sozial desberdin bat errepresentatzen du. Emakumearen partizipazioa produkzio-mailan desber- dina zelako: lanaren sexu zatiketa eta erreprodukzioa. Lanaren sexu zatiketa honek zihurtasunez zererra garamatza: gizona,, gizona zapaltzen hasi zela, gizona emakumea zapaltzen hasi zenean.

A.: Zuen ustez, oraingo famili-estruktu- turak eskutatu behar al luke, emaku- meak klase bezala sofritzen duen za- palkuntza eskutatuko bida...?

P.F.: Bai. Egun, emakumearen zapalkun- tza desarroilatzen den oinarriko institu- zio edo erakunde, familia da. Bertan, zoragarrikiro lehen aipaturiko hiru esplo- tazioak ematen dira: sexuarena, errepro- dukzioarena, eta etxeko lanarena. Parti- du feminista bezala, familiaren deuseztea, erakunde legal, bakar, eta beharrezko be- zala proposatzen dugu. Hau gizonen be-

do politikoa du, gure etsai den gizonaren aurkako borrokan.

Emakume lesbienek osatzen duten sail marginatu honek, asko pentsarazi du nazioarteko feminismoan eta agian, bera izan da zerbait lortzera iritsi dena, emakume liberakuntzan lorketarik garran- tzitsuenak egin dituen. Feminismoa eta lesbianismoa, mementu askotan, gau- za bera izatera iritsi dira beren planteiake- ta ardirakalei esker eta horrela izan ez denean, kontzeptu osagarriak bilakatu dira etsai aurrean...

A.: Historian zehar, emakumearen zapal- kuntzarentzat, beste alternatiba bat so- zialismoaren ezarpenaren aldeko bu- rruka izan da...

P.F.: Sozialismoaren aldekoek zera dio- te: Sistema horretan bakarrik emaku- meek beren liberazioa lort dezaketela. Sozialismoa lortzen ari diren nazioetan emakumeek duten kondizio eta errealita- teak garbi jartzen du ez dela egia. Emaku- mea ez dago askatua eta okerrago dena...

"Ene paradisuetan
zuhaitz asko debekatuak daude
paradisu guztietatik
jaurtiki izan naiz,
ez naiz borrokalari bat
borroka guztietan
sartzen naiz,
ifernu guztiak irabazirik".

Amaia Lasa, aspaldiko euskal idazlea dugu. 1971. urtean, bere anaia Mikelekin "Poema Bilduma" idatzi zuenetik, beste bi liburu poemak osatu ditu: "Hitz nahastuak" (1.977) eta oraingo honetan "Nere Paradisuetan" deritzona.

Liburu apain eta lilugarri hau, Rosa Valverderen marrazkiez osaturik dago.

A.- Amaia, nola sortu zen liburu bat bion artean osatzeko asmoa?

AL.- Ba nuen poema liburu bat dibujuekin egiteko gogo, nahiz gogo hau oso sendoa ez izan. Gero "21 idazle" antologian parte hartu nuenean, lagun bati Lurdes Muñoz, dibujo bat eskatu nion. Asko gustatu zitzaidan eta lehenagoko asmoa finkatu zen. Duela urtebete, Rosa Valverdek, Donostiako San Telmo museoan, pintura erakusketa bat antolatu zuen. Asko gustatu zitzaidan eta dibujoak eskatu nizkion...

A.- Ikusten dugunez, ondorioa guztiz positiboa da. Holakoak izan al ziren harremanak?

AL.- Bai. Oso esperientzia polita izan da. Gure arteko harremanak, guztiz positiboak izan dira... Dibujoak eta liburuaren marketa egiten ari ginenean, harreman hestuetak izan genituen. Orain desberdina da. Bakoitza bere bidetik doa...

A.- Ez dago beste projekturik?

AL.- Ez, Rosarekin oraingoz ez. Baina nik amets bat daukat... Egun batean, poema hoiek, Maite Zugadik dantzatzea... Nola? Ez dakit. Bidea jorratuz joan gintezke eta ea zer ateratzen den...


"Luzaroan
telefonua mutu
ixil ixilik dago.
Goizeko hiruretan
jo du tinbrea
ezer ez du esan
klik egin du
telefonoa
isildu da
berriro"

A.- Liburu horrek biltzen dituen poemak noizkoak dira?

AL.- Gehienak, joan zen urtean idatziak dira. Bat, lehenengo liburuan agertzen da. Beste bat, lehenengo liburuko poema bat hartu eta honen jarraipena egin nuen...

A.- Kritikak egokiak sortzen diren bitartean, zer pentsatzen duzu, zuk zeuk, zeure eboluzio poetikoari buruz?... Bide berean

AMAIA LESAREKIN MINTZO



al daude, "Poema Bilduma" eta "Nere Paradisuetan"? Ala beste bidetik abiatu zara oraingo honetan?

AL.- Hontaz, hirugarren liburu hau egin ondoren, asko pentsatu dut, eta bi gauza ikusi ditut: Bata, tematikari dagokiona, eboluzio argi bat dago, ez dago hausketarik, baina bai eboluzio sakon bat. Bestea, tematika tratatzeko erari dagokiona da. Bai, hor poema batzutan, aldaketa eta hausketa batera jo dut, neretzat ironia fina edo zakarra bakartatea adierazteko, negua, hotza, euria sinboloak erabiltzen baldin banituen, orain mahai eta poltsa batekin, nahikoa dut...



A.- Zergatik bilatu duzu poema gintzan, zure burua espresatzeko era egokiena?

AL.- Neretzat ez da espresatzeko era egokiena poesia. Eguneroko bizitza arrunt eta fantasiarik gabeko honi saltsa piska bat ematea. Gauza askoren artean, nere poema gintzan ondo pasatzen dut, helburu nagusienetakoa, ondo pasatze hau da...

"Arra eta omea
gizarte hontan

inoiz?
ulertuko ez diren
bi pertsona".

A.- Eta poeta bat, emakume bat denean, zer?

AL.- O!! Ze galdera luzea!.. Kontu handia eduki behar du eskandalari ez izateko. Poesia egin bai, baina hitz "egokiak" erabili, bestela auskalo! edozein gauzategatik, erreputazioa galtzen duzu, bail bail kontu diti-amodio-ahizpa maitatze, hitz hoiek!!

Beste aldetik, kontuan hartu, gu bizi garen mundu hertsu honetan, hau da, literaturako arloa orokorki hartuta, sartzen zarelara eta hiru liburu egin eta beste hirutan parte hartzen baduzu, orduan kontsideratuko zaituzte emakume poeta bezala. Aldiz, eta hori askotan somatu dut, nahikoa da mutil gazte batek poema bat edo liburu bat argitaratzea, literatura arlo horretan leku bat izateko...

A.- "Modan" dagoen eztabaida honi buruz, zer deritzozu?. Hots, ba al dago espezifikaterik emakumeek egindako literaturgintzan, artegintzan?

AL.- Nik, guztiz onartzen dut emakumeek egoera berezi bat bizi dugula. Honen ondorio bezala, gure emaitzak bereziak izango dira... baina ez dut uste beste planetan bizi garenik eta ikaragarriko samurtasun berezi bat erakarri behar dugunik... dena dela, gauza hau zehatzago esplikatzen, nik uste dut munduan, Euskadin, idazten dihardugun lanak aztertu beharko lirakeela.

A.- Tokirik ba al du euskal emakume batek, euskal kulturaren munduan?

AL.- Begira, dibujo bat egiten baneki, hau egingo nizuke: Emakume bat, orma luze luze bat igo eta gero mundua berea du. Baina orma hori igo egin behar du. Ezta? Eta nolakoa den orma hori? Kasu askotan, berdina ez izan arren oso antzekoa da: heziketa, normetatik ez ateratzea, erlijioa, ogibidea, senarra, etxea, haurrak, etabar luze bat. Eta hori denori kentzen baduzu oso ondo. Mundua zurea da.

"Gizonik ez uki!

—ez, ez dut ukituko
gizonik ez begira!
—ez, bizialargun naiz eta zurea ez den gizonik ez laztandu!
—ez, ez dut laztanduko zurea ez den gizonarekin ez etxeratu
—ez, ez naiz etxeratu gizonekin eskandalari ez izan!
—ez, ez naiz izango zurea izan ez den gizonaren ohetikide ez izan!

—ez, gizonik ez dut maitatuko.

maitasuna isuri rik
ahizpa eta biok
ohetikide bihurtu ginen
arratsalde euritsu batean".

Poemaliburu

berri
bat

Noiz atera den ez dakidalarik, ihazko azkeneko edo aurtengo lehenengo hilabetetako, hortxe nonbait, Manex Erdozainzi-Etxart olerkari nafarrak argitaratu duen liburu irakurri berri dugu. Aspalditxo honetan, libururik argitaratzen duten iparraldeko idazle urrien lan gehienak bezala Elkar-ek argitaratua. Izenez: **Hinki-hanka. Poemak.** Egundaino legez Elkarrek egin duen argitarazioa, ederra, tinko, errakuntzarik gabeko eta gustuz apaindua.

Èta Idazlea? Inoiz halako olerki solteren bat irakurrita genion Erdozainziri, ez deus esateko modukoa, baina; oraingo kasu honetan, ordea, ba dirudi beraren azken hamabost-hogei urteetako obra osoa edo eta beraren hautapen bar eskaini digula, 1958.ean datatzen duen lehen poemaren astean, azkena 1976.eko Abendukoa bezala ematen baitu; edozeinetan ere, liburuaren irakurlearentzat ageriko, hain baitira, batasun formal eta tematiko baten barruan, desberdin hor agertzen diren olerkiak. Ez da esan behar iparraldeko idazle gehienek bezala eta hegoaldeko askok ez bezala oso euskara aberatsa darabilela, oparo eta jarioaz, bat ere mugarik gabeko, eta askok ostera erakusten saiatu arren erdarakadarik gabekoa. Hain zuzen, prosazko testuetan isladatzen dena, hala hitzaurrean, nola "Egunean egunekotik..." poema luzean, honela baitio lehenengoan:

Jendeak, gauzak, espazioak, garaiak, gertakariak, sendimenduak, sensasioak, hotz-beroak, mugimenduak, burrukak, atsedendialdiak eta beste... ez nahiz ahantzi nabila, gabiltza. Ez dakit baina beharba hola sortzen dateke gudan poesia. Betikotz galdu ditugunak eta urrunduz joaki zaizkigunak ez nahiz ahantzi. Lore baten apaindura miresgarria eta usain gozoa, asterietako sehena eta goiztako ihintza, orgabide batetako ilunpe bildua eta han entzun karrankak, haizearen pereka bustia larrazkenean, supazterreko bilgunea neguan, sasoin bakoitzeko margoak, aro aldiak, hiri baten atzartze nagia goizetan eta hola... Hots, izadian gure begi-beharriek ikusi-entzunak, gure ezpainek hurrupatuak eta ahoan murtxatuak, gure eskuek bazkatuak, hunkituak eta perekatuak, amultsuki eta ikaretan, gure sudur loriosak usnatuak, gure bihotzak maitatuak eta hastiatuak, gure kaskoak bilduak eta aztertuak. Lehengo eta betiko poesia gauzak eta irakiak berextea eta izendatzea, ez arrunt ahazteko.

Alde batetik oso barnekoi eta barnekor, eta politiko, bestaldetik, daukaten poema patriotikoetan. Neurriaren aldetik, agian, pobre, oso aberats, baina, erritmu eta hotsen nahasmenduetan, agortezin diruditen hitz-jokuetan. Nire gustuko akats bi aipatuko

banitu, eta gustua diot, nik maite dudana poesia moeta dudalako buruan, baina ez nahi eta ez denek maite dutena, imajinen errepikadura eta ez berebiziko joritasuna, eta larregizko adizteria eta elementu gramatikalak liriteke, oso gauza zaila ekiditeko euskaraz, bestalde, hain morfologia aberatseko hizkuntza izanez gure hau. Lehengoa, berriz, hain denbora luzetik zeharreko poemen bilduma izatetik datorkio, nik uste, liburu bat osatzeko asmoz idatzi ez diren olerkien batetik hain zuzen ere.

Ene aburuz, kondalari jartzen denean olerkaria lortzen du liburu honek bere goren go lekuak, hizkuntzaren maisua den batek, izan ere, beraren maisugo hori erakuts dezakeenean. Esate baterako "emazteki bat ene bizian" lehen poema ederrean, edo eta "gure etxegibeleko haritza" deiturikoan. Gainera natura deskribatzerakoan, nahiko gaitz den zerbait erdiesten du, naturaltasuna, xalotasun indartsua, txotxolokeriarik gabekoa, berra egokia eskuan beti. Ea berriro ere lehen esandakoa, "populu bat xutik" poema aberetzaleak gutitan ematen dena ematen du, poema sendo bat, amorruez bezala idatzia, jar eta bertan behera idatzia legez, lanik egin izan ez bailitzan, hain baita gotor eta boteretsua, seguru asko geure buruen jabe izateko nahikunde bera bezain zorrotz eta zuzena, baina, hala ere, artaz idatzia eta erritmu ikaragarri ederraz.

Edozein euskal liburudendetan eros daitekeen liburu polit honen poema labur eta polit batez amai dezadan:

Errespetuz...

*Hostoak lehertu ditut
nere zangopetan kraskatu dira
eta ez zaizkit kexatu
hostoak lehertu ditut
metatuak dira urtetik urtera
eihartuak dira urtetik urtera
eihartuak
lur axalean etzanak
zuhaitzen itzalpeetan
errespetuz lehertu ditut
eta mamiraino intzirika kraskatu dira
gainean luze-luzea etzan nintzelarik...*


*Atzo eta herenegun eta lehengo urteetan
zuhaitzen bular eta edergailu
eta haizearen lagunkinak
gaur lurrera eroriak
barreiatuak, hedatuak, lodi-lodia metatuak
urtetik urtera lurraren ongarri eta bazka bilakatuak
gastain ondo eta haritzen atzoko mintzo eta edergailuak*

*errespetuz lehertzen ditut
bihar edo etzi edo geroxeago
bere ohantzean bilduko nauten
hosto ixilduak...*

Andolin Eguzkitza



JORGE LUIS BORGES ELKARRIZKETA BAT



— Egia al da laket zaizkizula galdera estúpidoak?

— Ze galdera estúpidoa!. Ez: kalumnia bat da.

— Baduela berrogei urte ez dituzula egunkariak irakurtzen?

— Hori ere faltsua da: duela hirurogeita hamazortzi urte ez ditudala irakurtzen. Argitaratzen dutenak hogeita lau ordu irauten du, gehienik aste bete. Hobeak dira liburuak.

— Norentzat idazten duzu: etorkizunarentzat?

— Ez, aintzinatearentzat, Lamb-ek esaten zuen bezala.

— Zure irakasleak?

— Vergilio.us, Shaw, Voltaire, Stevenson. Gainera, lagunak, liburuak, jendea, eguzkia, katu hau.

— Eta Dante?

— Oh, Dante ere bai. Hamar bider irakurri dut La Divina Comedia.

— Italicieraz?

— Italicieraz. Ederrak Graf eta Momiglianoren komentarioak.

— Eta Sapegno-rena?

— Txarrena.

— Antigualeko poetarik handiena?

— Grekoa banintz Homero esanen nuke.

— Baina zu ez zara grekoa?

— Hain zuzen; Veirgilius diot.

— Poeta modernorik handiena?

— Browning, Emerson, Kipling.

— Zergatik diozu literatura jolas bat dela?

— Jolasa noblea delako. Begira ajedreza.

— Futbola ere bai?

— Ez. Futbola prostituzioa da, merkatalgoa.

— Literatura noiz bihurtzen da apezgoa?

— Sendatzen denean, felix.

— Eta Flaubert-ena?

— Ez. Hori gaixorik dago.

— Eta literaturgile baten eginbidea?

— Jolastu, Stevenson-ek zioen bezala, literatura egiten jolasten ari den haur baten serioitasunaz.

— Zer espero dute Nobel saria zuri emateko?

— Eman zidatela uste dute agian. Bromeatik at ez didazu niri galdetu behar.

— Zer aldatu zen Argentinan duela urte bi inartxoaren 24an militarrek boterea hartu zutenean?

— Amaitu egin zen kaosa.

— Zure herrian nortzuk gobernatu dute

orain arte hobeto militarrek ala zibiliek?
 - Oraingo Juntan ez dago alprojarik.
 - Gerran gerran bezala eta gerrilan gerrilan bezala?
 - Dударик gabe.
 - Zein klase da Argentinan nazionalistago?
 - Behekoa eta goikoa.
 - Zer da peronismoaz?
 - Benetan jakin nahi al duzu?
 - Galdetu badizut...
 - Lapur, proxeneta, intrigante bilera bat.
 - Peron-en mitoak bizirik dirau?
 - Baina Peron-en mitoa kaudilloa erori eta ihes joan ondoren asmatu eta zabaldutakoa da.
 - Erradikalismoa Argentinan egoera animiko difuso bat da oraindik ere?
 - Aspaldian, duela mende erdi, bai.
 - Orain, iadanik ez.
 - Argentinako katoliko ona al da?
 - Hiriburuan ez. Herrialdeetan, agian bai.
 - Zer da garrantzitsuago fedea ala elizkizuna?
 - Niretzat, fedea.
 - Katolikoa zara?
 - Ez.
 - Kristaua?
 - Ezta ere.
 - Zer zara?
 - Agnostikoa.
 - Artista bat politikaz aritu behar da?
 - Agian.
 - Zu aritu edo aritzen zara?
 - Ni nazionalista, komunista, erradikala, konserbadorea izan naiz. Baina nire eritziek ez zuten sekula eragin ene obra.
 - Eskuineko gizontzat hartzen ohi zaituzte.
 - Erdiko gizon bat naiz edo, behar bada, erdi-eskuinekoa, esan dezagun erdialde bat.
 - Posible al da poliziarik eta kontrolrik gabeko mundu bat?
 - Suitzan, Eskandinavian bai.
 - Eta USA eta Estatu Sobietikoetan?
 - Ez. Potentzia handiek ezin dezakete zaintzea gutxi.
 - Zergatik da hainbesteko bortxa munduan?
 - Galde egiezu filosofoei.
 - Argentinaren biziorik konpongaitzena?
 - Nazionalismoa, primatzen mania.
 - Eta bertuterik ederrena?
 - Adiskidetasuna.
 - Benetan al du argentinarrak gizontasunaren kultoa?
 - Lehen, agian bai. Orain maiteago du dirua.
 - Zer da espainoiak Argentinan?
 - Oso gutxi.
 - Eta italiarra.
 - Asko asko. Eta, hain zuzen, ni hemen atzerritarra sentitzen naiz.
 - Ba du argentinarrak urtearen zentzurik?
 - Ba zuen,
 - Zergatik da futbola hain herritarra?
 - Estupidotasuna herritarra delako.
 - Eta tangoa?

- Herritarra zen. Gaur egun, gazteek maiteago dute jazza. Tamalgarria, putxeetako dantza galant bat zen tangoa.
 - Buenos Aires Argentina da?
 - Ezetz esanen nuke. Mentalki hurbilago dago Montevideo, barnealdeko hiri bat baino.
 - Zergatik da zure herria hain anti-USA?
 - Ez dut sekula ulertu. Gainera ez dut arrazoirik ikusten.
 - Zu ba zara?
 - Amerikanoak mediokreak eta inorantek dira.
 - Zer da komunismoa?
 - Nazionalismo bat.
 - Komunismo bat da ala asko?
 - Komunismoa Mosku da.
 - Herriaren kontra herriaren izenean bakarrik tirokatzen da?
 - Eta noren izenean tirokatu nahi zen nuke?
 - Zergatik diozu demokrazia estatistikan oinarrituriko superstizio bat dela?
 - Demokrazia estatistikaren abusua da. Maiz boterea merezi ez duenari ematen dio.
 - Botuak, kontatu ala pisatu egiten al dira?
 - Pisatu.
 - Estatu panteistaren alde ala kontra zaude?
 - Aurka.
 - Zergatik?
 - Burokrazia izurrite buboniko bat da.
 - Politika ez al da gizona gizonak kontrolatzeko burruka baino?
 - Bai.
 - Ideologiak moralizatu egin behar al du?
 - Ez dakit.
 - Indiferentek ala doktrinarioek dute zentzu gehiago?
 - Ez dakit.
 - Eskandaluaren beldurrak galerazten al du korrupzioaren zabalkundea?
 - Ez dakit.
 - Askatasuna ala justizia da hobe?
 - Justiziaren aldeko nintzateke.
 - Herri bat izan daiteke handi ametsik egin gabe?
 - Ez du ardurarik herri bat handia izateak.
 - Zerk du axolarik orduan?
 - Gizona handia izateak.
 - Historiak -Mommensen-ek zioenez- ba al du erru guztientzako Mnemesis bat?
 - Ez dut historiaren sinesten. Zorte hutsa da oro.
 - Idoloak erori ala hil ere egiten dira?
 - Erori bakarrik egin daitezela espero daiteke.
 - Gazteak, zerk erakartzen ditu gehiago helburuak ala bideak?
 - Batzu helburuak, beste batzu bideak.
 - Gazteen iniziatiba ala zaharren esperientzia da baliosago?
 - Nolakoak den.
 - Zilegia da belaualdi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?
 - Barka, etorkizunekoak sakrifikatu al dira noizbait gutatik?

- Zerk laguntzen du haboro bizitzen, fe-deak ala filosofiak?
 - Niretzat filosofiak.
 - Inteligentzia etikoa al da beti?
 - Bai.
 - Zoriontsuaz edo zoritzarrekoak garen ez ohartzeko gara lehenago?
 - Egun batean iragaiten da paradisuetik infernura, infernutik purgatoriora, purgatoriotik linbora, linbotik berriro infernura.
 - Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzea?
 - Bai.
 - Ze adinetan ezkondu zinen?
 - Ez dut gogoratzen.
 - Zergatik dibortziatu zinen hiru urte geroago?
 - Ur iragana.
 - Gehiago sufritzen al du gizonak erresistitua denean ala andreak erresistitu behar duenean?
 - Ez naiz sekula andrea izan.
 - Zer da hobe, emakume itsusi baten maitasuna ala emakume eder baten adiskidetasuna?
 - Emakume eder baten adiskidetasuna eta maitasuna.
 - Banitatea al da benetan zure akatsik txarrena?
 - Baina ni ez naiz banidosoa bata...
 - Superstizioa al zara?
 - Asko. Asko. Lau zenbakiak suerte izugarri txar bat ekartzen dit; ba al zenekien Japon-en heriotzaren sinonimoa dela? Maiteago dut hirua edo bosta. Area-go: seguritate gehiagorako, bia eta seia.
 - Maiz aldatu dituzu ideiak?
 - Inbezilek bakarrik ez dituzte aldatzen.
 - Ederra ala itsua da gogoragarriagoa?
 - Biak.
 - Nor izan zen garrantzitsuago zure bizitzan?
 - Emakumeren bat, adiskide gutxi, liburu asko.
 - Zein amestzarrek pertsekutatu edo persekutatu zaitu?
 - Hilezkortasunak.
 - Zalantzak ala Seguritateak dituzu gehiago?
 - Zalantzak.
 - Zergatik esan duzu bizitza zentrorik gabeko laberinto bat dela?
 - Ez nuen nik esan. Chesterton-ek esan zuen.
 - Bizitza luzeagotu egin behar da edozelan ere?
 - Ez. Bibliaren aholkua, joateko, hirurogeita hamar urteak dira. Nik jadanik hamar daramazkit atzerapenez.
 - Zer eginen zenuke egun bakar bat geratuz gero bizirik?
 - Adiskideak agurtu eginen nituzke edo ene "opera omnia" begiratu.
 - Denbora kortesa al da beti?
 - Ez da kortesa, baizik eta alderantziz. Ikusmena kendu eta zahartzaroa ezarri zidan.

Roberto Gervaso
 "Blanco y Negro"tik euskaratua.

SUKALDERAKO SALTSAK

AZA BETEA (1)

Jateko hau egiteko, beharrezkoa duzu lurrun-lapiko bat (2)

Sei pertsonarentzat beharrezkoak dituzu:

Aza bat, haragi xehatu (3) kg. bat, (giharre (4) eta zahalkia (5) nahasirik), tipula ttiki bat, hiru ale baratxuri, oilarekeda handi tomate frijitu, bi arraultze, 100gr. oliba, ereinotza (6), biper-hazi beltza, gatza.

Azorriak (7) ur txikitan egosiko dira heltze batean, edo eta, lurrun-lapikoa erabilia beren ur lurrunetan egosiko dira. Lehen kasuan, hamar minutu behar da; bigarrenean, aldiz, balbula (8) biratzen denez geroz, lau. Kasu bietan gatza botako zaio.

Haragi xehatuari, tipula zati txikitu, baratxuri eta biperhazi zehatu, tomate frijitu, ereinotza, arraultze gordin eta oliba txikituak gehituko dizkiozu. Hau guztiau zartagin (9) batean frijituko duzu pil-pilean. Aurrekoa eginik daukazula, koipe gehiegirik nahi ez baduzu ken diezaiokezu.

Zapi edo dafaila (10) handi batez estalitako iragaztontzi (11) baten hondoan azorri bat eta gainean haragizko frijidura pixkat ipiniko dituzu. Modu honetaz, geruzak (12) egingo dituzu, beti azorri baten gainean frijidura pixkat ipiniz.

Ornatzeko, azorriak lorearenak egiten ezar daitezke. Ekintza hauk amaituta, zapiaren lau punta lotzen dira; barne, janari guztia geratzen delarik eta hori guztiori lurrun-lapikoa sartuz. Ordu laurdenez egosi behar du. Ateratzerakoan, beshamel bat botatzen zaio gaineratik plater zabal batetan zerbitzatzuz.

On Egin.

- 1) Rellena, farcie
- 2) Cocôte, olla expres.
- 3) picada, hachée
- 4) koiperik gabeko zerrikia
- 5) *viande de veau, ternera*

- 5) viande de veau, ternera
- 6) Laurel, laurier
- 7) hojas de berza, feuilles de choux
- 8) Soupape
- 9) Poêle
- 10) *Servilleta, serviette*
- 10) Servilleta, serviette
- 11) Ecumoire, Colador
- 12) Capas, couches.



APOCALYPSE NOW



Dennis Hopper



Francis Ford Coppola



Vietnango gerra. Willard kapitainak buruzagiengandik hartzen du Kurtz koronel erotua hiltzeko agindua. Willard hibaian gora abiatzen da, frontean eta cihanetan barrena, Kurtz kausitu eta hil arte.

Hau da, funtsean, filmearen argumentua. Egitura edo hari argumental hau Joseph Conrad idazle polakoaren "Ilunpetako Bihotza" (1902) delako nobelatik hartua. Hala ere, literaturari bakarrik bagagozkio ere, T.S.Eliot-en

"The Wasteland", J.L. Borges, F. Nietzsche eta beste erreferentzia asko aipatu ahal dira filmearen gaia oharzeara heldu gabe.

Filmea egiteko ideia aspaldikoa da. Duela hamar urte mintzatu omen ziren John Milius gidoigilea eta Francis Ford Coppola zuzendaria. Baina 1976.ean hasi ziren filmatzen, Filipinetan eta 230 egunetan zehar lan egin behar izan zuten. Oztopoak milaka, ondoko hauk

esate baterako. 2976.eko maiatzaren hamaikan "Olga" tifoia Filipina uharteak zahutu zituen filmeko dekoratu guztiak deseginez. Bestalde, USAko harmadak laguntzen ez zuenez Filipineta-koaren helikopteroak eskatu eta jaso zituzten, 24 helikoptero hilabete bitan, baina Mindanao hegoaldeko gerrileroen aurka burukatzeko gobernuak ere behar zituenez, egunero goizez USAko ezaugarriez pintatu behar ziren eta gero berriz Filipinako ofizialki iharduteko. Edozelan ere, orobat, 450 langile ari ziren filmatzen. 25 miloi dolar kostatu du filmeak. Filmaturiko pelikularen luzera 90 ordukoa da, lehen muntaiak zortzi ordu eta erdi zituen jadanik, eta azken bertsiok hiruren bat.

Apocalypse Now sortzen parte hartu dutenak asko dira, haien artean John Milius gidoigilea, Vittorio Storaro fotografiako arduraduna (B.Bertolucciren ohizkoa hain zuzen), Dean Tavoularis dekoradorea e.a. Aktoreen artean: Martin Sheen (bere benetako izena Ramon Estevez da), Marlon Brando, Robert Duval, Dennis Hopper eta abar.

Francis Ford Coppola, filme honen buruzagia, duela berrogei urte sortu zen Detroiten eta 1962az geroztik filme ugari egin izan ditu. "The Goodfather" biak eta "The Conversation" dirateke bere filmerik interesgarrienak.

Apocalypse Now honetan bera da gidoigile, produktore eta zuzendaria eta bere aspaldiko asmo baten fruitua baino ez da. Filme honen ondoren "Hammet" delako filmea produzitu dio Win Wenders-i eta bere aldetik "The Brotherhood of the Grape" delako Jon Fante-ren nobelaren adaptazio bat prestatzen ari da.

Apocalypse Now delako filme erraldoi hau, berriz, espektakuluaren eta narrazio psikologikoaren artean agertzen zaigu eta aspaldidanik pantailan ikusi ez genuen bezain odisea izugarria eskaintzen digu, zeinetan Vietnamgo gerlaren ikuspegi dramatiko batekin batera eromenari eta heriotzari kantu bat sortzen baita, ilunpetako kolore eta ez tanden artean. Zalantzarik gabe, filme on eta atsegin baten aurrean gara, eta hau da garrantzitsuena zineman, azken finean eskuindarra ala ezkertiarra deneko espekulazioetatik aparte, atsegina izatea eta esperientzia zinematografiko berriak eskaintzen dizkigula. Agian, **Apocalypse Now** filmek historia eginen du zinemagintzan, zeren eta hain zuzen, Hollywood berpiztutik sorturik, azken urteotako filme ikusgarrietariko bat baita bere preziosismo formalaren aldetik, nahiz bidaia psikologiko eta dramatikoaren aldetik.

Joseba Sarrionandia

DONOSTIAKO AMATEUR ZINEMALDIAN EUSKAL ZINEMA IRABAZLE



Gaur egun inork ez du Donostiako Nazioarteko Amateur Zinemaldiak Estatu mailan tankera txikiz egiten den zinemagintza ezagutzeko duen garrantzia ukatzen.

4 urte lanean jarraitu ondoren, leihaketa honek, nazioarteko mailan, urtero zenbait zinemagile madrildar eta kataluniarrek eta Italia, Austria, Alemania eta Argentinako beste zenbaitek egiten dituzten filmak aztertzekeo posibilitatea ematen digu. Baita ere, euskal zinemari dagokionez, (nahiz Zestoako Topaketek duten bereiztasuna ez eduki) urtean zehar Euskadin euskaraz eta erdaraz egiten diren zenbait filme ikus dezakegu.

Aukerari buruz, kanpora begira, filme gutxiago aurkeztu direla dirudi, nahiz beste urteetan baino euskal filme gehiago egon: 4 bilbotar, 5 donostiar, 3 errenndiar, Erandioko bat, Galdakaoko beste bat eta azkenik 3 azpeitiar.

Zinemaldiak leihaketara aurkeztu dituen 28 filmeak alde batera utziz gero, "Leihaketatik kanpo" sailean beste 10 eman ditu, batzu berandu iritsi zirelako eta 3 urte baino gehiago zituztelako besteak. Gainera "Umeek egindako zinema" sailean beste 7 filme ikusi ditugu.

Sail honetan azkeneko "Umeek egindako Zinemaldian" aurkeztu ziren filme berberak ziren. Sail honek izugarritzko garrantzia du Euskal Zineman eta gehiago landu behar dugun zerbait dela diogu.

Zinemaldia bukatu ondoren, Epai-Mahaiaren erabakiarekin ados gaude ala ez alde batera utziz, bi hitz bakarrik aipamen berezi bat merezi duten haie-taz.

Erreportaia bezala, filme onena austriar sendagilea den KURT KEIL-en "EL REY DE LOS FILIPINOS" dugu. Ihaz ere sendagile honek bere "savoir faire" erakutsi zigun "BALI" filmaz. "El Rey de los Filipinos" erreportaia grinagarriak nola egin behar diren garbi erakusten digu, kamara une nagusietan preziosioz eta erritmoz jartzen, atentzioa inoiz gainbeheratu gabe.

Holako erreportaia bat ez da giza eta erlijio-zeremonia baten deskribapen zehatz bat bakarrik, gizatasunaren benetazko barrenazterpen bat baizik ere. Zuzenki hartutako eta off soinuek benetazko harmonia bat lortzen dute. Hemen ikusi ditugunentzat eta euskal dokumentalentzat jarraibide bat.

LA BELLA MATADORA. Miguel Angel Quintana-Miguel Bernal.

"Mantis religiosa" edo "Santa Teresa" izena duen xomorro eder eta deabruzkoari buruzko sekulako dokumental bat dugu hau. Miguel Angel Quitanak zehaztasun zinemagile eta entomologistaz xomorro kezkarri honen bizizikloa adierazten digu. Filme eder honek, primeran filmatuta, eta soinu on batez lagundua, bere asmo didaktikoan interes berezi bar du.

"DIA Y LLUVIA, LLUVIA Y VIEN-TO".

M.^a Jesus Fombellida eta Jesus Palacioren laburmetraia hau ustekabe bikain izan da. Filme honek herri baten kale zaharretatik eskilarak igotzen eta jais-ten, kolunpiotatik agertzen eta desager-tzen paseiatzen ari diren espartzin eta galtza txurietako gazte bat eta Lasquet botatxoak dituen haurraren historia kontatzen digu. Lan sugerigarri hau iru-

dimenarentzat dei bat bezala kontsidera daiteke. Zinema sortzaile, fin, sentikor eta sugerigarri benetan.

KUTSADURA

Azpeitiako Zine Klubaren dokumental honek bere asmo guztiak betetzen ditu (eta ez da gutxi hau esatea): Ur-kutsaduraren arazoaz jendea sentsibili-zatzea, panfletorik gabe, baina sentikortasunaz eta erritmoz.

Lehenengo zatia ur garbiari abesti alai bat da eta bigarrena ur zikinari hilezko kantu bat. Bien arteko ardatz bezala, arazo honen adierazle bezala, kapitalaren bide frenugabea.


GIZONA-LANA MAKINA.

Berriro Azpeitiako Zine Kluba, baina kasu honetan fikzio mailan. Gaiak eten-gabeko lanak eta kontsumo-gizarteak gizon eta emakumeengan dituzten influentziak adierazten ditu.

Gaur egun pertsona alienatuak telebista, alkohol eta tabakoan bakarrik aurkitzen du bere aterpea. Aterpe fal-tsuek ameskaizto eta desitxaropena bes-terik ez ditu lasterkatzen. Filmeak pix-kanaka erroto bihurtu den gizonaren infernu zirkuluarekin hausкета adieraz-



M.^a Jesús Fombellida. Bere helburua ia beti euskal Artelangintza adieraztea izan da.



ten du, eta era berean naturaren askatasunaren itzulera.

Errealizazioa zoragarria da eta une batzu egiazko antologikoak, sobietarren modura (lana-lana-makina, eta trenbideetan lotura dagoen protagonistaren ameskaizto eskenak).

Dударик gabe estetikoki Zinemaldiko irudi ederrena.

Autopista Norte.

Humberto Esquivel-en filme hau Madril bizi den hego-amerikar honen egitearen adibide argi bat izan daiteke. Bere 20 minutuetan benetan gertatu zen historia tragiko bat kontatzen digu. Autobidean 2 senarremaztek eroetxe batetik ihes egin duen ero baten eraso jasaten dute, beren heriotzarekin bukatuz. Historia hau beste zenbait bezalako da, baina Esquivel-ek gauzak kontatzeko duen trebetasuna, bere erritmoa errespetatzen eta aktoreen lana zuzentzen aipagarria da benetan.

Pedalenzauber. Horst Joel.

Zinemagile alemaniarren filme tipiko dugu hau. Txirrinda-jiraldi baten adierazpenaren bidez erritmo eta mugimenduari buruz saio experimental bat lortzen du hiru erritmo moeta elkartzuz (arrunta, kamara motela eta kamara arina*). Emaidza ederra eta sugerigarria da, eta nahiz asmo handirik ez edu-



ki, errealizazioa zuzena da.

Toki faltaz ezin dugu filme guztiak aztertu, baina bere garrantziarengatik (nahiz besteak bezain onak ez izan) aipamen berezi bat merezi dutela uste dugu:

—“Severine” —Josep Comellás eta Ignasi Planarena.

—“Txalaparta” —Huts-hitz taldearena.

—“Uztarria” —M.^a Jesus Fonbellidarena.

—“Qui es qui” —Joan eta Jose Cicararena.

Bukatzeko hona hemen Rosa M.^a Tolosa, Hilario Muñiz, Luis Irisarri, Ane Mujika, Alberto Ibarburu, José Luis

Isasa, M.^a Jesús Muñoz, J. M. Kristi, Txaro Polo eta J. A. Sistiagak osatzen zuten epai-mahaiak banatu zituzten sariak:

Nestor Basterretxea Saria: —M. A. Quintana eta Angel Bernal-en “La Bella Matadora”.

Lehenengo Saria (Urrezko Domina). —M. A. Quintana eta Angel Bernal-en “La Bella Matadora”

Bigarren Saria (Zilarrezko Domina) —Kurt Keil-en “El rey de los Filipinos”.

Hiruugarren Saria (Brontzezko Domina) —Azpeitiako Zine Klubaren “Gizona lana-makina”.

Bestaldetik “La Bella Matadora” filmeak beste 4 sari lortu zituen: Dokumental onenari, euskal zinemagile onenari, argazki onenari eta herriak filme onena bezala aukeratu zuenari ere.

Soinu onenari dagokion saria “El rey de los Filipinos” laburmetraiak lortu zuen.

Gaiari dagokionez, “Gizonalana” makina” filmeak lortu zuen.

Orain Apirilean gutxi gorabehera izango diren Zestoako Topaketen zain geratzen gara, aurten Euskadin euskaraz egin diren lanak ikusteko eta aztertzeko. asmoz.

J. M. Gutierrez X. P.

* Noizko Zinema Hiztegi bat?



M.ª PAZ JIMENEZ, HERRIAN ZAITUGU

Pasai Antxon taberna-artegela bar eratu dute. Lala eta Juanan izan ziren ideia aurrera eramán zutenak. Artea herrira eramateko modurik onenetakoa dela esan dezakegu, orain arte izan duen arrakasta ezagutuz gero.

Inoiz erakusketa, museo edota bestelako artearetorik ikusi ez dutenek, Pasaiatik irten gabe, ardo bat edatera doazen bitartean, Zumeta eta Arozenaren koadoak ikusteko aukera izan dute.

Aste hauetan, M.ª Paz Jimenez-en erakusketa bat ari zaizkigu eskaintzen. Duela lau urte hil zen emakume honen lanari, benetan hunkigarria deritzogu.

M.ª Paz, 1909.ean jaio zen Valladolid-en. 6 urte zituela, Donostiara ekarri zuten eta geroztik, hemen eta Bilbon izan zuen bere etxea.

Jadanik, 12 urteetan, ikusten duen guztia marrazten du maisurik gabe, inolako irakasketarik gabe. Ostondoaren misterioaz suhaturik agertzen zaigu emakume hau lehen urteetarik, berak idazlan batzuetan aitortzen digunez.

Buenos Aires-en egon zen 1930.etik 1945.arte, eta hemen egin zuen bere lehen erakusketa. Kritikak, oso onak izan ziren eta bere pintura "surrealismo esoteriko"tzat hartu zuten. Garai hartako lanetan, eterargi batez inguraturik gorantz ihes egiten duten izaki poetiko eta arraro batzu ikus daitezke.

1945.ean berriro Donostiara etorri zen eta bere pinturak aldaketa sakon bat ematen du. Beti poetikoa izanik, bizitasun indartsuago bat hartzen du eta marrazkiari garrantzi handiagoa ematen dio.

1962.eta 66.arte, bere hitzetan, "kreatze krisi sakon bat" dauka; berriro oliora jotzen du pintura plastikoak eta haren itsasiak alde batera uzten dituelarik.


M.ª Paz-ek hiltzeko hilabete falta zitzaionean, 65 urte zituela, zera esaten digu: "kolora, forma, poesia etab. helburu bat lortzeko bide teknikoak besterik ez dira, nire, kasuan, irteera bat, eskapu bat, gainditzea permiti diezagun errail edo zulo bat gartzela espazialean".

Bere azken urteetan, zurez esperimenta-

tzen hasi zen eta bere hasieran esan nahi zuen gauza bera eskaintzen digu, hots, espazioaren interpretamena edo hobe, interpretamena edo hobe, interpreta-nahia.

Misterioaren erakarpenean sarturik dagoen emakume honek, bere bizitzaren bukaera datorkiola ikusten duenean, eskeptizismo hutsa dauka konklusio bakartzat. Hona hemen 1968.ean idatzi zuen "Carta a mí misma"tik ateratako zenbait erakusgarri.

... "La vida para mí es una carga pesada"... "Tengo un nombre y un apellido. Una familia unida a mí en esta terrible aventura que es vivir. Tengo amigos que el azar ha hecho que conozca y estimo. Cualquiera de estas personas me es más familiar y la comprendo mejor que a mí misma."... "La Pintura



Como Lala de Lema meja,
 no llega donde al maitetejo,
 por lo alto cielo de su hermosa inmensa,
 María Paz,
 a nuestro recuerdo.

1950 b.



ra, o cualquier otra forma de creación, ¿da una significación a la vida? Puede ser que sí, y en todo caso es tal vez una justificación moral"... "Cuando muera, diré como Rostand: "que habré atravesado la existencia en un estado de incomprensión alucinante". "... Pero a esta edad se acepta todo. Ya no hay preguntas, porque no hay respuestas. Ni rebelión."...

M.^a Paz-ek, pertsona bezala esaten digu hau, eta emakumea zenez, nahiz eta hitzez bere egoera berezia ez agertu, bere pinturen bidez azaltzen digu. Pertsonaiek pintatzen dituen emakumezkoak izaten dira ia beti, eta ez direnean, sexurik gabeko izakiak ikusten ditugu, guztiz idetalduek.

Edozein pertsonak bere dramatik parte

hartzen badu koadro hau ikustean, are gehiago emakumeok. Dena dela, une onak ere pasa zituen mundu honetan, bere laguneri eman zien maitasuna frogatu bat baldin badaiten izan. Lagun hauek bere gogoan daukate samurtasun hura. Blas de Otero-k "Ante la pared: el lienzo, el aire" poema eskaini zion. A Ubeda-k honela idazten du: "... exquisitamente se evade... no sin antes, hacedora de milagros, convertir a todo ser humano en su amigo". Oteizak, Balerdik, Bastierreixek, eta hain ezagunak ez diren beste hainbeste...

Bere obra hemen geratu zaigu, Paris-ko "D'ART MODERNE" museoa, Madril-go "DE ARTE CONTEMPORANEO"-n Bilbo-ko "DE ARTE MODERNO"-n eta Donos-

tiako "SAN TELMO"-n.

Eta herrian ere bai. Pasaian, pintatzaile honen lana ikusteko izan dugun aukera, Lala eta Juanani zor diegu. Beste tokietan ere honelako taberna-artearetoak sortuko balira, asko irabaziko genuke, zinez. Herri bateko giroari indar berria ematen diote horelako iharduerek.

Pasaian, "Ikusmira", behar genuen toki lasai, alai eta emankorra bihurtu zaigu.

Eta hor dabil Lala, joetake, beste erakusketak bar prestatzen. Hain argirata orduko, seguraski M.^a Paz-ek beste bati utziko dio tokia, baina ez dugu ahanztuko emakume hau; hain izan da sakon guretzat...

I. Berroa

GAIK KIROLAK GAIK KIROLAK GAIK KIROLAK



Baina Indonesiako irletan beretan (Javan, Maduran, Sumatran, Balin, etabarrean), burruka eskola eta tankera bereziak garatu izan dira.

PENTJAK-SILATek "gudu-antze osoa" esan nahi du. Hala ere, PENTJAK "norbere babespenerako entseiamolde" gisa kontsideratu behar da eta SILAT "gudakari higiune hauen iratxekitzea" da, lehenengoa alde teorikoa eta teknikoa eta bigarrena eglazko alde, burrukarako alde ihardunkorra dira, halebegia.

PENTJAK-SILATen berezitasuna, norbere defentsarako baina besterik ez izatea da, kirola edo gimnasiazko zantzurik eduki gabe. Gainera, PENTJAK-SILATen gorputzaren ahalak soilik baliatuak dira, hots, ez dago inolako harmaren erabilerarik. PENTJAK-SILATen higiuneak arinak dira eta izterbegiaren enganiagarri erabiltzen dira. Burruka zuzena baztertua da, hau da, ez du japoniar karate eskolen tankera gogorra aritzen, jarkitzarik, erresistentziarik ezaren hastapenaren bila baizik, honekin AIKIDoren teknikari hurbilduz. Ez zaio izterbegiaren indarrari jarki behar, azkenean kontrasta kontrolatzeko, menderatzeko, "erasoari bidea ireki" baizik.

PENTJAK-SILATen beste asmo bat zera da, ekin baina lehen kontrastaren erasoari itxaron behar zaiolako da. Malgutasunez,



GUDU-ANTZEAK: FILOSOFIA ETA BIZITZA (eta II) PENTJAK-SILAT

Ekialdeko herri bezala, Indonesiako irletan haien beraien burrukamolde eta teknika aitzinatu dute eta Ekialdeko herri guzietan gertatu bezalaxe, gudu-antzeotan aitzinatuago dagoen herrialdeetik, Txinatik, hartu dituzte funtsezko ideiak.

Halabaina, Ekialde osoan agitu den bezala, ba zegoen herrian bertan norbere buruaren defentsarako jatorrizko burrukamoldea.

Indonesiari dagokion bezainbatean, PENTJAK-SILATen sorrera Indian bilatu behar da, nonbait.

askatasunez ihardun behar da, kontrastari moldatuz. Burrukamolde honen osterantzako berezitasuna neurkada edo **erritmua** dugu; hortakotz, gertapen edo saioaldiak musika erritmikoz (tam-tam gisakoa edo jotzezkoa) egiten dira. Honelako "musika" burrukarako giro bereziaren sortzaile ere dugu, oihanean basa leinuen arteko gudu-kaldietan agitzen den era berean.

Beste berezkitasun bat, PENTJAK-SILATen aritzeko (gimnasia edo gorputz-lantze edo entseiamendu berezien gisako) aurretiko iharduketarik ez egotean datza, norbere defentsarako ihardunketetan aritzea, berez, gorputz-prestakuntza bat dela erizten baita.

GUDU-ANTZETARAKO ERRITUA

Gudu-antzeen gaian, erritu batez mintzatu beharra dago. Naiz eta burrukarako diziplina ez den berez, KATSUGUEN UNDO dateke ekialdeko izpirituaren "arima magikoa", agian.

Erriturik gehienak bezala, Txinan, duela milaka urte sortua da, baina, NŌGUTXI Medikuntz Doktoreak lehenen modernatu eta Japonian erabili du. SEITAI KIŌKAI edo SEITAI Elkarteak fundatua du. SEITAI hitzak "gorputz alai" esan nahi du.

KATSUGUEN UNDO, ordinarioriki ezagun diren higiuneez arras bestelako dugu, halakoak baititugu gimnasia, dantza, etab.

Borondateak parte hartu gabe iharduten da. Gizonaren higiune oldezo eta berezkoa da.

Higiune gutxi gorabehera kontrolatu eta intelektualduei ohituta gagozkie. Borondatezko arloa gaingitzen duen higiune batek, berehalaxe eritasunera, erogoara, hipnosira eraman gaitzake.

"Higiune birsorkaria edo berriztagarria" (KATSUGUEN UNDO) holakoxearen antzantzean uler daiteke.

Izan ere guziz osterantzekoa dugu. Higiunean, kontzienteak lasai eta bare dirau, eri baten kasuan antsiatu egon beharrean. Nahasita egon beharrean, eroarena bailitzan, argi dirau kontzienteak. Mugaturik egon beharrean, hipnotizatuaren kontzientea bezala, aske eta jara dirau hark.

KATSUGUEN UNDO egitea, ezagutza oro abandonatzean eta gorputzaren jakiturari konfidantza edukitzean datza. KATSUGUEN UNDO ez dugu inolako diziplinarik; ezer izatekotan, indiziplina genuke, halako erarik begiratu behar ez baita, inongo jakabide, indiziplina meneratu behar ez baitzaio.

Higiuneak, berezko higiune bai nahizko bai nahigabekoaren zentzua eskuratzien digu, gorputza desblokatzen, sentikortasuna erregularitzen, eta oreka psiko-somatikoa berrezartzen.

Higiuneak sakonki arnasa harrerazten


du.

Higiunearen ondorenak bestelakoak izan daitezke, ongiegonaren zentzazioa, gorputza arin eta zalu, erflexu orekatuak, edozein eguraldi egoerari ahalbait arinen moldatzea etab.

BESTELAKO GUDU-ANTZEAK

Honekin bukatutzat eman dezakegu honako monografi lan hau, ene eritziz, men-debaldeko pentsamoldeari estalien zaizkion gudu-antzen, lekurik eza dela eta agertu gabe daudekeenak. Halakoa dugu KENDO ("ezpataren bidea"), egungo gizakiaren eta bere iraganeko gudukaritasunaren arteko orekabide dena. TOMOIA SAWAGUTXI maisuak honela diosku hartaz: "Aintzina hil arteko burruka bazen ere, egungo egunean iragantasanaren eta gerotasunaren arteko orekabide dugu; jarrera, abiadura, erflexuak eta lekuaz eta distantziak kontzientziazte dugu; sentimenduen uste sendoaren aitzinamendua eta kolpatzerakoan uste sendoa dugu hura".

Hontaz landa, KARATE, JUDO, AIKIDO, TAE KWON DO, KUNG FU, KENPO, etab. bezalako beste batzu baratzen zaizkigu. Bestalde, aipatu gabe doaz harma erabileran oinarrizten diren gudi-antzeak eta FULL CONTACT eta LIGHT CONTACT delakoak, azken hauek, ene ustez, gudu-antze izena merezi ez duten arren.



JAMES CLERK MAXWELL

1977.urte zientifikoa Einstein-en jaiotzaren ehungarren urteurrenaren inguruan izan da. Nahiko da aldizkari zientifikoak eta dibulгатiboak ikustea horretaz konturatzeko. Gure artean ere, Udako Euskal Unibertsitatean egun bat dedikatu genion. Hala ere, 1879.urtea ez da horregatik bakarrik ospagarria: 48 urterekin Maxwell Cambridge-n hiltzen da. Maxwell-en bizitzak artikulu bat merezi duela uste dut. Hona hemen, bada.

MAXWELL-EN HAURTZAROA

Fisikari hospatsua izan beharko zuena, 1831.eko hazilaren 13an Edinburghen jaio zen. Aita, legegizona, legetaz ez zen lar arduratzen, eta kaleko giroa utziz, Glenair izeneko etxalde batetara joan zen bizitzera semearekin eta emaztearekin. Haurra seme bakarra izanik, zortzi urterekin gertaturiko amaren heriotzak, aitari lotu zion, eta aitak ere semearen heziketaz kezka handia hartu zuen. Edinburgh Academy-ra, eskolara, hasi zenean ikaskideek -kaletarrak- barre eta iseka egiten zioten; honek, gaixobera ere ba zelarik kontutan hartuz, karaktere barnekoia eta hertsia eman zion. Eskolan "dafty" (leloa) deitzen zioten. Ikasle gisa, arrunta

zen, Aritmetikan lan eskasa egiten zuelarik. Irakasleek ez zuten uste, haur haren-gandik ezer onik atera zitekeenik.

Hala ere, aitak eramanik, asko mugitzen zen. Adibidez, hamaika urterekin Faraday-k asmatutako "makina elektromagnetikoak" ikustera joan zen (gero, honek eragin handia edukiko zuen). Halaber, hamabi urterekin, Royal Society of Sciences and Arts (Zientzi eta Arteetako Erret-elkartea) delakoaren bilkuretara joaten zen, eta gero, Society of Art of Edinburgh (Edinburgh-eko Arte Sozietate) delakora. Hemen, koloreei buruzko teoriak, koadroak geometrikoki nola egin daitezkeen, eta beste gauza asko entzun zituen.

1846.eko Apirilaren 6an, James Farbes

profesoreak Sozietate horretan, obaloen produkzioari buruz eta argiaren errefrakzioari buruzko lan bat irakurri zuen. Lan horretan geometrikoki demonstratzen ziren Descartes-en argiaren errefrakzioaren erlazioak, baina hark baino askoz ere errazago. Lan hori Maxwell-ena zen, baina hamalau urtetako mukizu bati, ez bide zen egokia lanak irakurtzen uztea, eta...

MAXWELL UNIBERTSITATEAN

Edinburgh-eko Unibertsitatean ikasle on gisa agertzen zen, eta laborategietan bere erara lan egin zezakeen. Hau oso ongi probetxatu zuen, eta argiaren polarizabilitateaz azterketa ugari egin zuen. Argia estudiatzeko zaletasuna ez zuen

inoiz galdu. Pigmentuak nahastatu eta landuz, zera demonstratu zuen, pigmentuak nahastean eta argi-koloreak nahastean ondorio desberdinak lortzen direla. Halaber, berak egin zuen lehendabiziko kolorezko fotografia.

Unibertsitatean hiru urte pasatu ondoren, bere aitarekin Cambridge-ra aldatzen da, non Matematiketan graduatzen baita, nota altuekin (1854). Cambridge-ko College-n zegoen artean, teoria bat postulatu zuen: "Loaren ekonomiaren Teoria". Hona hemen. Eguna hobeki probetxatzeko, orduak honela banatubehar dira: Klaseak, goizeko zortzietatik, arratsaldeko lauretara. Lo arratsaldeko bostetatik bederatzi t'erdietara. Estudiatu hamarretatik goizaldeko ordu bietara. Gimnasia, goizaldeko ordu bietatik hiruretara. Lo hirutetatik zazpietara. Baina gimnasia hori Kolegioko karrajuetan eta geletan egiten zuenez, bere ikaskideak ez zioten teoria horren praktika onhartu, eta geratu egin behar izan zuen.

MAXWELL-EN LANAK

Graduatzen denean hasten du egiazko lan zientifikoa. Urte batzu aurrerago Saturno-ko erhatzunak zer ziren azaltzeko hurbilketa onenari sari bat eskainia zegoen: Maxwellek irabazi zuen, erhatzunak eredu gaseoso bat bezala tratatuz. Gero, gasekin segitu zuen, gas baten molekulen abiaduren distribuzioa lege baten

bidez deskribatuz, molekula baten bide aske medioa definituz, eta gasen biskositatearen neurketen bidez konfirmatuz. Honela, Clausius-ek kualitatiboki utzitako ideiak, kuantifikaturik eta matematizaturik geratu ziren, gasen teoria kinetikoaren hastapenak jarritz.

1856.ean Aberdeen-eko Marischal College delakoan Filosofia Naturaleko profesorgo bat lortzen du. Haur-denboretako Glenair-en bizitzeko aukera ona zela eta, bere aitarekin itzultzen da Eskoziara, baina urte berean aita hil egiten da. Bi urte beranduago, Mary Dewar-ekin ezkontzen da, Kolegioko nagusiaren alaba, hain zuzen.

Lau urte beranduago Kolegio hori Unibertsitate bilakatzen da, eta Maxwell kallean geratzen da. London-era doa, King's College-ra, bertan bost urte pasatzen dituelarik. Bost urte horietan ikerketa elektrikoak, magnetikoak eta abar egiten ditu, eta argiaren teoria elektromagnetikoaren hastapenak ematen ditu (1864).

1865.ean Glendair-era erretiratzen da, 34 urterekin. Hala ere, 1871.ean Cambridge-ko Cavendish Laborategiko lehendabiziko Fisikazko irakaslea izendatzen dute. Berari tokatuko zaio Laborategia diseinatzea eta martxan jartzea. Oraindik Laborategi hau munduko famatuenetako bat da.

Cambridge-n dagoen artean, aurretiko lanak bukatzen ditu, batez ere Faradayren elektrizitatearen eremuaren teoria

landuz, eta Cavendish-en, Oersted-en, Henry-ren, eta beste askoren lanak integratuz bere "A Treatise on Electricity and Magnetism" (1873), dudarik gabe, Fisika modernoaren baztertu ezinezko zutabe bat. Bere ideiak Hertz-ek konfirmatu zituen esperimenterik, erradiazio elektromagnetikoak sortu zituen.

Maxwell, bere azken urteetan, Cavendish-en lanak argitaratzen saiatu zen. Cavendish honek, beste gauza askoren artean, ura sintetizatu zuen, beroaren teoria molekularra postulatu zuen, Lurraren dentsitatea neurtu zuen, Coulomb-en legea deitzen dena eman zuen, potentzial elektrikoaren kontzeptua landu zuen, eta abar. Ez da harrizkekoa, beraz, Maxwell-ek bost urte dedikatzea lan horri. Lan hau bukatu zuenean, gaixotasun labur batez hil zen, 1879.eko Hazilaren Sean.

Gaur egunean Maxwell-en lanaren garrantzia aipatzea huskeria litzateke. Materiaren Egoerak, Termodinamika, Elektrizitatea, Magnetismoa eta Fisikaren atal guztiak Maxwell-en izenaz horniturik daude. Aportazio konkretuetaz gain, Maxwell-ek Fisikari estilo bat eman zion: Matematikaria izanik, ez zuen ezer ateratzen praktika ugari egin gabe, eta hauek egin ondoren, legeak eta teoriak ematerakoan, osotasuna zuen jomugatzat. Eta benetan, oso ongi lortu zuen. Ez al du merezi, ba, bere mendehurr ena ospatzeak?

I. Zuazo





NIRETZAT/NIRE USTEZ

Hona hemen erdararekiko beste interferentzia bat. Dirudienez, gaur egun horretaz zenbait idazleregaz azaltzen den nahastearen iturbura, erdarazko "para mi" delako horrek bi kontzeptu oso desberdin (gutxienez) adierazten ditu: Batek direktibotasuna, hots, objektu bat mori zuzendu behar zaion adierazteko, eta bestetik, subjektibotasuna, hau da, eritzi bat norena den adierazteko. Ikus ditza-gun biak banan euskararen kasuan, zein desberdinak diren konturatzeko.



NIRETZAT NIRETZAKO

Kontzeptualki biak dira guaza berbera: Labur esanik, guaza bat norentzat den, nori emateko den adierazteko erabiltzen dira. Hala ere, bi hitz hauen kategoria gramatikala aztertzean, desberdinak direla ikusten da. Patxi Goenagaren "Gramatika bideetan" liburuko eskemen arauera, honela aterako genuke bi hitz hauen erradiografia:



Hau da, *niretzat*, *lagunarentzat*, ... eta antzekoak *aditzlagunak* dira, hots, sintagma zirkuntantzialen funtzioa betetzen dute. Beraz, bakarrik doaz aditzarekin batera. Honela prezeski:

niretzat ekarri zuen liburu hau nire lagunarentzat dira
Ostera —entzako atzizkiarekin beste erradiografia hau ateratzen da.



Hots, niretzako, lagunarentzako, ... eta antzekoak izenlagunak dira, hau da, azken batez adjekliboen antzeko funtzioa betetzen dute. Beraz, izen bati loturik jokatzen dira. Era honetan:

Hauk nire lagunarentzako liburuak dira.

Izenlagun guztiek bezala izen-multzo (IM) eta determinante (det) batekin doaz, eta zenbait kasutan zuzenki har dezakete mugatzailea. Adibidez: *niretzakoak lagunarentzakoak*

Honetaz gehiago sakondu nahi bada, Goenagaren liburura jo daiteke.

NIREKIKO NIRE USTEZ

Hitz hauk —eta horien erakoak— eritzia agertu nahi denean erabiltzen dira. Kasu honetan, subjektibotasuna da nagusi eta, beraz, oso desberdina da Kontzeptualki aurreko hitzaz. Hemen ez dago direktibotasunik ez baitago helbururik.

Kontzeptu hau adierazteko, aipaturiko bi formen bariante asko daude, guztiak baliagarri eta baliokide direlarik. Hona hemen horrelakoen zerrendatxo bat:

- nirekiko*
- nire ustez, ene ustez*
- nire eritzian, ene eritzian*
- nire eritziz, ene eritziz*
- nire ustean, ene ustean*
- uste dudanez,*
- niri dagokidanez,*
- ... deritzot*
- ... uste dut*

Ikusten denez, ba da non aukeral dena den, idazkerari dagokionez, ohar txiki bat egin behar da azken bi formei buruz. Begira! Ongi fijatzen baldin bazarete, aurretik edo atzetik menpeko esaldi konpletiboa (-ELA atzizkiduna) eskatzen dutela ikusiko duzue. Honela.

Egindako horri gaizki (dagoela) deritzot
Hori gaizki eginda dagoela uste dut
Ostera besteek ez dute menpeko esaldirik eskatzen:

- Nire ustez, hori gaizki eginda dago*
- Ene eritzian, hori gaizki dago*

Puntu honek garrantzia eduki dezake esaldi luzeen kasuan eta horregatik kontutan hartzekoa dela uste dut.

NAHASTERIK EZ SOR

Aurreko azalpenekin adierazi dugun bezala, kontzeptualki bi gauza desberdin eta gramatikalki hiru gauza desberdin dira *niretzat/niretzako/nire ustez* direlakoak. Eta dirudienez, hemen ere nahastearen sorburua erdararekiko interferentzia da. Idazleok, ba, arduraz berezia hartu behar dugu hiru hitzok desberdintzen ikasteko, bakoitzaren erabilte-eremua banatzen ikasteko, eta azken batez, zein bere kasu egokian erabiltzeko. J.R. Etxebarria

LIBURU BERRIAK

BOCCACIOREN DEKAMERONE TIPI BAT

Gabriel Aresti
Kriselu Editoriala

Dante Alighieri eta Francesco Petrarca-rekin batera italiar Erdi Haroaren udazkeneko idazle gorena izan zen. Giovanni Boccaccio Florentzian sortu zen 1313.ean, hiri hau Europako hiriburu komertzial eta finantziaria zelarik.

Anitz idatzi zuen, toskaneraz olerkiak eta nobelak, latinez obra eruditoak. Orotarik aipagarriena Dekameronea, XIV eta XV mendeetan kasik eskuliburua eta gaur arte hospea eman diona.



GABRIEL ARESTI

Dekameronea ipuin bilduna interesgarri bat da, baina ez da bilduna soil bat, ba du egitura bat era gorputz oso bat. Pretextoa hau da: 1348.ean izurriteak Florentzia erasotzen duenez hamar pertsona gordetzen dira etxalde batean hamar egunez. Zazpi dama eta hiru jaunak, denbora atseginago egiteko, kontuak kontatzen hasten dira, egunero hamar. Hala, hamarna kontaturik ehun kontu osotzen dute Dekameronea, guztiak tematika mugatu baten inguruan, fortuna, amodioa eta zuhurtziari buruz, alegia.

Gabriel Arestik hautapen bat egin zuen itzulpenerako, 15 ipuin aukeraturik. Erran behar da arras egokia dela hautapena, zeren eta Dekameroneko kontaera asko zaharkituegiak baitira eta ez hain interesgarriak. Hautatu direnak, ostera, xarmangarriak. Amodioari buruzkoak dira gehienak eta egitura miresgarriak osotuz batzu. Ipuin bati buruz erran daitekeen merezimendurik bikainenena, sekula ez dugula ahantziko, erran daiteke Dekamerone Tipi honetako kontu batzuri buruz. "Deabrua infernua nola sar" deritzana esate baterako antologikoa da, eta baita ere "Purgatorioko anima benedikatu bat", "Xori errusino la" eta abar. Ipuin berde eta alegerak, Erdi Haroari —maiz erran den bezala— ez baizitzaion falta bizimodu arrunta gozatzeko eta plazera zelebratzeko indarra.

Gabriel Arestik lapurtera klasikoz egin du itzulpena, ene ustez oso egoki. Ortografiaren aldetik, modernoan agertzen da, lehen bertsioan Gabriel Arestik zenbait grafema desberdin erabili zituen arren.

Bukatzeko, derradan, zinemara Pier Paolo Pasolinik eraman zuen bezala Gabriel Arestik ekarri dituela euskarara eta ez dutela ez naturaltasunik ez xarmarik galdutxo. Beraz, Giovanni Boccaccio Dekameronea idazteaz damutu bazen ere hil aitzinean, gu ez gara damutzen, baizik eta zelebratzen.

HERRIAN GARA BIZI

Alfonso Irigoien
Leopoldo Zugaza Editorea

1976.ean argitaratu zuen
Alfonso Irigoien euskaltzain



eta filologo ezagunak L. Haranburu-Altuna-renean "Sorterriaren alde" delako liburua. Orduan jakin genuen linguistikaz gain Alfonsok pintatu eta poemak idatzi ere egiten duela. Hura autobiografia gisako idazlan bat zen eta poema bilduma bat zeraman erantsia.

Orain, olerki liburu bikain batekin datorkigu. Neurtitzak dira, binaka, horrialde pareetan kopla eta inparetan sonetoa. Gaiak bizitzari zein gizarteari buruzkoak dira, gehienetan euskal kultura du gaitzat, bestetan bromaren bat ere botatzen du (Franfran)... Baina funtsean euskal munduarekiko ardurak betetzen ditu kopla zein sonetoak.

*Zentzuen bidez mundua
gugana dator ondua,
izandu zena, badirauena,
mezuz ta hitzez landua.*

Kopla ba dirudi sonetoaren bozeto bat dela edo, alderantziz, bertsio tipitu bat. Baina ez dugu hemen aztertuko, aipamen bat baino ez baitugu egin nahi izan. Baina derragun oso interesgarria dela neurtitzaren (koplaren nahiz sonetoaren) diziplina poetikoa, hain gutxitan erabiltzen delarik eus-

karazko egungo poesian.

EL GOLEM (LE GOLEM frantsesez)

Gustav Meyrink
Tusquets Editor (Marabout, frantsesez)

Golem hau literatura fantastikozko klasiko bat da. Pragako ghettoa judu zahar batean oinarritua, gizonak gizona sortzearen mitoan oinarritua.

Ba zen XVI mendean rabbi (errabino) judu bat Pragako ghettoa Judah Loew Ben Bezalel zeritzona, honek "homunculus" bat sortu zuen buztin gorriez. Errabinoak, Jainkoa bailitzan, bizia eman zion. Golema hazi egin zen, larru horiska eta begi bihur, eta ghettoa erasotzen zutenetarik zaintzeko omen zen. Baina halako batean ihes egiten du eta hiltzaile gisa barreiatzen du izua ziu-tatean barrena...

Golem errari hau XX mendean itzuliko zen mundura zinemaren eta literaturaren eskutik. Paul Wegener zinegileak 1914.ean egin zuen filme bat Golemari buruz (beste bat eginen zuen 1930.ean) eta 1915.ean idatzi zuen Gustav Meyrink idazle kabalistak nobela hau. Gustav Meyrink Vienan sortu zen 1868.ean, aktorea eta ministro baten seme borta, bidentea izan omen zen eta Franz Kafka eta Thomas Mann-en adiskidea. Golem hau da hospe gehien eman diona.

Irakurgarria da, misterioaren eta espresionismoaren xarma laket izanez gero, hasieratik bertatik: "Ilargiaren argia ene ohearen oinera erortzen da eta han gelditzen da harri handi, lau eta zuri baten antzera..."

J. S.

"Posta" izeneko sailarentzat.

"Anaitasuna" izeneko euskarazko aldizkariaren Zuzendari jaunari, lankide eta irakurle guztiei bihotzaren erditik opa dizkiet EGIJERRE-JAI baketsuak eta URTE BERRI ZORIONTSUA baita ere ARRAKASTA HANDI HANDIA euskara paregabearen aldeko lan guztiz merezi-garria.

Nere euskaldun adiskideei eskerrak horko aldizkari eder-ederra zenbakitik zenbakira hartzen dut eta atseginez betarik irakurtzen ditut bertan agertzen diren artikulu guztiak. "Anaitasuna" neretzat garrantzi handikoa da euskara batua ikasteko.

Orain akabatzen doan urtearen bidean gure euskara maite maiteak aurrerapen nabarmena

egin du eta euskaldun berrien zenbatasuna igotzen doa.

"Gora Euskal Herria" eta "Gora Euskara" deiarekin bukatzen ditut nere lerroak.

Pragatik 1979-eko Abenduaren 2an.


Pragako euskaltzalea

Norbert Tauer



GURUTZEGRAMA

35.



35.ZENBAKIA

LUZETARA

1. Intsektu "erlijiosa".— 9. Luis de, espainol poeta (1561-1627).— 10. Maskordun itsaso-animalia.— 11. "..... artzaina" (Xalbador).— 13. Pertsonifikatu.— 14. Abel-en anaia.— 15. Goicoechea (1937.an) edo Lejarza Eguia (1976.an).— 18. Maltzurkeria, finezia.— 19. Ez bero, ez hotz.— 21. Gaizki, larri.— 22. Baso, godalet.— 24. % 25.— 26. Goizeko txokolatea (hitz elkartu).

GOITIK BEHERA

1. Bi pertsona denbora berberean bizi izatea.— 2. Frantziako hibai (frantses formaz).— 3. "Non kea, han" (atsotitz).— 4. ta Juliet, Shakespeare-n teatroa.— 5. Yeats edo Shaw, adibidez.— 6. Gaurko gizonaren arbaso bat (hitz elkartu).— 7. Eskimaleen etxeak.— 8. Ohera joan nahi duen.— 12. Filantropo.— 16. Asia-ko herri handi.— 17. "... Amets Haundirik" (X. Lete-k; 3 hitz).— 18. Jose Migel Beñaran Ordeñana — 20. Askotan mendi tontorretan ikusten dena.— 22. Bizkor, azkar, alerta.— 23. Goiz-goizeko kantari.— 25. Yellow, El Papus-ek hartu zuen saria.

URREZKO ASTABELARRIAK

Betidanik eduki dugu hilenganako erresputua, eta horregatik ez genioke hilberri bati astabelarrik ipiniko. Baina pentsatzekoa da, eskela hau ongi bizirik dagoen astoren batek idatzia dela. Ez al duzue us-te?. Beraz, errefran zaharraren bidetik, aldakuntza txiki bat eginez, hauxe esan behar dugu: "Hilak lupera eta biziak... alfabetatzera!".

Aspaldian ez dugu astabelarrik eskaini. Baina horrelako perla baten sortzaileari urrezko astabelarriak ematea ez ote da zuzen? Ez pentsa! Ez da erraza horrelakorik asmatzea, gero! Jenio literario baten edo astopotro baten aurrean aurkitzen gara, benetan. Zeren eta irudimen izugarria eduki behar baita "Bilbo'ko Santua Hospitala Civil, il zan" idazteko! Ahalegina eginda ere, ezetz astakeria handigorik asma!

Ni neu harriturik utzi nau behintzat. Nire irudimena ez da maila horretara heltzen. Eta hipotesi bezala, astoeuskalki ezezagun batez idatzia zegoela pentsatzen hasi naiz. Eta horrela ulergarri gertatu zait textua. Pluralak egiteko modu berezia du: "seme-alaba, koinatua-koinata". Eta errematerako, joskera bikaina: "Elizkizun ondoren gorputza Galdakonoko kanposantura panteon familiaren". Bapo mutilak! Eskela ez balitz, txistea dela pentsatzeko modukoa.



(G. B.)

Bilbo'ko Santua Hospitala Civil, il zan, atzo 1979garreneko abenduaren 2an, 86 urte ebazala, Eliza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artuta.

Bere emaztea, Ramona Agirre Dustinza; seme-alaba, Sabin eta Nekane; suinak, Maria Angeles Leibar eta Jaime Asua; ilobak, Iñaki (kanpoan), Begoñe eta Jaime Asua Abasolo; neba-arrebak, Maria (Leon Urkizaren, alarguna), Julian (Aszension Vegaren, alarguna) eta Pepita (kanpoan); koinatua-koinata, Daniel Urkiza (kanpoan), Juan Martin Agirre (Lucia Gonzalezaren, alarguna) eta Franziska Agirre (Mariano Olarabalaren, alarguna); lobak, lehengusu eta beste senideak,

Aren animaren alde OTOITZ egin eta GAUR astelehen illak 3. arratsaldeko BOSTEAN, Zornotzako Andra Mariaren parrokian izango diran illeta-elizkizun eta gorpuarango mezatarra joan zaitzela eskutena deusue.

OHARRA: Elizkizun ondoren gorputza Galdakonoko kanposantura panteon familiaren.

ETXEA: Obena, atari B-bostgarrena eskuma. (Zornotza).

Guri dagokigunez, doluminak bidaltzen dizkiogu familiari. Baina Bilboko Hoja del Lunes astekarian eskela hori idatzi duenari, lau erregalo eder: astabelarriak (ongi mereziak baititu), belar-koroa (zer jan eduki dezan), euskarazko metodo bat (edozein, zerbait ikas dezan) eta hilkutxa bat (bertan bero inorantzia eta ausartzia lurpera ditzan).

Ez horregatik!

Ramon Garai

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hizaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena-bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.


**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**

